

Hegats

Literatur aldizkaria

35

Txosten Monografikoa:
ALEMANIAR LITERATURA

Elkarrizketa:
RAOUL SCHROTT



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur

aldizkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Burua: Tere Irastortza
Kideak: Maite Gonzalez Esnal
Tere Irastortza
Zuzentzailea: Andoni Sarriegi
Koordinatzailea: Ana Urkiza
Disseinua eta maketazioa: K3 Inprimategia
Amillaga, 1 - 6. pabiloia. 20570 Bergara

Euskal Idazleen Elkartea

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
Tel.: 943.27.69.99. Faxa: 943.27.72.88
P.E.: eie@eie.euskalnet.net

ISSN: 1130-2445

L.G.: SS-359/90

**Euskal Idazleen Elkartek ez ditu derrigorrean beregain hartzen
Hegats aldizkariko kolaboratzaileen iritziak.**

Hitzaurrea	7
-------------------------	---

Literaturbideak:

Harry Martinson. <i>Hainbat poema</i>	13
--	----

Kritikabideak:

Garbiñe Iztueta. <i>Norbera eta bestea egungo alemaniar narratiban</i>	47
Vicente Huici. <i>Peter Handke: intriga gabeko narraziorako idazkera berria</i>	71

Txosten monografikoa: Alemaniar Literatura.

Bernardo Atxaga. <i>Hiru liburu alemaniar</i>	81
Itxaro Borda. <i>Rilkeren eresiak (h)itzal</i>	85
Felipe Juaristi. <i>Hermann Broch</i>	93
Anjel Lertxundi. <i>Hermann Ungar</i>	101
Ixiar Rozas. <i>Ingeborg Bachmann: egutegiko emakumea</i>	107
Julen Urkiza. <i>Edith Stein, alemaniar emakume argia</i>	115
Juan Luis Zabala. <i>Peter Handke ez dut inoiz ulertu</i>	127
Julen Urkiza. <i>Olerkari alemaniarrek euskaraz</i>	133

Elkarrizketa:

Raoul Schrott. <i>Literatur jardunean parerik gabeko idazlea</i> . Hadassa Moscovici.	143
---	-----

Liburu-iruzkinak:

SACS, O. <i>Antropologo bat Marten</i> . Lourdes Unzueta.	159
Inmanuel Kant: <i>intelektual kantiarra munduari begira</i> . Laura Mintegi.	165

Hegats aldizkariaren 35. ale hau Andolin Eguzkitzari eskaini nahi dio Euskal Idazleen Elkarteak. Arrazoi anitz aipa litezke eskaintza honen zergatien bila hasiz gero: datu hotzenak aipatzeagatik, besteak beste, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari eta *Hegats* aldizkari honetako Idazkuntza Kontseilukide izan zelako azken urteotan. Arrazoi hurbilagokoak gogora ekarriz, aldizkari honekiko zuen fedea edo sinismena eta maitasuna, eta nola ez, ale honetan jorratzen den txosten monografikoa lantzeko agertu zituen gogoa eta ilusioa.

Azken aleotan, *Hegats*eko Idazkuntza Kontseilukook lerro-arte bakoitzean aurkitu ditugu bere arrastoak. Hala ere, irakurleoi gogorarazi egin nahi dizkizuegu, aldizkari honetan bertan agertu diren lanak, eta gogorarazi, web orrian (www.idazleak.org) ere aurkitu ahal izango dituzuenak.

Honakoak dira, Andolin Eguzkitzak *Hegats* aldizkarian egin zituen kolaborazioak:

- Eguzkitza, A.: "Euskal tradizioaren asmaketa" in *Hegats*, 3. zenb. 1990.
- Eguzkitza, A.: "Txillardegi, edo fideltasun baten biografia" in *Hegats*, 15/16. zenb. 1997.
- Eguzkitza, A.: "Hiru poema" in *Hegats*, 17/18 zenb. 1997.
- Eguzkitza, A.: "Nafarroa eta literatura", in *Hegats*, 21/22. zenb. 1998.

Besterik:

- Idazkuntza Kontseiluburu (1997-2001)
- Idazkuntza Kontseilukide (1996-2004)
- Aldizkariaren zuzentzaile (1997-2004)
- Itzulpen lanak, tarteka (1997-2004)

Andolinen omenez asko izan dira bazkide eta ez-bazkideen artetik jaso ditugun idatzia. Sarrera honetan, Idazkuntza Kontseiluak Jose Luis Alvarez Enparantzarena hautatu du, besteak beste, Andolinek *Hegats*en bertan aitortutako estimazioaren osagarri izango delakoan.

Andolin hil duk

Hitz horiexek esanda eman zidaten berri hitsa 24ko goizean Joseba Tobar Arbulu adiskideak eta M. Edurne Eguzkitza emazteak beren zotinak nekez menderatzen zituztela.

Eta zerbait urratu zen nigan, beste euskaltzale asko eta askorengan bezala.

1972an ezagutu nuen Andolin, ni Iparraldean errefuxiatu gisa bizi nintzelarik. Prentsa bidez bakarrik; eta eskutitz publiko batez agurtu nuen Z. Argia astekarian: "Andolin Eguzkitzari erantzunez".

Ez dakit zertaz idatzi nuen. Baina Whorf-en teoriak nerabilzkien nik, eta ia ziur euskararen inguruko harremana izan zen. Andolinek 18 urte zituen orduan, 43 nik. Semea izan zitekeen ia-ia.

Urteak joan, urteak jin, Kalifornian elkartu ginen 1981ean. Biok ari ginen Hizkuntzalaritza ikasten Lon Angeles-eko U.C.L.A. famatuan. Andolin Carlos Otero chomskyzalearen zuzendaritzapean ari zen bere Doktorego Tesia prestatzen. Eta euskal esaldi bitxien gramatikaltasunaz makina bat eztabaida izan genuen.

Eta urtebetez bizi izan ginen etxe bereko bi apartamendutan 1982ko udara arte.

Orduan ezagutu genuen guk bertatik Andolin, emazteak eta biok, alegia. Gizon ikasia, kultura handikoa, poliglota gaitza; euskaltzale porrokatua ororen gainetik.

Eta pertsona ona, onik baldin bada. Onegia mundu honetarako.

Handik joatean neure Ford-Galaxie gorri ederra saldu nion mila dolarretan. Eta bera han gelditu zen.

Azkeneko bolada honetan, lehen baino maizago ikusten genuen elkar. Bai bera eta bai ni, Aralar-eko Senatari-gai gisa aurkeztu baidin. Ez gintuzten hautatu, jakina denez.

Martxoaren 9an poliziak preso altxatu zituen bere anaia eta koinatua. Lehenago ere kartzelan 4 urtez egonak, Josu Eguzkitza Curtis-era eraman dute (Pontevedran); eta Enkarni koinata Soto del Real-era. 3 urte betetzeko zituztela, eta barrura berriro.

Familia osoa kolpaturik geratu zen, noski, eta Andolin bera ere bai.

Andolinen tragediari horrela abertzale familiaren oinazea erantsi zaio.

Eta nik neuk bederen Tobar-Eguzkitza-tar guztiei helarazi nahi diet neure mezu xumea.

Ez etsi, otoi!

Txillardegi.

Literaturbideak



Harry Martinson

Hainbat poema

Gerardo Markuletak hautatuak eta Francisco J. Uriz¹-ek suedieratik gaztelerara egindako itzulpenetik euskaratuak

Gehienek asmoa bizi izatea da, ez ulertzea.

Idazle suediar ahortzi honek (Blekinge lurraldeko Jämshög herrian jaio zen, 1904an) Nobel saria jaso zuen 1974an, Eyvind Johnson-ekin erdi bana (hil, 1978an hil zen, Estokolmon).

Itsas kapitain baten seme, haurra zela geratu zen umezurtz, eta hainbat ihesaldi egin zituen zenbait umezurztegitatik. Hamasei urterekin itsasoratu zen lehen aldiz, eta sei urte egin zituen lan horretan. Atzerrian bestelako esku-lanetan ere aritu zen, nekazaritza ere tartean.

Hogei bat eleberriz gain, poema, saiakera eta kontakizun laburren bilduma ugari argitaratu zituen. Ezagunena, *Aniara* (1956) izenekoa da: 103 poema, espazio-ontzi baten bidaiari buruz, zortzi mila gizaki barruan dituela, eztanda nuklear batek suntsitu duen Lurretik ihesi.

Eleberrietan, *Bidea* (1948) da aipatuena. Ipuin-liburuen artean, aipagarri da *Asunak ere loratzen dira* autobiografikoa (1953); bidai liburuetan, berriz, *Noraezeko bidaiak* (1949). Poema-bilduma garrantzitsuenak *Nomadak* (1931) eta *Natura* (1934) ditugu.

Batez ere argitaratze-urteei begiraturik, harrigarriro garaikide gertatzen zitzaizkidan poemok, eta halaxe hasi nintzen pittinka euskaraz ipintzen. Horra bildumatxoa.

1. J. Uriz-i eskerrik beroenak, Harry Martinson-en jatorrizko poemak lortzen laguntzeagatik.

KABELSKEPP

Vi fiskade upp atlantkabeln mellan Barbadoes och Tortuga,
höll upp lyktorna
och beslogo nytt katschuk på såret i dess rygg
15 grader nordlig bredd, 61 grader västlig längd.
När vi satte örat till det gnagda stället
hörde vi hur det surrade i kabeln.

_ Det är millionärerna i Montreal och S:t John som tala
om priset på kubasockret och sänkningen av
våra hyror, sade en av oss.

Vi stodo där länge och tänkte, i en krets av lyktor,
vi tåliga kabelfiskare,
så sänkte vi den lagade kabeln ned till
sin plats i havet.

Kable-jartzeko ontzia

Itsaspeko kablea altxatu genuen Barbados eta Tortuga artean:
esku-argiei goian eutsirik,
kautxu berriz estali genuen kablearen bizkarreko zauria,
15 gradu ipar-latitudean, 61 gradu mendebal-longitudean.
Urratuaren lekuan belarria itsatsi genuenean,
burrundara entzuten zen kablearen barruan.

- Montreal eta Saint John-go aberatsak dituk,
Kubako azukrearen salneurriaz eta gure soldaten
jaitsieraz hizketan —esan zuen gutako batek.

Han egon ginen puska batean gogoeta egiten, esku-argi ilara biribilean,
gu, kable-jartzaile gogorrok;
gero kable konpondua, berriz murgilduta, bere lekuan utzi genuen,
itsasoaren sakon-sakonean.

BREV FRÅN EN BOSKAPSBÅT

Vi mötte Ogden Armour's lustjakt
på höjderna av Balearerna.

Han är som bekant vår redare -
äger fem svinslakterier i Chicago
och åtta oxslakterier vid La Plata.

Han satte tuben till ögat och sade helt säkert:

- Å, fan! Det är ju min gamla boskapsbåt Chattanooga.

Vi sänkte flaggan och alla oxarna satte i att böla
likt tusen hesa sirener över det ändlösa havet.

Det lät nästan beklämmande,

och jag var böjd att kalla alltsammans: Köttets lov.

Efter detta fick vi en svår storm,

och oxarna, vilka som bekant ha fyra magar,

ledo svårt av sjösjukan.

Ganadu-ontzi batetik gutuna

Ogden Armour-en yatearekin gurutzatu ginen
Balearren parean.

Mundu guztiak dakien bezala, gure patroia da:
bost txerri-hiltegi ditu Chicagon
eta zortzi idi-hiltegi La Platan.

Largabista jaso, begiratu, eta seguru-seguru esan zuen:
- Joño! *Chattanooga* duk eta, nire ganadu-ontzi xaharra!

Bandera errenditu genuen, eta idi guztiak marrumaka hasi ziren
itsaso mugagabearen gainean, mila sirena afoniko balira bezala.
Ia larritzeko modukoa zen hotsa,
eta nik apeta neukan hari guztiari deitzeko "haragiaren gorespena".

Horren ondoren, ekaitz bortitz batek harrapatu gintuen
eta idiek, mundu guztiak dakien bezala lau urdail dituztenez,
izugarri sufritu zuten zorabioarekin.

LEKEN

När du vill tro att du lätt
färdas rakt mot strömmen,
spring då ut på bron en månskenskväll.
Stenbron sätter genast av mot strömmens gamla silver.
Fram hinner du aldrig, men mycket i livet
måste vara lek för att levas.

Jolasa

Korrontearen kontra erraz nabigatzen duzula sinetsi nahi duzunean,
igo zaitez korrika zubi gainera ilargi gau batean.

Harrizko zubia, aingura jasota,

berehala abiatzen da zilarrezko korronte zaharraren kontra.

Zuk ez duzu inoiz ezer aurreratzen; baina bizitzan gauza askok
jolas izan behar du, bizi ahal izateko.

TANKAR UNDER ETT SVART OVÄDER

När åskan har dånat bedövande länge
tar man den lugnare tills den slår ner i huset.

När blixterna bli så täta att de flyter ihop
övertäcker blixtskenet hela utsiktsrutan
och förgyller den som med bladguld.

Med åren förstår du det förfinades lugn,
den moraliska symbolen i källans lugne måne, eller det
efter åratals försök fangade luftskimret på en bambugren.

Kinas sidenmålningar blevo till under filosofers händer
i tider av ständiga krig, skakningar, övergrepp och veder-
värde.

Och de blevo till under fred, men under samma akt-
givande
på vad som är Tao eller Vägen.

Där ingen lugn tanke uppstår, där uppstår inte heller
någon mänsklighet.

Där ingen estet lever utformas inte heller någon nyanserad
mening om mänskovärdet.

Gogoetak ekaitz bortitz baten erdian

Trumoiak denbora luzean jo duelarik,
lasaia go hartzen du batek harik eta tximistak etxea jo arte.

Tximistak sarri-sarri, bakar bihurtzeraino, erortzen direnean,
distirak begiratoki guztia estaltzen du,
eta urrez janzten urre-xaflez bezala.

Urteekin baino ez duzu ulertzen bikaintasunaren sosegua,
ilargi bareak iturrian osatzen duen irudi morala;
edo airearen distira bat banbu-abartxo batean,
hainbat urtez saiatu ondoren harrapatua.

Zetazko margo-lan txinatarrak filosofoen eskutik sortu ziren
etengabeko gerra, zalaparta, erasoaldi eta izugarrikeri garaietan.
Eta bake-aroan ere sortu ziren, baina berdin begiraturik
Tao edo Bidea.

Pentsamendu sosegaturik sortzen ez den lekuan
gizatasunik ere ez da sortzen.

Estetarik batere bizi ez den lekuan
duintasunari buruzko ideia ñabarduratsurik ere ez da sortuko.

TRÄLINNAN

Hon slungade sin hacka ifrån sig
och gick fram mot honom medan hon sade:
förslösa inte för många år på din envishets
olyftbara sten.

Dröj någon gång med mitt hjärta i daggen och lyss till
trast och gök.

Aftonsolen skall snart finna oss gamla nog
att för alltid följa med bakom åsen när hon går ner.

Otseina

Neskak aitzurra urrutira bota,

eta aurrera egin zuen mutilarengana, esaten ziola:

- Ez itzak urte gehiegi alferrikaldu hire setakeriaren harri mugiezi-
nean.

Berandatu hadi behin edo behin ihintzetan

nire bihotzarekin, eta entzun birigarroari eta kukuari.

Laster, behar bezain zahar aurkituko gaitik ilunsentiko eguzkiak

bere atzetik joan gaitezen, betiko, muinoen ostean ohantzera denean.

LI KAN UTTALAR SIG OM TUPPAR

Den starke tuppen gör in i det sista
en uppvisning inför det starka och blinda livet
för att visa sig vara vuxen detta.
Men den som vågar vara den svage forcerar inte.
Vad livet tycker kan inte han tycka.
Vad livet ger honom tillvaratar han stillsamt
som hackad kyckling i livets skog.

Hans mening om livet är inte förnekelse, hat eller förakt,
men sorgsen bejakelse, som ibland kan blandas med glädje
över att ändå finnas till någon liten tid.
Han piper sorgset på den starke tuppens grav.

Li Kan-ek oilarrez duen iritzia azaltzen du

Oilar indartsuak azken unera arte egiten du
erakustaldi bat bizitza indartsu eta itsuaren aurrean,
haren mailakoa dela agerian uzteko.

Baina ahulena izatera ausartzen denak ez du presarik hartzen.
Bizitzak iritzia ematen duen lekuan, berak ezin du iritzirik eman.
Bizitzak ematen diona baketan profitatzen du,
bizitzaren basoan mokoka jazarri duten oilaskoak bezala.

Bizitzaz duen kontzeptua ez da ukazioa, ez gorroto ez mespretxu,
baizik eta, aldi batez, guztiarekin ere, existitzeko onarpen tristea;
alaitasunaz ere tarteka daiteke noizean behin.
Tristeki kantatzen du oilar indartsuaren hilobi gainean.

DE STORA PROBLEMLÖSNINGARNA

Resignationen får reda upp det mesta,
efterhand uppstår en mild sorgvana i hjärtat.
Sådant sker alldeles utan rop eller leven.

Man strävar sig uppåt,
men man vänjer sig neråt.

Det är inte revolutionerna men resignationerna
som gjort det möjligt för mänskorna att leva i längden -
i den mån de har levat.
Ingen har dock till slut överlevat.

Möjligen kan man ordna pensionerna,
men resignationerna ordnar sig själva.

De frilöser efterhand och oavslåttligt alla statliga verk
från det verk de yves över att de utför.

Men solnedgångarna le.

En vind som var bättre bland stammarna kom.
Och granen i snökåpan vände sig om.

Irtenbide handiak

Etsipena arduratzen da ia guztia konpontzeaz,
pittinka-pittinka minaren ohitura leun bat sortzen da bihotzean.
Batere oihu eta gora!-rik gabe gertatzen da hori.

Norbera gorantz ahalegintzen da,
baina beherantz ohitzen da.

Iraultzek gabe, etsitzeek
eman diote gizakiari, luzera, bizi izateko aukera,
bizi izan den neurrian noski.
Inork ez du, hala ere, bizirik iraun azkenik.

Erretiroak konpon daitezke beharbada,
baina etsitzeak beren kabuz konpontzen dira.

Pittinka-pittinka eta etengabe arintzen dituzte erakundeek
egin omen dituzten eta harro dauden gauzetatik.

Ilunsentiek, hala ere, irribarre egiten dute.

FÖRBINDELSE

Mellan poesien som bor i ditt hjärta och vallmon finns
ett kontrakt
skrivet av vinden och undertecknat av förgängelsen.
Det är skrivet med en tranas fjäder
doppad i dagsländans blod.
Problemet för dem båda är
hur livet skall överlistas
att dofta hos orden så att dessa
kan föda hållfasta drömmar.
Ja, drömmar måste byggas säkrare än städer
och dagligen måste de lappas
och lagas efter de dagliga och frätande angreppen från
nyttans tand
som är värre än tidens tand.

Lotura

Hitzarmen bat dute amapolak eta zure bihotzean bizi den poesiak,
haizeak idatzi eta hondamenak sinatu hitzarmena.

Sorgin-orratz odoletan bustitako

lertxun luma batez da idatzia.

Biontzat arazoa zerean datza:

bizitza maltzur engainatzeko moduak asmatzean,
eman dezan bizitzak bere lurrina hitzetan, hitzak
amets solidoz erditu ahal izan daitezen.

Bai, ametsak ere hiriak baino sendoago eraiki behar dira,
eta egunero adabakiz zahar-berritu, eta konpondu
utilitatearen hortzaren eguneroko eraso erregarrien ostean,
denboraren hortza baino okerragoa da eta.

DILEMMAT

Sluter du an till en livstakt som ökar med tiden
finner du ofta att friheten omvänt minskar.
Slutligen går också vanan sin död tillmötes
och i förändringens galenskapstävlan drunknar
konsten att fästa ett minne vid tidens flöde.
Sinnet för saknadens skugga försvinner även,
ingen elegisk anda hedrar förgängelsens gårdar.
Pärlor av löpande svek och förräderier
trädas på samma tråd, den förlöpande tidens.

Dilema

Denborarekin bizkortuz doan erritmo batera ohituz gero,
sarri ohartzen zara askatasuna kontrako aldera jaisten dela.
Azkenik, ohitura ere bere heriotzarekin topo egitera abiatzen da
eta, aldaketen lehia eroan, ito egiten da
oroitzapen bat denboraren joanean finkatzeko artea.
Itzulminaren itzalaren zentzua ere desagertu egiten da,
izpiritu elegiakorik ez agur egiten hondamendiaren lurrei.
Etenik gabeko traizio eta amets-etenen perlak
hari berean kordatuz doaz, joan doan denboraren harian.

LI TI'S RÅD

Äger du tvenne slantar, sade Li Ti på en resa,
köp då ett bröd och en blomma.
Brödet är till för din föda.
Blomman du köper betyder
att livet är värt att leva.

Li Ti-ren aholkua

Bi txanpon badituzu —esan zuen behin Li Tik, bidaian zela—,
eros itzazu ogi eta lore bana.

Ogiak jateko balio dizu.

Erositako lorearen esanahia, berriz, hau da:

“bizitzak bizitzea merezi du”.

STUNDEN

En stund av lycka satt vi tyst
och såg på fjärlarnas dans.
Med gula fanor svängde de
i solens högtidsglans.

Vi tänkte: det blir skönt en gång
att minnas varje sådan stund
när stunder utav annat slag
har hunnit hopa sig till år
en gång när alla sting som ges
ha vuxit ut till sår.

Instantea

Isilean eserita, zorion une batean,
mitxeleten dantzari begira geunden.
Beren bandera horiak astintzen zituzten
eguzkiaren distira galantaren azpian.

Gogoeta egin genuen: egunen batean atsegina izango da
istant haueko bakoitza gogoratzea,
beste tankera bateko instanteak
urteak osatu arte pilatzen zaizkigun egunean,
jasotako zirikada guztiak
zauri bihurtu arte hazten direnean.

ANDLIGA BEHOV

Större än behovet av gemenskap
är behovet av de rätta ensamheterna
de rätta viloställena
i själ och hjärta belägna.
Liksom när ett hjärta
vilar sig mellan slagen
så måste i världspulsen
någonting på hjärtats plats
leda all vila och gång.
Friden måste vara i världen
mitt ibland oss.
Ingenting får göras
till ett påskyndande mål
dit envar tvingas skynda
snubblande över sig själv.
Din yttersta framtid är given.
Den är din död och din grav.
Men livet har spång till en evighet.
Den är spänd inom dig
mellan inre stjärnor.
På den stiger din tanke
in till omvänt riktad resa.

Izpirituaren beharrak

Komunitatearen beharra baino handiagoa da
bakardade egokiak izateko beharra,
ariman zein bihotzean
atseden-leku egokiak izateko beharra.
Bihotz batek taupada artean
atseden hartzen duenean bezala,
eta halaber Unibertsoaren pultsuan,
hala egon behar du, bihotzaren lekuan ere zerbait
atseden eta ibiltze guztiak zuzentzeko.
Munduan bakeak
gure tartean behar du.
Ez du deus bihurtu behar
ibilera azeleratuko duen helmuga;
guztiek, beren buruaz estropezukoa,
jauzi egin beharreko helmuga.
Zure etorkizunik urrunena erabakita dago jada.
Zure heriotza eta zure hilobia da.
Baina bizitzak badu zubixka bat eternitate baterantz.
Zure baitan dago zintzilikatua
barne-izarren artean.
Handik igotzen da zure pentsamendua
kontrako norabideko bidaia batean.

SKOGEN

Tankarna i livets skog, och verklighetens,
handlade båda om träden omkring.

Underst: rötternas kamp och strider.

Därnäst: stammarnas hårda lung,

övert: löven som viskade milt.

Hela vårt liv och hela vårt öde som träd:

rötternas klotlika strid

(nästan som gamars)

stammarnas oberörda lugn

(den blankhårda statens pelare)

lövens milda sus

(drömmen som varar en sommar).

Basoa

Bai bizitzaren basoan bai errealitatearenean,
ideiak inguruko zuhaitzei buruz aritzen ziren.

Behean: sustraien liskar eta borrokak.

Jarraian: enborren patxada gogorra.

Goian: hostotzaren xuxurla goxoa.

Gure bizi guztia eta gure halabehar osoa, zuhaitz gisara:
sustraien atzaparkako borroka

(putreena bezalakoa ia),

enborren patxada ikaraezina

(estatuaren zutabe gogor distiratsua),

hostotzaren xuxurla goxoa

(uda batez irauten duen ametsa).

GUNGFLYET

En igelkott bland löven gick sin rond.
En blanksmord snigel fram på ängen drog
med markens dagg och svalka lugn och trygg.
Det var en kväll när läderlappen slog
liksom en svärtad hand
och strök ut mygg
i hundratal från aftonhimlens fond.

Kirikiño batek bere erronda...

Kirikiño batek bere erronda egiten zuen orbelaren gainean.
Barraskilo distiraz igurtzi batek aurrera egiten zuen belardian,
herrestan eramanez, soseguz eta lasai, bere burua
lurreko ihintz eta freskuraren gainetik.
Ilunkera hartan saguzarra
esku beltz baten gisa abaildu zen
eta chunka eltxo ezabatu zituen
arratsaldeko zeruaren hondotik.

NÄR DAGGEN LYFTS AV SOL...

När daggen lyfts av sol
spelar ängsflugorna upp.
Vart ögonblick byter de plats
med vinande ljudstråk.
Det surrar i timmar.
Vindilar rör vid gräsen och flyttar ljusdagar.
Men sniglarna dröjer sig kvar över dagen
i varaktiga skuggor.
Inte förrän sent om kvällen bryter de upp.
De avreser då till en närbelägen lund,
för dem ett fjärran land.

Eguzkiak ihintza altxatzen duenean...

Eguzkiak ihintza altxatzen duenean,
orduan jotzen dute beren doinua zelaiko euliek.
Lekuz aldatzen dira une oro
ibilbide txistukari ozen batekin.
Orduetan entzuten da burrundara.
Haize-boladek belarrak ukitu, eta argi-distirak mugitzen dituzte.
Baina barraskiloak hortxe egoten dira egun guztian,
itzalgune iraunkorretan.
Ez diote bideari ekiten harik eta ilunkerak ondo aurrera egin arte.
Orduan abiatzen dira gertuko baso ttipi baterantz,
urrutiko lurralde baterantz beren ustean.

Kritikabideak



Garbiñe Iztueta

Vicente Huici

*Norbera eta bestea egungo alemaniar narratiban:
Kulturartekotasunaren inguruan 1990. hamarkadan*

1945. urteaz geroztik Alemaniak bizi izan duen historia ikuspuntu guztietatik begiratuta ere erreparatzeko modukoa izan da ezbairik gabe. 1945az aurretiko urteetako gertakizunak alde batera utziz, Bigarren Mundu Gerraren ondoren eta gaur arteko ia sei hamarkadetan, Alemanian gertatutakoek, ikusmina eta baita batzuetan harri-dura ere, sorrarazten du edozein begiralerengan: are gehiago, hain hamarkada gutxitan izandako aldaketa ekonomiko, politiko eta sozialen aurrean idazleek zein jarrera hartu duten ere galdera nagusi bihurtzen da alemaniar literaturan interesa duen edozein irakurle-engan. Izan ere, idazle-belaunaldi batek baino gehiagok alemaniar errealitatearen eraldaketa sakonak bizi izan dituzte, haien artean esanguratsu eta begibistakoenak, nazionalsozialismoaren eta Bigarren Mundu Gerraren esperientzia, Alemaniaren banaketa, berrogei urtez bide politiko, ekonomiko eta sozial banatatik jarraitutako ibilbideak eta 1990ean indarrean jarritako Alemaniar Batasuna dira.

1945ean garai berri bati ekin bazitzaion ekin, ez egoera ekonomiko eta sozio-politikoan bakarrik baizik eta baita literatur arloan ere, orduz geroztik, ondorengo lau hamarkadetan, Alemaniako Errepublikak Federalean eta Alemaniako Errepublika Demokratikoan eratzten joan ziren prozesu sozial eta politikoei, 90.eko hamarkadan eman zituzten emaitza ikusgarriak, eta horiek literaturan ere islatu egin dira, noski. Batetik bi Alemanien zatiketaren eta eboluzio desberdinen ondorengo batasun-prozesuak literaturari begira gai berri interesgarriak ekarri ditu nortasunaren eta kulturaren haritik. Bestalde, etorkinen fenomenoak ere, hamarkadetan zehar, bizitza sozial, kultural eta literarioan izan du bere eragina eta azken hamarkadan literatur arloan agerian gelditu da jatorri alemaniarra ez duten egileek

beren esperientziaren eta lan literarioen bidez kulturaren inguruko hausnarketan egin dezaketen ekarpena.

1989ko azaroaren 9tik 10erako gauean Berlinen izandako gertakizunek, Europako eta Alemaniako historiaren bidea eta gizartearen bilakaera eragin zuten. Gau hartan Berlingo Harresia eror arazteak, Alemaniako bilakaera politiko eta sozialaz gain, orokorrean artista eta batez ere idazleen jardunarengan ere eragin sakona izan zuten. Ralf Schnell-ek aipatzen duen bezala, Alemaniako Errepublika Demokratikoa desagertzeak, XX. mendeko utopia baten porrota, ideologia-korrante esanguratsu baten ahulezia eta ilusio handien bukaera ekarri zuen (Schnell, 2003: 515). Bestalde, 1990eko urriaren 3an bi Alemanien batasuna ofizialki sinatu zenean, harresiaz bi aldeetako alemaniarrek, politika-, gizarte- eta kultura-sistema berean murgilduz, egoera berri honek alemaniar nortasunaren inguruan eztabaida sorrarazten du, alemaniarren nortasuna testuinguru berri honetan definitu beharra baitago oraindik. Horrekin lotuta nolabaiteko barne-berreraikuntzako prozesu bat ere beharrezkoa izango da aldaketa guzti horiei aurre egiteko, batez ere Ekialdeko alemaniarren baitan. 90.eko hamarkadak, beraz, nortasunak eraikitzekeo garai eta testuinguru egokia eskaini digula dirudi.¹

Alemaniar nortasunaren definizio berria eta batez ere ekialdeko alemaniarren barne-berreraikuntza prozesuaren nondik norakoak, Alemaniar Errepublika Demokratikoa desagertu eta batasun-prozesuak izan zituen ezaugarriekin oso lotuta daude. Berlingo Harresia erori aurreko azken hilabeteetako gertakizunek, argi uzten dute Alemaniar Errepublika Demokratikoko herritarren desadostasuna politikoen jarrerarekin eta sistemarekin orokorrean, baina bestalde, harresia desagertzea eta bi Alemanien batasunak zekartzan aldaketak sumatzeko denbora eta aukerarik ere ez zela izan pentsa daiteke, horrek ondorio bezala, alemaniar batasunaz geroztik batez ere, *neue Bundesländer* ("Lurralde federal berriak") bezala ezagutzen diren bost lurralde federaletako biztanleen galera-sentipena, desorientazioa, etab., ekarri zituelarik. 1989ko azaroaren 4an, Berlingo Alexanderplatz-en egin zen manifestazio handia, ondorengo kontzentrazioa

eta artista eta idazleek prestatutako manifestuen irakurketa gailurtzat izan zituen herri-mugimenduaren helburuen artean, ez zegoen berez Alemaniako Errepublikako Demokratikoa desagertzea, errepublikaren eraldaketa sakona baizik. Hala ere, Alemaniako kultura eta literaturaren historia berriaren katalizatzaile bezala deskribatua izan den (Schnell, 2003: 517) mugimendu horren eraginez, besteak beste, espero ez zena gertatu zen.

Batasun-prozesu horretan, eguneroko bizitzan eta kultur eta literatur arloan, aldaketak garai bateko Alemaniako Errepublikako Demokratikoko biztanleengan izan dira ezarriak batez ere, Mecklenburg-Vorpommern, Brandenburg (Ekialdeko Berlin barne), Sachsen-Anhalt, Thüringen eta Sachsen lurraldeetako alemaniarrengan, alegia. Izan ere, Ekialdeko alemaniarrek, 1989 arte iraun zuen gizarte-, ekonomia-, politika- eta kultura-sistema oso bat egun batetik bestera desagertu ondoren, beren buruak sistema berri-berri batera egokitu beharrean aurkitu ziren oso denbora gutxian, eta egoera horrek, norberaren eta besteen nortasunen eta sistemaren inguruan hausnarketa sorrarazi du.

Oso hilabete gutxitan *Neue Bundesländer*-etan gauzatu ziren aldaketa soziopolitiko eta ekonomikoak alde batera utziz, kultur eta literatur sistema ere erabat aldatu zen lurralde horietan 1990eko alemaniar batasunaren ondorioz. Berrogei urtez Alemaniako Errepublikako Demokratikoko literatur sistema, eta beraz merkatua, estatuaren plangintzen pean, merkatu libreko mekanismoetatik urrun izan ondoren, 1990az geroztik eraldaketa-prozesu sakon batean murgildu zen. Errepublikaren sorreratik, bertako literaturarekin lotutako erakundeak —hau da, argitaletxeak, salmenta eta banaketaren inguruko erakundeak, liburutegiak, antzerkiak, egunkariak, kritika literarioan ari ziren aldizkariak, literatur zientzia unibertsitatean, artista eta idazleen elkarteak, etab—. *SED*-en (*Sozialistische Einheit Deutschlands*-Alemania-ko Batasun Sozialista) menpe, hau da, estatuaren alderdi politikoaren menpe izan ziren 1990 arte, baina Alemaniako Errepublikako Demokratikoko sistema bezala porrot egin zuenean, bere baitako kultur eta literatur sistema ere bertan behe-erorri zen, eta idazle eta irakurleak, merkatua oinarritzat eta nagusitzat duen sistema erabat desberdin batean sartu ziren.

Batasunaren ondorengo hilabeteetan, elementu berri horrek, merkatuak alegia, sorrarazi zituen idazle eta intelektualengan kezka eta hausnarketa gehien. 50.eko hamarkadatik antzezlan polemikoak idatzi zituen eta Alemaniar Errepublika Demokratikoko literaturan outsider eta abangoardista gisa agertu zen Heiner Müller-ek, batasunaren ondorengo alemaniar literatur sistemari buruz egiten duen baieztapena azpimarragarria da: *“Es gibt nur noch Märkte, und dadurch entsteht eine ungeheure Leere”* (“Merkatuak besterik ez daude eta horregatik sortzen da izugarritzko hutsune-sentsazioa”) (Emmerich, 2000: 436). Egia esan, inbertsio handien bidez hasi zen aldaketaren prozesu hori, egitura berriak ezarri.² Garai bateko harresiaren bi alderdietatik prozesu horren ezaugarri ezberdinen inguruan hausnartu zuten ekialdeko eta mendebaldeko idazleek: Volker Braun eta Heiner Müller-en kasuan, biak ere garai bateko Alemaniar Errepublika Demokratikoko idazleak, prozesu honi lotuta porrotaren, desartikulatzearen, galeraren, hutsunearen, komertzializazioaren eta atzeritartze-prozesuaren sentsazioa agertzen dira, beraz, lehen hilabeteetan behintzat bi kulturen arteko bateratze ofizialaren ondorioz sorrarazitako nortasun-galera bezala. Mendebaldeko Alemaniatik berriz adierazpen, sormen eta irakurlearen askatasuna izan dira ekialdeko idazle eta irakurleek bizi izan duten aldaketarik nabarmen eta garrantzitsuenak, gainerako kezka guztiak bigarren mailakoak direlarik. Orokorrean, beraz, mendebaldeko intelektual eta idazleek baikortasunez hartu zuten ekialdeko alemaniar literatur sistema desagertzea eta Braun eta Müller-enak bezalako hausnarketa nostalgiko, eszeptiko eta kritikoak, lortutako askatasun-mailaren gutxiespentzat hartu zituzten.

Garai bateko Alemaniar Errepublika Demokratikoko idazleek beren eginkizuna erabat aldatu zen testuinguru batean kokatu beharrean aurkitu zituzten beren buruak, mendebaldeko idazleek beren eguneroko bizitzan eta idazle-eginkizunetan hain aldaketa sakonik sumatu ez zuten bitartean. Lurralde federal berrietako irakurleen joerak, 1990az geroztik, asko aldatu ziren, batez ere batasunaren ondorengo lehen hilabeteetan. Joera berri hori, gizartearen aldaketa

azkarrekin batera eta ordu arte “bestea” izan zen eta jada ofizialki beren pareko zen sistema ezezagunaren ezagutze-prozesuaren baitan ulertzekoa da: alde batetik lurralde federal berrietako biztanleek sistema berrian eguneroko bizitzarako beharrezko sentitzen zituzten liburu praktikoeak (hau da, lan-legediari, etxebizitza-errentari edota zerga-sistemari buruzko aholku-liburuak, besteak beste) egoera berrira egokitze-lanetan oso eginkizun garrantzitsua izan zuten; bestalde, Alemaniar Errepublika Demokratikoan eskuragarri izan ez ziren testuak -adibidez Stephen King-en lanak-, baita bidaia-liburuak ere, alemaniar batasunaren ondoko hilabeteetan ekialdeko irakurleen joera nagusien artean kontuan hartzekoak dira.

Irakurlearen profila lurralde federal berrietan aldatu bazen aldatu, idazleen diru-sarrerak ere prozesu berri bati lotuak gelditu ziren, beren lanak, merkatuak erabat baldintzatuak baitzeuden une hartatik aurrera. Alemaniar Errepublika Demokratikoan literatur sistemen antolatzaile eta idazleen eginkizunen bultzatzaile Idazleen Elkartea izana bazen estatuaren diru-laguntzekin sortutako beka eta literatur sarien bidez, 1990az geroztik, egitura hori guztia desagertzearekin batera bertako idazleen sustapena ere kolokan gelditu da. Aldaketa horiek guztiak zirela eta, derrigorrez, idazle horiek Alemaniar Errepublika Federaleko idazleek baino jarrera ezkor eta eszeptikoagoa zuten alemaniar batasuna egitearen eta literatur sistematik batzearen aurrean. Gizarte berri eta konplexuago horretan idazleak izango dituen funtzioa eta tokia eta aurreko sistemarekiko erantzukizuna izango dira batez ere ekialdeko alemaniar idazleen kezka nagusiak 90.eko hamarkadako lehen urteetan.

Ralf Schnell-ek aipatzen du, 1989az geroztiko lehen hilabeteetan batez ere, ekialdeko eta mendebaldeko alemaniar idazle eta intelektualak ordezkartza-funtzioa galdu izanaren sentipenak gailendu egin dituela. Bigarren Mundu Gerraz geroztik, egia defendatzea eta berorri ahotsa ematea, urte askotan zehar idazle eta intelektualen aldarrikapena izan zen. (Schnell, 2003: 520) Harresiaren alde batean eta bestean, intelektual eta idazleen helburu nagusia, egia argitaratzea izan zen urte askotan, beren lekua bi gizarte horietan erabat desberdina bazen ere.

Alemaniar Errepublika Federalean, 1949az geroztik eta batez ere 50., 60. eta 70. hamarkadetan, idazlearen funtzioa politika ofizialari oposizioa egitearena izan zen: 50. hamarkadan Konrad Adenauer-en estatu eta politika kontserbadorearen aurka, nazionalsozialismo-arekin zerikusia zuten oroitzapenen errepresiozko prozesu psikologikoaren aurka, ahazte-prozesuaren aurka, berrarmatzearen aurka, arma atomikoen aurka egindako ageriko kritika da nagusi; 60. hamarkadan, bai literatura esperimentalak, bai literatura dokumentalak, hizkuntzaren erabilera tradizionalarenganako, edozein egitura ofizialenganako, eta hein batean, bereziki komunikabide-mundua-renganako, kritika eta mesfidantza, abiapuntu estetiko eta sozial gisa aurkezten dituzte; bestalde 60. hamarkadan, gero 70. hamarkadan zabalduko den joera hasiko da idazle esanguratsu askoren artean: Heinrich Böll, Günter Grass, Martin Walser, Peter Weiss eta beste egile ezkertiar konprometitu askok, publikoki bizitza politikoan parte hartzea erabaki zuten.

Alemaniko Errepublika Demokratikoan, idazleak eta intelektuallak, herriak jarraitu beharreko sozialismoaren eredutzat hartuak izan ziren, estatus sozial berezia zuten, gizartearentzat gidari moral, politiko eta sozialaren funtzio praktikoa ere beren gain izanik. *SED*-en printzipioen arabera, idazleek abangoardia izan behar zuten, herri-masaren hezitzaile. Idazleek Errepublikaren 40 urteko historian zehar beren abangoardia eta hezitzaile izatearen eginkizun hori era ezberdin batean ulertzen hasi baziren ere —hain zuzen Stalin-en heriotzaren ondoren beren funtzioa herriarekin solidario den kritika bezala ere ulertu baitzuten—, sistemak ez zuen estatus sozial horretatik kanpo aukerarik ematen. Estatuaren kontrolari parabola eta metaforen bidez ihes eginez lortu zuten, hala ere idazleek, sistema-ren alderdi sozial eta moral kaltegarrienei buruzko kritika egiten zuten lanak ere Alemaniar Errepublika Demokratikoan plazaratzea, Heiner Müller-en kasuan bezala.

Argi dago, beraz, bai Alemaniar Errepublika Federalean eta baita Alemaniar Errepublika Demokratikoan ere, idazle eta intelektuak ekintzak 1949az geroztik indar ofizialen ikuspegitik begiratuta erre-

zeloolean eta subertsioari, erantzukizunari eta aberriari traizioa egi-teari lotuak egon izan direla. Urte guzti hauetan idazleak egiari ja-rraitu behar diola izango da axioma. 1989az geroztik, aitzitik, eta ba-tez ere Alemaniar Errepublikako Federaleko idazle ezkertiar eta garai bateko Alemaniar Errepublikako Demokratikoko idazleen artean, egiaren eta erreferentziazat har daitekeen errealtatearen inguruan, zalantza asko sortzen dira. Alemaniar Errepublikako Demokratioa-ekin batera, ordura arteko "egia" baliogabetu, desagertu egin ziren. Bestalde, idazleak ordura arte gizabanakoaren edota talde baten sentipenak eta kezak ordezkatzearen ziurtasuna sentitzen bazuen, 1989az geroztik nor ordezkatzeko duen zalantza jartzen du. 1989az geroztiko errealtate konplexu eta aldakor horretan, idazleak zein ekarpen egin dezakeen ere galdera interesgarria da.

Babeleko dorrearen irudia agertu izan da alemaniar batasunaren ondorengo garaian gauzatu den kultur egoera deskribatzeko. Hiz-kuntza desberdinen eta pentsamolde desberdinen elkar-ulertzea bul-tzatzea izango da artisten lana, Heiner Müller-en baieztapenean su-ma daitekeen bezala:

Das Urtrauma unserer Zivilisation ist die Sprachverwirrung, der Verlust einer gemein-samen Verständigungsbasis. Jetzt ist der Turm [zu Babel] (...) eingestürzt. Man kann den Turm nicht wieder aufbauen, aber man kann ihn in Bewegung übersetzen. Mit dem Tod der Reflexion, als konstituierender Macht, sind alle anderen Sprachen wieder frei-gesetzt" (Müller 1991: 13)³.

Ilustrazioaren arrazoiarekiko fede itsua adibide kaltegarritzat har-tuz, egungo gizartean beharrezkoa den malgutasuna eta ikuspuntu guztiekiko errespetua azpimarratu nahi du Müller-ek. Alemaniar batasunaren ondoren Babeleko dorrea hizkuntza guztiei lekua egi-nez berriz martxan jartzea da kultura-arloko helburu nagusia. Al-daketa politikoaren eta sozialaren ondorioz sortutako egoera berria eta garai bateko harresiaren beste aldean bizi izaten zen "bestearen" ezagupena, literatur gai nagusi bihurtzen da idazle askorentzat.

Wende-Literatur (Aldaketaren inguruko literatura) kontzeptua sor-tzen da Alemaniar batasunaren ondorengo literaturan. Kontzeptu

horren pean Alemaniaren batasunarekin loturiko arazozen inguruan diharduen alemaniar literatura ulertzen da. Hau da, *Wende-Literatur*-aren gai nagusiak ondorengo hauek izan ohi dira: Alemaniaren zatiketaren inguruko gorabeherak eta gogoetak, Ekialdeko eta Mendebaldeko alemaniarren birtopaketarekin eta Alemaniaren barneko arrotz izatearen sentsazioarekin lotutako sintomak eta berauek era kritiko edota umoretsuan gainditzeko aukerak. *Wende-Literatur*, oso forma desberdinen bidez gauzatzen da: eleberriak, komikiak, testu autobiografikoak, dokumentuak, argazki-bildumak, Alemaniar Errepublika Demokratikoa artean ere bazen garaiko egunkarietako zatiak, kronikak, elkarrizketak eta bidaia-liburuak dira, besteak beste, *Wende-Literatur*-ren adibide desberdinak. *Wende-Literatur* idazle horiek beren historiari eta errealitateari buruz era desberdin batean idazteko aukera izan da, aurreko 40 urteetan islatzen ez zituzten moduan azaltzen baitituzte orain Alemaniar Errepublika Demokratikoko azken garaietako egunerokotasuna eta gizartearen kezka nagusienak. Ekialdeko alemaniar nortasuna beste argi batez begiratzen dute.

Badira 90.eko hamarkadan plazaratu ziren eleberri batzuk, merkatuan eta Alemania osoko irakurleen artean izugarrizko sona izan zutenak. Egileek komunean ezaugarri hauek dituzte: gai historiko eta politiko serioak lantzen dituzte, bizitza munduaren egoera konplexu eta nahastuaren parabola gisa irudikatzen dute eta arintasun satirikoa eta parodia tresna nagusitzat dituzte. Erich Loest-en *Nikolaikirche* eta Thomas Brussig-en *Helden wie wir* urte berean izan ziren plazaratuak, 1995ean, eta bi literatur lan horiek Alemaniar Errepublika Demokratikoko azken asteak eta gertakizunak lantzen dituzte fikzioaren bidez. *Nikolaikirche* zinera eramana ere izan zen, Thomas Brussig-en hurrengo lana izan zen *Am kürzeren Ende der Sonnenallee* (1999) bezala. Erich Loest-en lanean, Alemaniar Errepublika Demokratikoko familia baten historia kontatzen da Berlingo harresia desagertu aurreko hilabeteak abiapuntutzat hartuta. Izenburuak dioen bezala, Leipzig-eko *Nikolaikirche* (San Nikolas eliza) da eleberriko elementu nagusia. Bertan astelehenero antolatzen ziren protesta-kontzentrazio eta bilerak Alemaniar Errepublika Demokrati-

koa sakonki eraldatzeko herri-aldarrikapenen oinarri bihurtu ziren, eta eliza hori, Berlingo harresia ireki aurreko hilabeteetako herri-mugimenduaren sinbolo bihurtu da. Asteroko hitzordu horien harrian osatzen da familiako iraganari buruzko informazioa eta momentuko gertakizunen aurrean kide bakoitzak hartzen dituen erabaki desberdinen mosaikoa.

Bi herrialderen, bi kulturen, bi literaturen artean aurkitzearen sentipena, oso arrunta izango da, ideologia alde batera utzirik, Alemaniaren Errepublika Demokratikoa zelakoan jaio ziren eta 90. hamarkadan *Wende-Literatur*-ren baitan kokatzen diren idazleen artean. Sentipen horren aurrean, ordea, jarrera ezberdinak topa ditzakegu. *Wende-Literatur*-arekin uztarturik, ekialdeko alemaniar idazleen artean, Erich Loest-en azterketa psikologiko eta serioagotik hasi eta Thomas Brussig idazle gazteak aurkezten duen literatura freskoago, parodiazko eta umoretsura arte. Aukera zabal horretan bada *Ostalgie* izenarekin literatur kritikak ezagutzera eman duen jarrera bat. *Ostalgie Ost* (Ekialde) eta *Nostalgie* (nostalgia) hitzen elkarketaren bidez lorturiko hitz-jokoa besterik ez da, “Ekialdearekiko —desagertutako Alemaniaren Errepublika Demokratikoko bizitza-eremuko, alegia— nostalgia” adieraziz. Izen honen bidez Volker Braun bezalako idazleen jarrera eta ikuspuntua adierazten da. Beren testuetan galea-sentsazioa, iraganarekiko nostalgia soziopolitiko eta ideologikoa nabaritzen da, hala nola, 1990ean plazaratu zen bere “Nachruf” poeman, bere *Iphigenie in Freiheit* (1992) alegoriazko antzezlan laburrean eta azkenik *Der Wendehals. Eine Unterhaltung* (1995) eta *Die vier Werkzeugmacher* (1996) narrazio kritiko, mikatz eta satirikoetan. Brigitte Burmeister idazlearen *Unter dem Namen Norma* (1994) eleberriak eta Thomas Rosenlöcher-ek idatzitako *Die Wiederentdeckung des Gehens beim Wandern. Harzreise* (1991) testuek ere, badute jarrera “ostalgi-koa” errealitatearekiko. Lan horietan guztietan, alemaniar batasunaren ondorioz gogorrenak agertzen dira, aldi berean batasunak sortutako eraldaketa-prozesu konplexu hartarako beste modu hobea agorik ez zegokeela ulertaraziz.

Baikortasun handiagoko “ekialdearekiko nostalgia” ere aurki dai-

teke *Wende-Literatur*-en barnean. “Ostalgia” Thomas Brussig-en lanetan, adibidez, era batez ere umoretsuagoan nabarmentzen da. Belaunaldi berri bateko idazlea da Brussig, Alemaniar Errepublika Demokratikoko hasiera kontzienteki bizi izan ez zuen belaunaldiko ordezkaria: *Aufbaujahre* (1949-1961) (Eraikuntza urteak) delako garaia iragan ondoren jaioa izanak, Alemaniar Errepublika Demokratikoarekiko eta 1989az geroztik jazotako aldaketen aurrean, ikuspuntu desberdina izateko ahalmena ematen dio. *Helden wie wir* eleberriko pertsonaia nagusiak hala dio Alemaniar Errepublika Demokratikoaren bukaeraren aurrean: “*Aber ich habe nie in aller Unschuld mitgemacht, mit ihrer naiven Begeisterung der Aufbaujahre. Ich kann nicht für mich reklamieren, mich für die Menschen aufgeopfert zu haben! Ich kann auch nicht vom Sozialismus träumen...*” (Brussig 1995: 299)¹. Pertsonaia horren sentipena idazle gazteen artean ere arrunta izan dela kontuan hartuta, desorientazio-sentsazio handiagoa espero izan genezakeen beren testuetan. Desorientazio hori gainditu ahal izateko, badiute Brussig-en belaunaldiko egileek, hala ere, beste abantaila bat: ez dute galera-sentsazio sakonik jasan eta aurreko belaunaldiak barneetik aztertzen duten “ekialdeko nortasuna” urrunagoko ikuspuntu batetik begira dezakete, ez baitute aurreko belaunaldiak bezain lotura psikologiko, moral eta sozial sendorik harekiko.

Alemaniar Errepublika Demokratikoaren bukaera aurreko azken urte eta hilabeteetan gertatutako istorioak plazaratzen ditu Brussig-ek bere testuetan, eta zentzu horretan, iraganarekiko lotura azaltzen du. Garai horietako gertakizunei eta errealtate sozial eta politikoari buruzko aipamenetan ikus daiteke, alabaina, Volker Braun, Erich Loest, Christa Wolf eta aurreko belaunaldiko beste idazleek ez bezala tratamendua askoz ere ludikoagoa dela, iragana zentzu batean ostalgiaz, baina kritika umoretsuz ere islatzen saiatzen dela. Ostalgikoek beren burua, inorenak ez diren lurretan aurkitzen dute: garai bateko Alemaniar Errepublika Demokratikoko sistema politiko, sozial eta kulturaren elementurik ez da mantendu eta batasun-prozesuaren ondorioz gustatzen ez zaien herrialde batera iritsi dira egoerak bultzaturik. Jada desagertu den herrialde baten eta gustuko ez

duten beste herrialdearen arteko espazioan aurkitzen dira. Horren aurrean, Berlingo harresia erori aurretik ere, bi kulturen artean beren buruak aurkitzearen esperientzia da belaunaldi gazteagoaren ezaugarri.

Thomas Brussig-en literatur lanetako pertsonaiek, egileak berak bezala, ez dute beren nortasuna, ez kultura, ez gizabanako, eta ez eta ideologia mailan ere, Alemaniaren Errepublikaren Demokratikoko sistema ofizialari lotuta sentitzen. Bestalde, harresiaz bestaldeko mundua ere urrun eta estereotipoz beterik jasotzen dute Brussig-en pertsonaiek. Bi kultura horiek "besteak" nola jasotzen eta ulertzen duten lantzen da testu horietan eta "bestearen", hau da, arrotzaren eragina norberaren izaeran eta desioetan kulturen funtsezko elementu bezala finkatzen da. Berez, Brussig-en lanek hein batean Ekialdeko Alemaniaren irudiak mito asko erasotzen ditu. Beti ekialdeko Alemaniako bizitza triste eta ilunaren irudia zabaldu zen arren, Brussig-ek eguneroko bizitza-baldintzen gogortasuna ere umorez azaltzen du, egunerokotasun horren alderik hoberenen aldarrikapena ere eginez. *Am kürzeren Ende der Sonnenallee* (1999) plazaratu zenean egindako elkarrizketa batean, Brussig-ek zera zioen: "*Am kürzeren Ende der Sonnenallee habe ich auch geschrieben, damit die Westler neidisch werden, dass sie nicht in der DDR leben durften*" (Lambeck 1999)⁵. Mendebaldetik garai bateko ekialdeko bizitzari begiratuta askok senti zezakeen nagusitasun-jarrerari egindako eraso argi eta hein handi batean umoretsu bezala interpreta daiteke baieztapen hori.

Parodiaren bidez lortzen du Brussig-ek mendebaldetik urrun eta ilun ikusi den errealitatea beste ikuspuntu berri batetik ulertaraztea. *Am kürzeren Ende der Sonnenallee* eta *Helden wie wir* adibidetzat hartzen baditugu, argi dago egileak, eleberrietako narratzaile eta pertsonaia nagusi izateko nerabeak aukeratuz, inozentziaz beteriko ikuspuntuekin, muturreko irudiekin eta bestalde Alemaniaren Errepublikaren Demokratikoko gizartearekiko distantziarekin jokatzeko duela. Bi eleberririk horietan makro-historia, hau da, historia ofiziala eta mikro-historia, hau da, eguneroko historia txikiak lotzea lortzen du egileak. Testuinguru zabala Alemaniaren Errepublikaren Demokratikoa-

ren gainbehera eta Berlingo Harresiaren erortze sinbolikoa izanik ere, nerabeen eguneroko kezka, gorabehera, obsesio, beldur, sentsazio, desio, asmo eta arazoak daude erdigunean. *Am kürzeren Ende der Sonnenallee*-ko historiaren hasiera 80. hamarkadako erdialdean kokatzen da, eta azken orrialdeetan, garai hartan Sobietar Batasuneko buru zen Gorbatschow-ek 1989ko urriaren 7an Ekialdeko Berlinera egin zuen bidaia aipatzen da. Ekialdeko Berlinen inguruan aurretik idatzitako literaturan ezezaguna zen ikuspuntu bat eskaintzen da, garai hartako errealtate politiko, sozial, akademiko eta kulturala Micha protagonista gaztearen begirada fresko eta eguneroko errealtatea arrotzen duen diskurtsoaren bidez jasotzen baitugu. Gorbatschow-en bisita ofiziala ere nerabeen gorabeherekin uztartuta agertzen da aipatua eleberrian, arlo ofizialetik kanpo dimentsio ezberdina azalduz. Belaunaldi berri horrek azaltzen duena zera da: Alemaniaren Errepublika Demokratikoaren hasiera bateko sustraia eta erakundeetatik urrun aurkitzen direla, gorabehera eta hausnarketak politikoekin zerikusirik ez dutela, ideologiek ez dituztela kezkatzen, ez dituzte beren buruak ez Alemaniaren Errepublika Federalearekin, ez eta Alemaniaren Errepublika Demokratikoarekin identifikatzen. Bidegurutze baten edota besteren lurretan daude.

Bi errealtateren artean egotearekin oso lotuta dago, bide batez, eleberriaren izenburu esanguratsua ere, *Sonnenallee*, Berlingo kale bat baita, Berlingo harresiaren eraikuntzaren ondorioz bitan banatua gelditu zena, Ekialdeko zatia kalearen azken muturra egokituz. Eleberriaren hasieran, hain zuzen ere, Micha narratzaile eta pertsonaia nagusiak, bera beti bizi izan den kalea 379 zenbakiaz hastearen absurduari egiten dio aipu. Are gehiago, Micha Q3a izenez eza gutzen diren eraikinetan bizi da, hau da, harresitik hurbilen dauden etxeetan, heriotzaren zerrendaren ondo-ondoan, ihesik gerta ez dadin gau eta egun poliziak zaindutako ingurunean. Kokagune geografikoak beraz, kultura aldetik ere jasaten duten mugako egoera oso argi islatzen du. Micha eta bere inguruko pertsonaiek, egunero ikusten dituzte mendebaldeko alemaniarrek Ekialdeko Berlinera

egiten dituzten sartu-irtenak, beren harridurazko begiradak, beren autobus erosoetatik ekialdeko berlindarrak kalean ikusten dituztenean, bisitariak izkinako dendan egiten dituzten erosketa pobreak, dendako apalategiak ia beti hutsik baitaude...

Kultura artekotasuna bi kulturen artean aurkitzen den muga-gunea bada, non bi kulturek elkarri eragiten dioten, orduan *Am kürzeren Ende der Sonnenallee*-ko historia eta Berlingo benetako Sonnenallee kalea bera, kultura artekotasunaren adibidetzat jo ditzakegu, eleberrian Berlin Ekialdeko pertsonaia hauen eguneroko bizitzan bi sistema ezberdinen, eta horrekin batera bi kultura ezberdinen erreferentzien eragina nabarmentzen baita. Pertsonaia horien asmoen, ideologiaren, etorkizunerako ilusioen eta eguneroko bizitzan jarrera orokorren funtsezko oinarria Harresiaz bestaldeko mundutik jasotzen dena da. Nolabaiteko eraikin utopiko bat aurki daiteke pertsonaia bakoitzaren baitan, beti ere bakoitzaren behar intelektual, sozial eta emozionalaren arabera eta "besteak" irudikatzearekin lotuta. Bakoitzak mendebaldeko irudikatzean elementu zehatz bati ematen dio garrantzia: pertsonaia nagusia den Micharen neska-laguna izango den Miriam-ek mendebaldeko plazer sentsualarekin parekatuko du, bere nebak harresiz bestaldeko mundua auto dotoreez beteriko paradisutzat hartzen duen bitartean. Eleberrian, parodiaz beteriko eszenen bidez, Ekialdeko Alemaniako gabeziak daude beti pertsonaien edota narratzailearen ahotan.

Estereotipoetan oinarritua dago Micha eta bere lagunek mendebaldeko munduaz duten irudia, baina begi-bistakoa da erreferentzia oker edo sinpleegi horiek nahikoa direla "besteak"-ren kontzeptua osatzeko. Egia esan, beren eguneroko bizitzan debekatua edo esku-raezina den guztia mendebaldeko erreferentziatzat hartzen dute. Hala, mendebaldeko jada mendebaldeko Alemanian modan ez zegoen musika-mota batekin, sexu-gaietako erabateko askatasunarekin, politika kutsurik ez duen bizitzarekin, luxuzko autoekin, etab., parekatzen dute. Bestalde, mendebaldeko ikuspuntua ere estereotipoz betea dagoela ulertarazten da eleberrian, kontrapuntu gisa agertzen den eta Mendebaldeko Alemaniatik datorren pertsonaia bakarraren

bidez. Ekialdeko Berlingo familia guztietan bazen “Mendebaldeko senitarteko” bat, maiz Ekialdera bisita egiten zuena, mendebaldean oso ohikoak ziren produktuak ezkutuan hein handi batean luxuzko erregali gisa ekarriz, Alemaniar Errepublika Demokratikoan beren komertzioa debekatuta zegoelako. Eleberri horretan ere, bada Heinz izeneko osaba bat, azpiko arropetan ezkutatuta erregaliak ekartzen dituen. Bada parodia eta umorerik pertsonaia horren inguruan, berak ekialdeko Alemaniaz duen irudia ez baitator beti bat errealtatearekin. Ezkutuan ekartzen dituen produktuak agerian ekartzea ez da legez kanpoko, baina Heinz-ek, Ekialdeko Berlin, arriskuarekin, abenturarekin eta arauak haustearekin lotzen du eta eleberriko beste kasuetan gertatzen den bezala, jarrera hori muturreraino eramaten du. Bestalde, mendebaldeko ikuspuntu jakin baten parodia egiten da bere iritziak azaltzerakoan eta ondoren iritzi horiek eleberriko gertakizunekin kontrajartzean. Heinz-en mendebaldeko jarrera itxi hori, bere ekonomia-, gizarte- eta osasun-sistemagan duen fede sutsuan agertzen da, bere senitartekoenganako bisitetan, Alemaniar Errepublika Demokratikoari, bertako industrietan eta erai-kinetako materialek sorrarazten dieten minbiziari buruzko informazioa ezkutatzea leporatuz. Sobietar Batasunaz duen estereotipoz eta ezjakintasun soziopolitiko betetako irudia ere aipagarria da, Sobietar Batasuna bortxakeria eta armen lurralde bezala irudikatzen baitu, non errusiar guztiak otsoz inguratutako txaboletan bizi diren. Azkenik, Ekialdeko Berlingo biztanleei erruki die eta bizileku gisa erabat baztertzen du. Eleberriaren bukaeran, berriz, egileak paradoxazko amaiera ematen dio pertsonaia horri: minbiziz hil ondoren, bere errauntsak Ekialdeko Berlinen geratzen dira.

Sakontasun psikologiko eta moraletik urrun gelditzen den literatura mota horretan, argi uler daiteke Alemaniar batasunaren aurretiko urteetan “bestearen” irudiak norberaren gabeziak nola osatzen zituen, bai norbere nortasuna indartzeko, inguruko errealtatea alde batera utziz nortasun eta inguru berri bat desiratzeko, etab. Brussig-en testuetan batez ere, iragan hurbilari begiratzen zaio, egungo egoerak norberaren eta bestearen topaketa horretan desio eta esperantza,

okerreko irudi eta ideia sinpleegiak, 1989az geroztiko errealitatean zertan geratu diren eta zein ondorio ekarri dituzten pentsa araziz.

90.eko hamarkadan ere, badira beren historia batasunaz geroztiko Alemanian kokatzen duten narraziozko lan franko. Arlo horretan, alemaniar batasunari erabat loturik aurkitzen den esperientzia bat bereizketarena da (*Trennung*). Esperientzia hori, 1989az ondorengo testuetan aztergai izan da, gizartearen sintoma bezala ulertu eta narrazio ugariaren sustantzia eta abiapuntu bihurtu da. Jürgen Becker-ek *Der fehlende Rest* (1997) eta *Aus der Geschichte der Trennungen* (1999) lanetan Berlingo harresia desagertu ondoren alemaniarren arteko mugak hazi egin direla ulertarazten du. Lan horietan batez ere mendebaldarrei garai bateko Alemaniaren Errepublikako Demokratikoko biztanleen esperientziekiko, iraganeko oroitzapenekiko eta ikuspuntu ezberdinarekiko interes-eza leporatzen zaie eta norberaren eta bestearen arteko distantzia hazi izana testuinguru horretan azaltzen da.

Ingo Schulze-ren *Simple Stories* (1998), aldiz, bi Alemanien elkarhurbiltzearen, batasunaren, liburutzat hartua izan da. Ingo Schulze-ren narrazio-sorta horretan Ekialdeko eta Mendebaldeko Alemaniako pertsonaia ezberdinen 29 istorioetan oinarrituta puzzle antzeko sare bat osatzen da. Izenburuak adierazten duenez, Ernest Hemingway eta Sherwood Anderson bezalako idazle iparramerikarrek maisutasunez landutako short story narrazio-formaren tradizioan aurkitzen da Schulze-ren lan hau. Hain zuzen ere, ezaugarri hori, kritikaren ustez, ekialde eta mendebaldearen topaketa-adibide izan daiteke (Michalzik, 2000: 30). Bestalde, ekialdeko eta mendebaldeko alemaniarren hurbiltze-prozesu horretan, Schulze ekialdeko alemaniarra izanik, narrazio labur horietako ahotsen gehiengoak ekialdearena da, nahiz eta mendebaldearen presentzia erreferentzien bidez etengabekoa izan *Simple Stories*-en. Batasunaren ondorengo Alemaniaren egunerokotasunean murgiltzen gaituzte itxuraz transzendentzia gutxiko istorio labur eta irakurterraz horiek, itxuraz gatazkak alde batera geratuta, baina *short-story* guztietan bezala, istorio bakoitzaren atzean, bada momentu erabakigarri bat: mendebaldeko eta ekialdeko unibertsoak alderatuak izaten dira momentu horretan.

Horren adibide izan daiteke ekialdeko alemaniar pertsonaiek 1990-ean artean beren egoeraren ziurtasun osorik gabe, Italiara egiten duten lehen bidaiako sentsaziorik sinpleenak errepikatuko ez diren esperientzia bezala agertzea; bestalde, urte askotan zehar elkar ikusi ez duten aita-semeen azaleko elkarrizketaren azpian ere, bukatu gabeko gatazka nabarmentzen da: familia atzean utziz mendebaldera ihes egin duen aitak, ezezaguna duen semeari ematen saiatzen den azalpen melodramatikoa eta semearen jarrera inuzentea, geroago hostasun puntu batez azalpena gezurra dela jakingo duena. Orokorrean, eta istorioak eguneroko zailtasunez beteak dauden arren, *Simple Storys* osatzen dituzten pertsonaiek, ez dute iraganera malenkoniak begiratzen, historiaren ondorioz atzera bueltarik gabe nobabait “bestearen” arauekin jokatu beharra onartzen baitute, nortasunaren inguruko hausnarketetarako denbora eta aukerarik gabe.

Ekialdearen eta mendebaldearen arteko topaketan norberaren eta bestearen birdefinizioa hausnargai eta aztergai bihurtu bada, beste idazle-talde batzuen arteko kultura ezberdinen topaketa ere gertatzen da 90.eko hamarkadako alemaniar literaturan. *Gastarbeiterliteratur* (Langile etorkinen literatura), *Migrantenliteratur* (Migratzaileen literatura), *Migrationsliteratur* (Migrazio-literatura), *multikulturelle Literatur* (Literatura kultura-anitza), *Literatur der Fremde* (Arroztasunaren literatura) edota *Literatur in der Fremde* (Inguru arrotzean idatzitako literatura) izenen inguruan, hamarkada batzuk lehenagotik sortzen hasia zen literatur mota berezi bat deskribatzen da. Jatorri alemaniarrekoak ez diren idazleen lanetan agertzen da *Alterität* delakoa, “bestea”, ikerketa-gai, literatur mota horren abiapuntua normalki bestea elementu arrotz gisa sumatzea baita. Etorkinen eta beren ondorengoen esperientzia sozial, kultural eta existentzialak ditu oinarritzat *Gastarbeiterliteratur*, *Migrantenliteratur*, *Migrationsliteratur*, *multikulturelle Literatur*, *Literatur der Fremde* edota *Literatur in der Fremde* izenekin ezagutzen den literatura honek eta norberaren izaera jatorriz berea ez den gizarte batean nola eraikitzen den aztertzen dute egile horiek. 50. hamarkadatik gaur egun arte nortasuna, kultura eta kultura artekotasuna ulertzeko era aldatuz joan da. Kul-

tura-arteko begirada horrek, terminologia berria eskatzen du literaturan, baina ez da oraindik zehaztasun osorik lortu.

Etorkinak edo etorkinen ondorengoak diren idazle horiek, ez dute beren nortasuna jaioterri edota familiako jatorriaren nortasunarekin lotzen. Beren kasuan nortasunaren definizioa konplexuagoa gertatzen da, beren esperientziarengatik kultur eraldaketa prozesuan aurkitzen direla baitirudi: egile horiek arrotasunarekin edota “bestearekin” elkartrukean aurkitzen dira egunero eta eraldaketa-prozesu bat sorrarazten da. Kasu horretan eta esperientzia horren ondorioz, nortasun berri bat sortzen da, hau da, bi kulturen arteko mugan aurkitzen diren alemaniarrek idatzitako literatura horrek, estetika ere berezia du eta kultura desberdinak bertan jasotzen dira. Egile horiek gizarte kultura anitz bateko bidea irekitzen dute literaturan. Homi K. Bhabhak *The Location of Culture* (2000) lanean, kulturen artean egoteak pertsonengan eta literaturan suposatzen duen prozesua aztertzen du. Hibridotasuna azpimarratzen du literatura horren ezaugarri nagusi bezala, ikuspuntu estetiko eta forma ugari, berrikuntza eta kulturen arteko harremanen konplexutasunarekin batera. Kulturen zeharkako prozesua du Bhabhak ahotan, non hizkuntzen eta arrotasunaren mugak gaindituta, kulturen arteko trukea azpimarratu eta norberarenaren eta arrotzaren elkartze-harremana, diskurtso berberean gauzatzen baita.

Kultur nortasuna eta norbere burua bi kulturen arteko esparru anbiguoan aurkitzea, esperientzia bezala 1989. urtea baino lehenagotik aurki zitekeen literaturan, alde batetik, eta bestetik, esan beharra legoke, ez direla *Gastarbeiter*-en (langile etorkinen) bigarren eta hirugarren belaunaldietako idazleak bakarrik literatur mota hori lantzen dutenak. Alemaniar-errumaniarren artean ere sortu zen idazle talde bat, nagusiki 1950. eta 1960. urteen artean jaio eta Alemaniara 80. hamarkadaren erdialdera etorriena eta literatur munduan sona lortu zuten. Adibidetzat honako hauek har daitezke: Rolf Bossert, Helmut Frauendorfer, Johann Lippert, Herta Müller, Horst Samson, Dieter Schlesak, William Totok, etab. Idazle horiek badituzte komunean iraganeko esperientzia jakin batzuk: Errumanian diktadura

utzi zuten, sozialki eta politikoki diskriminatua zegoen kolektibo bateko kide ziren, beren kultura eta hizkuntza isolatuta zeuden, Alemaniara bidaia egin zuten...

Gastarbeiterliteratur, Migrantenliteratur, Migrationsliteratur, multikulturelle Literatur, Literatur der Fremde edota *Literatur in der Fremde* izenekin ezagutzen dugun literaturaz mintzatzen garenean, hala ere, literatur testuen gehiengoa jatorri turkiarreko eta *Gastarbeiter* familiarako idazleen eskutik dator. Sozialki ere etorkin turkiarren taldea bada handiena, idazleen artean ere badu fenomeno horrek dago-kion isla. Aras Ören izan daiteke izen eta ospe handiena duen idazle turkiarra gaur egun. 1939an Istanbulen jaio eta 1969tik Mendebaldeko Berlinen bizi delarik, gehienetan turkiarrez idatzi ohi ditu bere lanak eta ondoren, kasu gehienetan, alemanera itzultzen dira. Azpimarragarria da, beraz, kritikak Ören-en lanak alemaniar literaturaren barnean aztertzea. 50.eko hamarkadan antzerki-munduan lehen urratsak eman bazituen ere, behin Alemaniara iritsita, 70.eko hamarkadan hasi zen sendoago idazten —80.eko hamarkadan itxi zuen trilogia batekin: *Was will Niyazi in der Naunynstra_e?* (1973), *Der kurze Traum aus Kagithane* (1974) eta *Die Fremde ist auch ein Haus* (1980)—. Bertan, Berlingo turkiar etorkinen komunitatearen historia eta egunen batean gauzatzekoa izango den turkiarren eta alemaniarren arteko elkarbizitza hartuko ditu aztergaitzat. Utopiazko eta idealismoz betetako irudiez gain, Ören-ek, bere herriari eta alemaniar historiari buruzko hausnarketak proposatzen ditu. 80. hamarkadako narrazio, eleberri eta poema-bildumetan, aurreko urteetako baikortasuna alde batera utzi zuen eta ezaugarri berri nagusiak, etorkinen banakako historietan aurki daitezkeen ulertezintasun, isolamendu, esperantzen apurtze eta etorkin askok Berlinen Turkiako bere jaioterrian bezalaxe bizitzeko duten joerari egindako kritika gogorrak izango dira. 90. hamarkadan plazaratu dituen lanetan, ohikoa da hasierako trilogian sortu zituen pertsonaiak berriz ere agertzea. Ören-en errealitatearekiko eta pertsonaiekiko tratamendua, ezberdina da alabaina: *Berlin Savignyplatz* (1995) eta *Unerwarteter Besuch* (1997) eleberrietan ez da aurreko testuetan bezala pertsonaien ibil-

bidea jarraitzen, eta orain, zatiz osatutako etorkin askoren egunero-ko bizitzako momentu oso laburrak eskaintzen dira. Badirudi etorkinen esperientzian hari logikorik eta betetzeraz iristen den proiekturik aurkitzea, ezinezko zaiola egileari. Ondoren plazaratu dituen lanetatik, bitan nabari da bereziki Ören-ek nortasunaren inguruko hausnarketaren harian iraganari eta memoriari alde batetik eta bidaiei eta fantasiari bestetik ematen dien garrantzia. *Granatapfelblüte* (1998) eleberrian etorkinen esperientzian nortasuna mantendu ahal izateko oso garrantzizkotzat jotzen den sorterrirako bidaia da aztergai. Eleberriaren izenburua sinbolikoa da jada, *Granatapfel* (granada fruitua) osotasunaren sinbolo baita eta pertsonaia nagusi den idazleak Sidera eginiko bidaian, idazle turkiar gisa indarberritzea du helburutzat. Hala ere, Ören-ek beste ikuspuntu batetik lantzen du sorterrirako bidaia, ze bidaian zehar, Turkia kultura askoren sorterriz bezala agertzen baita, horrela eleberriko idazle turkiar honen eta orokorrean turkiarren eta kultura guztien kultur nortasunaren heterogeneotasuna azpimarratuz. Iragana eta orainaren azterketa *Sehnsucht nach Hollywood* (1999) lanean ere nortasunaren oinarri moduan agertzen dira, ez gizabanakoaren bizitzako iragana eta oraina bakarrik, baita berau bizi den testuinguruarenak ere. *Sehnsucht nach Hollywood*-en Ören-ek Berlingo historiaren iragan ez hain zaharreko alderdi ezezagun asko agerrarazi nahi izan ditu, batez ere 60.eko hamarkadan Berlingo kulturaren eta artearen testuinguruan gertatutakoak, adineko pertsonaia baten oroitzapenen bidez. Badirudi, beraz, 90.eko hamarkadan Ören-ek aukeratu zuen norabideak ordu arte etorkinen literaturan ohikoa zen kultur nortasunaren kontzeptua aldatzearen aldeko ekarpena egin zuela.

Feridun Zaimoglu, turkiar jatorridun idazleen artean figura polemiko bihurtu da. Anatolian jaio eta 1985az geroztik Kielen bizi den idazle hau, 90.eko hamarkadan hasi zen idazle lanetan eta kultura artekotasunaren aurrean duen jarrera kritiko eta eszeptikoa ez du ezkutatu ez bere lanetan, ez eta prentsa aurrean ere. Bere lanetan kultura artekotasunaren adibide eztabaidagarrienak lantzen ditu, baina bere begirada, kultura ezberdinen arteko elkarbizitzara eta

elkartrukera baino gehiago kultura-artekotasun hori era harmonia-
tsu batean betetzen ez duten kasuetara zuzentzen du. Polemikoan
izan den bere *Kanak Sprak*. 24 *Mi_töne vom Rande der Gesellschaft*
(1995) testuan agertzen diren pertsonaiak, adibidez, sozialki eta kul-
tur ikuspegitik begiratuta, Alemaniako gizarte “estandarren” baz-
terrean aurkitzen dira: Zaimoglu-k eskainitako historiak ez dute “in-
tegrazioaren” zantzurik, ez eta bi kultur ikuspegi desberdinen topa-
gune-arrastorik, alderantziz baizik. *Kanak Sprak*-en egileak, oroko-
rrean, delako *Migrantenliteratur*-ean ahotsik ez duten pertsonaien
ikuspuntuari garrantzia eman nahi izan dio kronistaren funtzio soi-
la bete nahian eta gizarteari kritika egin nahian. Helburu horrekin
jatorri turkiarreko 24 gizonezkori galdera berbera egin die, “*Wie lebt
es sich als Kanake in Deutschland?*” (Nolakoa da Kanake baten bizitza
Alemanian?), eta elkarriketatu hauen erantzunek osatzen dute *Ka-
nak Sprak*-en eskaintzen den egungo Alemaniako *Kanake eta Ale-
manne*-n⁶ arteko harremana eta elkar ulertzeko modua. Zaimoglu-
ren lana oso eztabaidatua izan zen, batez ere plazaratu zenean, elka-
rrizketatutako pertsonaiak, pertsona errealak bestalde, gizartearen
bazter-bazterrean aurkitzen direlako: transexual batek, proxeneta
batek, gigolo batek eta lau langabetuk, besteak beste, beren espe-
rientzia, pentsamoldea eta alemaniar gizarteari buruz dituzten
irudi-irritziak azaltzen dituzte. Ghettoan kulturen arteko gatazka no-
la ulertzen den ikus dezakegu 24 *Kanake* hauen erantzunetan, baita
beren nortasuna nola eraiki den ere. Beren erantzunen arabera, ino-
renak ez diren lurretan aurkitzen dira kultur ikuspegitik begiratuta
eta definizio-gabezia horrek hibridotasuna eta talde bezala hartuak
nahi ez izatea ere erakusten du: Alemaniako gizarte estandarrek
“bestearen” adibidetzat hartzen ditu, estereotipoen bidez beren nor-
tasuna exotikotasunera mugatzen dute, eta bestalde, etorkinen au-
rreko belaunaldiarentzat baliozko izan diren erreferentziekin ezin
dute *Kanake* hauek beren nortasuna eraiki. Bestalde, berek ere “ale-
maniarrek” estereotipoaren bidez izendatzen dituztela ere argi gel-
ditzen da. Beraz, Zaimoglu-ren pertsonaiek amankomunean dute
aldarrikapen gisa gizarte *alemannisch* horrek ebazten dizkien klitxe-

ekin *Kanake*-aren moxorroa egitea eta sistemaz kanpo geratuz, ghettoaren garrantzia defendatzea. Zaimoglu-k kultur ghettoaren garrantzia azpimarratzen du, bertan argi ikus baitaiteke Alemaniak berrogei urtez migrazioaren esperientzia izan ondoren, prozesu horretako partaideek estereotipoak gainditu ez badituzte eta *Kanak Sprak*-eko elkarrizketatuak errealtatean aurki badaitezke, kultura artekotasunaren inguruan sistema politiko eta sozialak akats ugari egiten dituela.

Ekialdeko eta mendebaldeko alemaniarrek beren artean eta etorkin edo beren ondorengoek alemaniar “zaharragoekin” sortzen dituzten harremanak lantzen dituzten 90. hamarkadako narraziozko testuek, antzekotasun ugari dituzte. Pertsonaiak bi unibertsoen artean aurkitzen dira, bietatik urrun sentituz. Iraganaren eta orainaren garrantziari buruz hausnarketa egin beharrean daude aurrera jarraitzeko. “Bestearen”, edota “arrotzaren” ezagutzaren bidez norberaren nortasunaren definizioa aurkitu nahi dute, nahiz eta batzuetan ez lortu. Gehiengoaren sistema, ikuspuntu desberdinetatik aztertzen da, ekialdeko begiradaz *Wende-Literatur* delako literaturan eta etorkinen ikuspuntutik *Migrationsliteratur* delakoan. Hausnarketan ondorio nagusietako bat, nortasunaren kontzeptua ere kolokan jartzea izaten da. Beraz, bi literatur joera hauek kultur nortasunen koherentzia, osotasun eta egonkortasuna aztertzen dituzte testuinguru desberdinetan, Heiner Müller-ek aipatzen zuen bezala, Babelko Dorrearen irudian pentsa araziz. 90.eko hamarkada alemaniar narrazio-lanetan, alemaniar gizartea XX. mendeko Babelko Dorre gisula ulertzen dela esan daiteke.

BIBLIOGRAFIA

- Bhabha, Homi K. *The Location of Culture*. London/New York: Routledge 2000.
- Brussig, Thomas. *Am kürzeren Ende der Sonnenalle*. Berlin Verlag Volk und Welt 1999.
- Brussig, Thomas. *Helden wie wir*. Berlin: Verlag Volk und Welt 1995.
- Chiellino, Carmine (Hg.). *Interkulturelle Literatur in Deutschland: Ein Handbuch*. Stuttgart: Metzler 2000.
- Emmerich, Wolfgang. "Wendezeit (1989-95)". *Kleine Literaturgeschichte der DDR*. Berlin: Aufbau Taschenbuch Verlag 2000, 435-525.
- Lambeck, Silke. "Herr Brussig, was halten Sie von Nostalgie?". *Berliner Zeitung* (6-7 November 1999), <http://www.thomasbrussig.de/>, 2004-4-27
- Magenau, Jörg. "Kindheitsmuster: Thomas Brussig oder Die ewige Jugend der DDR". *Aufgerissen: Zur Literatur der 90er*. Hg. Thomas Kraft. München, Zürich: Piper, 2000, 39-52.
- Michalzik, Peter. "Wie komme ich zur Nordsee?: Ingo Schulze erzählt einfache Geschichten, die ziemlich vertrackt sind und die alle lieben." *Aufgerissen: Zur Literatur der 90er*. Hg. Thomas Kraft. München, Zürich: Piper, 2000, 25-38.
- Müller, Heiner eta Frank Raddatz. "Die Reflexion ist am Ende, die Zukunft gehört der Kunst". *Lettre International* 13 (1991).
http://www.lettre.de/archiv/13_iv.html, 2004-4-27
- Schnell, Ralf. "1989 und die Folgen". *Geschichte der deutschsprachigen Literatur seit 1945*. Stuttgart: Metzler 2003, 515-605.
- Schulze, Ingo. *Simple Storys: ein Roman aus der ostdeutschen Provinz*. Berlin: Berlin Verlag 1998.
- Tuschick, Jamal. "Bruder, du bist meine Stimme: Feridun Zaimoglu, Kombattant im Kulturkampf". *Aufgerissen: Zur Literatur der 90er*. Hg. Thomas Kraft. München, Zürich: Piper, 2000, 105-116.
- Wendland, Johannes. "Im Gespräch: Thomas Brussig. Halb so wild und doppelt so schön". <http://www.sonntagsblatt.de/1996/12/nr12-11.htm> 2004-4-27
- Zaimoglu, Feridun. *Kanak Sprak: 24 Mi_töne vom Rande der Gesellschaft*. Hamburg: Rotbuch Verlag 1995.

OHARRAK

1. Artikulu hau Euskal Herriko Unibertsitatean martxan dagoen "Kultur truke eta kultura arteketasuna literatura eta itzulpengintzan (1/upv 00103.130-H-15406/2003)" ikerketa proiektuari lotua dago.
2. Ekialdeko Alemaniako literatur sistema Alemaniako Errepublika Federaletako sistemara egokitzeko hiru motatako aldaketak ziren beharrezko: lehenik, eta erakunde publikoen erreforma prozesu osoaren barnean, kulturaren kudeaketa *Land*-en (lurralde federalen) eta *Kommune*-n (udalen) eskuetan gelditu zen, Alemaniako Errepublika Demokratikoko funtzionamendu hierarkikoa desagertu ondoren; bigarrenik, pribatizazio-prozesua jarri zen martxan; eta azkenik, Alemaniako Federakuntzak *Länder* eta *Kommune*-ekin batera ekialdeko lurralde federaletan pribatizazio-prozesuaren ondorioz oinarritzko kultur ekintzak kaltetuak izan ez zitezen, behin-behineko erantzukizun ekonomikoa bere gain ere hartu zuen. Azken neurri horri esker, Alemaniako Batasunaren ondorengo bi urteetan lurralde federal berrietako museo, antzerki, opera eta orkestra guztiak mantentzea lortu zen, baina liburutegiak, kultur etxeak eta zineak gutxi gorabehera erdiraino jeitsi ziren. 1994tik aurrera federazioaren diru-laguntzak bukatu egin ziren eta horrek erakunde eta hiri handietako kontzentrazioa ekarri du ondoren, nahiz eta kontuan edukitzeko den, gaur egun ere Alemaniako lurralde federal berrietan dagoela proportzioan munduko antzerki gehien. (Emmerich 2000: 437)
3. "Gure zibilizazioaren jatorrizko trauma, hizkuntzen kaosa da, elkar ulertzeko oinarria galdu izana. Orain [Babeleko] dorrea erori egin da. Ezinezkoa da dorrea berreraikitzea, baina mugimenduan eralda daiteke. Botere nagusi bezala hausnarketa desagertuz gero, beste hizkuntza guztiak libre gelditzen dira."
4. "Baina nik ez dut inoiz inozentziaz eta eraikitze-urteetako ilusio ingenuo hartaz beterik [Alemaniako Errepublika Demokratikoaren proiektuan] parte hartu. Nik ezin dut gizon-emakumeen alde sakrifizioak egin izana erreklamatu! Sozialismoarekin ere ezin dut ametsik egin..."
5. "*Am kürzeren Ende der Sonnenallee* idatzi dut baita ere, mendealdekoek Alemaniako Errepublika Demokratikoan bizitzea debekatua izan zutelako inbidia senti dezaten".
6. *Kanake*, hawaitar hizkuntzan "gizakia" da, baina Alemanian turkiar jatorrizko langile etorkinen seme-alabei eta batez ere bilobei, irain edota etiketa etniko eta sozial gisa esaten zaie. Ikuspuntu soziologikotik begiratuta, irain honek prozesu interesgarria jasan du, gaur egun hitz hau etorkinek berek harrotasunez erabiltzen baitute beren buruak aurkezteko. *Alemanne* berriz, lan honetan agertzen den bezala, etorkin turkoen artean alemaniarrek mespretxuz izendatzeko erabiltzen da.

Mertxeri

"Aber ich lebe nur von den Zwischenräumen..."

Peter Handke, idazle austriarraren lana, narrazioa, antzerkia, poesia, dietarioa, erreportajea eta zinemaren bideetan hedatzen da, sormen eta auto-gogoetaren arteko konbinaketa zintzo batean¹.

Hala ere, eta eleberrigileztaz ezagunago den arren, berak ez du eleberririk idazten, behintzat, XIX. mendean sortu zen eleberri ereduaz ari bagara eta eleberria espazio eta denboraren narrazio jarraiki eta homogeneotzat badaukagu, eta funtsean, ekintzaren eta zentzuaren batasuna duen eleberritzat ari bagara.

1.- Intriga gabeko narrazioa.

Aspektu hau askotan komentatu du Peter Handkek berak: "Idazten nuenari ezin nion inoiz deitu, kontzientzia garbiarekin, eleberria... Nik beti ikusi izan dut nire lana narrazio luze bat bezala"² (A,97)³. Eta, egia, Handkek idazten dituenak, narrazioak dira, eta zehazki, intriga gabeko narrazioak.

Eleberri konbentzionaletara ohituetakoei ezinezko, eta beharbada, irakurgaitz iruditzen zaie intriga gabeko erregistro narratiboa, intriga eta narrazioa beti elkarrekin agertu behar direla suposatzen baitute. Eta noski, irakurle (eta idazle) bakoitzak badu bere eskubidea suposizio guztiak egiteko eta Josep Plak deitzen zituen "jende helduarentzako ipuinak" dastatzeko. Baina hau ez da Handkeren kasua.

Eta horrek ez du esan nahi Stendhalek edo Flaubertek egindako lana, edo gaur egiten diren eleberriak, Handkeri gustatzen ez zaiz-

kionik, ez bada bere idazkerak, kontzienteki, beste egitura-molde bat hautatu duela bere bilakaerarako.

Hain zuzen ere, gure gizarteetan, intrigadun narrazio txiki moduan, telebistek bateratua banatzen duten ohiko kronikatik arras aldentzen den egitura-moldea: “Zer daki, egiazki, errealitateari buruz irudi bat besterik jasotzen ez duenak, edo, telebistetan agertzen diren berrietan bezala, irudi baten laburdura, edo, sare telematikoen kasuetan, laburdura baten laburdura jasotzen duenak?” (WR,33).

Beste egitura molde bat, Historiaren ekarpenekin alderatuz gero, alden du egiten baita Historiatik lerratutako egitura dramatikoetik ere, zentzu bateratu batean —sarritan kolektiboa eta kolektibizatzailea— gaur egun *Deus-in-terra* den Estatua nola edo hala legitimatzeko edozein eskarmentu subjektibo suntsitu nahi duen egitura dramatikoetik: “Eta, orduan, indignazioa agertzen da, edo, askoz hobeto, amorrua, eta haien bizitzetarako Historia behar dutenek, hustasun existentzial horiek, madarikatzen ditu, eta, gainera, bere historia propioa ukatzen du ...” (KG, 79).

Intriga gabeko narrazioa egiteko asmoa garbi gelditu da *Die Geschichte des Bleistifts* lanean Handkek idatzi zuen aipamen honetan: “Haikuek⁴ egindako epopeia bat, haikuak bata bestearekin kateatuz; argudio barik, intriga barik, dramatismo barik, eta, dena dela, narrazioa; ez zait bururatzen ezer bikainagorik” (GB, 51).

Handkek, bere proiektu narrazioa, ez-eleberrikoa, aurrera eramateko erabiltzen dituen prozedurak hiru dira funtsean.

Lehenbizikoa, eredu narrazio konbentzionaletan dramatismoa hustea, “planteamendua-korapilota-amaiera” eskema klasikoa suspendituz. Horrela, nahiz eta batzuetan “formazio-eleberri” [*Bildungsroman/Entwicklungsroman*] ereduak erabili, *Langsame Heimkehr* hasitako tetralogian egin zuen bezala, Handkek distantzia egoki bat hartu ohi du ikuspuntu narrazio ezberdinetan giltzatua, niaren apologia bat ez egiteko, eta, “babestutako kontzientzia burgesaren egozentrismo oroipentsua eta gogorapen-plazera” (GW, 94) aparte uzteko.

Beste alde batetik, hustuketa horrek ez du helburutzat, eredu konbentzional horiek desagitea, Musilek edo Joycek egin zutenez, Handkek ez duelako nahi ez eleberri ez anti-eleberririk —“super-eleberri itzel horiek!” (A, 35)— idaztea.

Bigarren prozedura, Budismo-Zen⁵ praktikan erabilitako *Koan* has-tapenaren aplikazio iaioa da. Hastapen horren mamia, aurrez plante-atutako aspektu oso inportantearekiko arreta haustea da, pentsatu ga-beko irtenbide harrigarri bat hartzerakoan.

Askotan erabili ohi du desbideratze-hastapena, nabarmenki *Langsamer Heimkehr* edo *Der Chinese des Schmerzes* lanetan, baina baita beste hainbat idazkietan ere, zeinetan intrigara konturatu barik ez ailegatzeko helburua azaltzen duen. Handkek berak komentatu zuen, Hervé Guibertek egindako elkarrizketa batean: “*Cuando creo en mi relato ese espacio que puede acoger la desviación, siento que estoy en el buen camino... Es un descanso, porque el peso del discurso se relaja*”⁶.

Gainera, prozedura horrek eten egiten du hurbilketa narratiboei darien diskurtso tradizional-konbentzionalaren kutsu zurrun eta transzendental: “Desbideratzearen artea, artearen benetako desbideraketa gisa” (WR, 135).

Azkeneko prozedura, konkretuaren narrazioa-mamitzat hartzea da. Konkretua intriga barik agertzen da, baina nahikoa da idazketa-ren bultzada pizteko. Hona hemen, berririo, Handkeren hitzak: “Deskribapen bat egiten denean, mirespenaren lekukotasuna ematen da. Ondoko objektuen aurrean, ikusten eta entzuten denaren aurrean, mirespena eta berotasuna ateratzen dira... Zuhaitza, mutikoa, agurea, jendea, autobus batean bidaiatzea, dena... Niri konkretua interesatzen zait, besterik ez, eta konkretuarekin idazteko gogoia hasten da”⁷.

Narrazioa, orduan, konkretutik oso gertu den diskurtso-molde bihurtzen da, halako molde, hain zuzen ere, non zentzuen aurreko mugetara itzultzea ia ezinezkoa den.

Zalantza barik, hirugarren prozedura hau, oso hurbil dago errealitatearen aurreko irudiak suspenditzeko ahalmenetik —*epoje* feno-

menologikoa bailitzan—. Horrela lortzen da, Handkeren iritziz beharrezkoa den arreta pausatua: “Gizakiaren egoera inportanteena atseden da, baretasunean ohi daitekeen arreta, —onartzeko eta jasotzeko— gaitasuna, epopeia sumatzean ikustea...” (A, 42).

Prozedura hiru hauen bidez konposa dezake Handkek intriga gabeko egitura narratiboa. Ikusteko gelditzen dena, orain, zera da, horretarako idazlearentzat zein idazkera-mota izan daitekeen egokiena.

2. - Idazkera berria.

Handkeren idazketak baditu ezaugarri oso bereziak. Alde batetik, genero-artekotasuna da, non, idazketa narratiboa oinarritzat hartuz, zabaldu egiten den “poemaranzko joerarekin edo poemaren eta gai dramatikoaren aukerarekin berarekin” (A, 98). Alderdi hori ikusteko, *Langsame Heimkehr*ek hasitako tetralogia, berriro, oso emankorra da: lehenbiziko zatia hirugarren pertsonak egindako narrazioa da, espazio eta denborari buruzko burutazioak⁸ bigarren pertsonak asmatuak izanik; bigarren zatia —*Die Lehre der Sainte-Victoire*— lehenbiziko pertsonak egindako bidai kontakizun batez aurkezten da, arteari dagozkion meditazioak sakabanatuz; *Kindergeschichten* —hirugarren zatia— narrazioa hartzen du, berriz, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan barneratzeko. Azkeneko zatia —*Über die Dörfer*— poema dramatikoa da.

Bigarrenez, Handkeren idazketan irudiak dira nagusi, eta ez darabiltza kontzeptuei lotzen zaizkien hitzak “kontzeptuek ematen duten bakuntzea eta osotasun-asmoa ekiditeko” (AW, 74).

Irudiek aurrera ekartzen dituzte errealitateri buruzko ikuspuntu ezberdinak eta errealitate ezberdinak. Kontzeptuek, aitzitik, abstrakzio baten fruitu direnez, errealitateari buruzko ikuspuntu ezberdinak batzen dituzte eta, orduan, “narratiba idazteko lehenbiziko oztopo bihurtzen dira” (AW, 74).

Horrexegatik, esaten du Handkek, “idazterakoan, ikusten baldin

badut kontzeptu baten hasiera ateratzen ari zaidala, buelta bat ematen dut, ahal bada, beste norabide bat hartu, inguru ezberdin baterantz joateko" (AW, 74). "Egizu abstrakzioa, hori bada aukera bakarra eta horren ondorioa ederra bada" (GB, 81) esaten du Handkek berak beste leku batean.

Handkeren idazketaren bigarren ezaugarri honen ondorio zuzena, irakurleei irudien bidez hausnarraraztea da eta ez kontzeptuen bidez, horrela, eguneroko bizitzaren agerpideak jasotzeko: "Inolako irakurketak ez du inolako zentzurik eguneroko esperientzia barea irakasten ez baldin badu" (GB, 215) .

Hirugarrenez, Handkeren idazketa, *mimesirik* planteatzen ez duen idazketa da. Orduan, idazketa horrek ez dauka helburutzat errealitatea imitatzea, errealitate faktikoaren aurrean beste hizkuntz errealitate bat ipintzea baizik. Izan ere, errealitateari buruzko begiradak aldatu nahi dituen idazketa artistikoa baita⁹.

Puntu honetan, Handkek Cézanneren teoriak¹⁰ barneratu ditu, *Die Lehre der Sainte- Victoire* lanean, protagonista baten bidez, aipatzen denez: "Cézannek esaten zuen berak ez zuela margotzen berezko eran, baizik eta Naturaren pareko pintura harmonikoa eginez". (LS, 64).

Gainera, idazketa-era honek asmo bi, eta itxuraz elkarren arteko aurkari direnak, dauzka. Alde batetik, idaztera bultzatzen du irakurlea —"Niretako hau da bikainena: beste bati entzutea nire idazketak mugiturik hasi zela idazten" (A, 73)— baina, beste alde batetik, Handkeren idazketak irakurtzea (eta beste aldeko praktika diskurtsiboa) lagatzera eramaten du irakurlea, bizitzako munduan¹¹ sartzeko: "Liburu hoberenak, atsedean bat izateko, begirada altxatzeko, arnasa trankil hartzeko, paisaia ikusteko eta eguzki-printzek bainatua izateko —eguzkirik ez izan arren— aukera ematen duten liburuak dira" (GB, 63).

Mundu bizirainoko itzulera honek, inguruan dauden gauzekiko arreta bikoizten du —"Ordutan egongo nintzateke geltoki batean kartel bati begira" (A, 118) baina, baita pertsoneri ere: "Ez naiz zure-

gana joaten ideia baten bidez, begirada behin eta berriz berriztatuz baizik" (GB, 84). Eta itzulbide aktiboa da, oso ondo metaforizatua, Handkek egiten duen ibilbidearen eta ibiltarien apologia iraunkorrean: "Auzo periferikoetan barrena egindako ibilaldiek aurrez irudikatu gabeko ingurune baten mapa bat jarri zidaten agirian, gero-ago, urteetan zehar margotzen saiatu nintzena" (KG, 97).

Hau da, orduan, Peter Handkeren eginkizuna: intriga gabeko narratiba baterako idazketa berria asmatzea. Intriga gabeko narratiba bat mundu biziranzko zubia eraikitzeko idazketaren bidez: "Sarritan esaten diot nire buruari: ez argitaratu ezer, baina, ez horregatik idazteari laga, lorategian zehar joaten den pinpilinpauza hori arkeologo bihurtzen delako zuretzat, zuhaitzak eta landarea hobeto ikus ditzazun"¹².

BIBLIOGRAFIA

- [A] *Aber ich lebe nur von den Zwischenräumen* (1987) *Pero yo vivo solamente de los intersticios. Diálogo con Herbert Ganper*, Gedisa, 1990 .
- [AW] *Als das Wünschen noch geholfen hat* (1974) *Cuando desear todavía era útil*, Tusquets, 1983 .
- [CH] *Der Chinese des Schmerzes* (1983) *Le Chinois de la douleur*, Gallimard, 1990/*El chino del dolor*, Alfaguara, 1988.
- [GB] *Die Geschichte des Bleistifts* (1982)/*L'Histoire du crayon*, Gallimard, 1991/*Historia del lápiz. Materiales sobre el presente*, Península, 1991.
- [GW] *Das Gewicht der Welt* (1979) *Le poids du monde*, Gallimard, 1996/*El peso del mundo*, Laia, 1984.
- [KG] *Kindergeschichte* (1981)/*Histoire d'enfant*, Gallimard, 1998, *Historia de niños*, Alianza, 1986.
- [LH] *Langsame Heimkehr* (1979)/*Lent retour*, Gallimard, 1982/*Lento regreso* Alianza, 1985.
- [LS]/*Die Lehre der Sainte-Victoire* (1980) *La Leçon de la Sainte-Victoire*, Gallimard, 1998/*La doctrina del Sainte-Victoire*, Alianza, 1985.
- [UD] *Über die Dörfer* (1981) *Par les villages*, Gallimard, 1983/*Por los pueblos*, Alianza, Madrid, 1986 .
- [WR] *Eine winterliche Reise zu den Flüssen Donau, Save, Morava und Drina ,oder Gerechtigkeit für Serbien* (1996)/*Un voyage hivernal vers le danube, la save, la morava, la drina*, Gallimard, 1996/*Un viaje de invierno a los ríos Danubio, Save, Moravia y Drina o Justicia para Serbia*, Alianza, 1996 .

OHARRAK

- 0.- Esker anitz Tere Irastortzari egindako iradokizunengatik.
- 1.- Peter Handkeren bizitzari eta lanari buruz, ik., GOLDSCHMIDT, G.- A. Peter Handke, Seuil, Paris 1988.; HUICI, V. "Peter Handke: una escritura de la duración", *Bitarte*, 14, 1998, 121-126 o.; "Peter Handke: ¿sugerencias desde una narrativa antitrágica?", *El bienestar de la cultura*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 2000, 291-299 or. Nazioarteko web-orrialdea: <http://www.handke.scriptmania.com>
- 2.- Aipamen guztiak, Vicente Huicik euskeratuak.
- 3.- Ik. Bibliografia.
- 4.- *Haikuri* buruz, ik., adib., HUICI, V. "Una forma de la contemplación (dos notas sobre el haiku)", *Bitarte*, 5 zk., 1995, 109-116 or.
- 5.- Budismo-Zeni buruz, ik., DESHIMARU, T. *La práctica del Zen*, Kairós, Barcelona, 1979; SUZUKI, D.T.- FROMM, E. *Budismo zen y psicoanálisis*, FCE, Madrid, 1979.
- 6.- GUIBERT, H. "Entrevista a Peter Handke", *Sur Exprés*, 9 zk., apirila, 1988, 15 or.
- 7.- GARCIA-WETZLER, I. "Peter Handke en la carretera", *El País*, 1989ko irailak 3, Libros sez. II or.
- 8.- Espazio eta denbora gaiez Handkeren lanetan, ik. PARDO, J. L. *Sobre los espacios: pintar, escribir, pensar. Serbal*, Barcelona, 1991; COMETA, M. "Umbrales del abandono: espacio, tiempo y paciencia en Heidegger y Peter Handke", *Debats*, 55 zk., martxoa, 1996, 54-65 or.
- 9.- Aspektu horretaz, ik.: AZUA, F. "El lugar del cuento", *Claves*, 78 zk. , 1997, 57-60 or.
- 10.- Ik. WITTENBERG, S. "La mirada que pinta. Escritura y pintura en Peter Handke", *La Balsa de la Medusa*, 35 zk. , 1995, 21-34 or.
- 11.- Edmund Husserlen zentzuan. Ik. WR, 53.
- 12.- Ik. GUIBERT, zit. 18 or.

Txosten monografikoa: Alemaniar literatura



Bernardo Atxaga

Itxaro Borda

Felipe Juaristi

Anjel Lertxundi

Ixiar Rozas

Julen Urkiza

Juan Luis Zabala

Julen Urkiza

Behin eta berriro etortzen da denbora munduko bazterretara, eta haren uhin desberdinek tartean harrapatutako buru guztiak bustitzen dituzte: ez dago bataio latzagorik. Begira iezaiozue, bestela, jendearen kopetari: ez al duzue, guzti-guztienetan, garaiazen marka antzematen? Ezin al dituzue, marka horren arabera, belaunaldi batean edo bestean kokatu? Ez da izango, denbora, determinatzaile erabatekoa, baina ez dago zalantzarik: aberri batean uzten gaitu, hots, leku mugatu batean.

Ecce homo, hemen daukazue 50. hamarkadaren hasieran jaioetako bat, gerora —bere aberriko mugak gainditu nahian— Goethe, Hoffmann edo Walser irakurriko zituena, baina bere nerabetzan (ai!) Hermann Hesserren liburuak (ai eta ai!) nonahi ikusten zituena, eta batez ere bere ikastetxean. “Ez zen Harryrentzat ideia gorrotagarri eta ilunagorik kargu bat izatea baino...”, irakurtzen zuen ozenki Manu Olazabal kideak, La Salleko patioaren bazter batean, *El lobo estepario* begietan, hamaika zigarro inguruan: entzule arretatsuok baietz egiten genuen buruarekin eta, aldiaren behin, mespretxu begiradak zuzentzen genizkien futboleko jo eta jo ari ziren Arconada eta gainerako “barbaroei”. Arrotza eta aldi berean liluragarria zitzaigun Hermann Hesserren poesia, hain asoziala, hain heriotza-zalea; nondik heldu bestela, ginen aberrikoak ginela, bizitzeko era apasionatu bati? Eros ahul dabilenean, Tanatos nagusi.

“Nik uste Arconada eta beste ostikolari haiek gu baino bizkorragoak zirela”, esan zidan oraindik orain Manu Olazabal gure garai bateko zeremonia-maisuak. Izan ere, lotsatu samar gabiltza munduan Hermann Hesse modan zegoen garaikoak. Labur esatearren, haren poesia apur bat *pompier* egiten zaigu orain, imintziotsua, tea-

trala. Pentsatzen jarrita, zergatik ote dira hain arrakastatsu errebel-
dia hutsal bat aldarrikatzen duten liburuak? Hala Hesserrenak; hala,
geroago, Salingerren *Zekale artean harrapaka* nobela. Gai on bat film
baterako, esango nuke, film hori, James Deanek protagonizatua, as-
paldi egina ez balego.

Ez zen gure uhina liburu edo egile bakarrekoa izan, noski. Her-
man Hesse irakurri eta handik gutxira, joan Gipuzkoako Aldundian
zegoen liburutegira eta Friedrich Hölderlin-en "*El archipiélago*" poe-
ma luzea aurkitu nuen: "Loretan al dago Jonia? Berdatua al da dago-
eneko Salamina?...". Alboan, egun batean bai eta hurrengoan ber-
din, bi gizon sentitzen nituen hizketa amaigabea, ahots sendokoa
bata, apalekoa bestea. Egund batean, nire ondotik pasa, eta esan zuen
apalekoak, Jose de Arteche zenak: "A ver qué lee este chico...". Sa-
konki hartu zuen arnasa jarraitu aurretik: "¡Pero si está leyendo a
Hölderlin!". "¿Te das cuenta qué juventud nos viene, Arteche?",
hots egin zuen ahots sendokoak, Jorge de Oteizak, eta liburutegian
zeuden denak niregana begira jarri ziren. "Todavía no lo entiendo
muy bien", esan nien nik defentsan, eta haiek jarraitzeko adierazi
zidaten buruan txapaka eginez, iritsiko zela une hura ere. Jakina,
halako jaunen txaloak jasotako liburuak bide luzea egin behar. Ni-
gan jarraitzen du oraindik ere.

Bilbora joan nintzen. Egund batez, Gabriel Arestiren erdi-ezkituko
hitzaldi batean, Bertolt Brechten poema bat entzun nuen —"Espai-
niako erregek negar egin omen zuen..."— eta gogora etorri zitzaidan
Mikel Laboak aldi hartan kantatzen zuen beste bat, hura ere Bertolt
Brechena —"Lilurarik ez..."—. Nahikoa izan zitzaidan, poetaren li-
buruak bilatzen hasteko erabakia hartu nuen. Hala, hurrengo aste-
an, *Poemas y canciones* izenekoa nire mesanotxean zegoen. Lehengo
aberrian jarraitzen nuen, bai, baina zein urruti Hermann Hesse-ren-
gandik! Zorionekoa, egund hura! Hitz soilez egindako poesiaren
edertasuna ulertu nuen orduan: "ez eman niri lore mardulak, eman
adar biluziak...". Ulertu egin nuen, halaber —orduan edo geroxe-

go— etikak literaturan duen garrantzi funtsezkoa: noraino laguntzen dion poema bati egiaren alde saiatzeak. Aldian behin, nire liburutegitik atera eta, berriro ere, nire mesanotxean uzten dut.

Begira ezazue zuen ingurura. Ba al da hor 50. hamarkadakorik? Hala balitz, aurki ezazue bere kopetako orbaina. Ikusten diozue, erdi-erdian? Bai? Bada hortxe egon zen, egun batez, aipatutako hiru poeten idazleek egin zioten zauria. Kainen estigma iruditzen zai-zuela? Arren, ez zaitezte hain hesse jarri. Belaunaldi zintzo samarra gertatu da gurea.

*Rilkeren eresiak (h)itzal**Andolin Eguzkitzaren omenez*

Idazle batengana heltzeko ez da beti biderik zuzenena hartzen. Haur-denboran goizetik arrats behatzen nuen irratian, noiztenka Leo Ferréren *est-ce ainsi que les hommes vivent* pasatzen zen. Kanta ederraren oinarritzko olerkia Aragonen eskutik zetorren honek, 1930 urteetan zehar Alemanian, aliatuen okupazio-armadarekin Ruhr eskualdean zegoela idatzia:

*Le ciel était gris de nuages
Il y volait des oies sauvages
Qui criaient la mort au passage
Au-dessus des maisons des quais
Leur chant triste entraînait dans mon être
Et je croyais y reconnaître
Du Rainer Maria Rilke.*

Lehen aldia zen Rilkeren izena entzuten nuela eta orduan neuretzat edozer izan zitekeen, poeta salbu. Zena zela, *jendeak horrela bizi ote dira?* galdera horrek mila inguru egin zituen neure gogoan, Rilke alemaniar poesiaren lumarik sentiberena eta handiena zela konturatu nintzeneraino. Rainer Maria Rilkeren eresi zenbait irakurri nituen alabaina gustua horretara plegatua ez neukan adin batean. Eta Parisen aurkitu nintzenean, zinez Rilkeren olerkietan ito nintzen, mineralizatzen nindoalako sentimendua neukalako batetik eta bestetik Tere Irastortza adiskidearentzat Rilkeren frantsesezko bertsiolak bilatzen nituelako: liburuak orduan, bikoitz erosten nituen. Eta gero bizi-zurrumbiloak eraginik, Rilke hertsi nuen memoriaren zoko

ilun batean, *pairatzen* nituen hamarkadak ez zirelako gehiago hun-kiberakeria-mota horri egokitzen.

Eta hiruzpalau urte duela, berriz hauteman dut ahots lagunkin batek belarrira xuxurlatu zorionezko *le ciel était gris de nuages, il y volait des oies sauvages... et je croyais y reconnaître du Rainer Maria Rilke* hura. Harritu nintzen, ezen abesti haren aditzeak, barnean erai-kia neukan horma itsua hautsarazi zidan eta ene lehenbiziko (zentzurik oinarritzkoenean) amodioetara itzularazi ninduen: halaz Rilke eta Li Bai poeten manupean 2002ko azaroan Maiatz argitaletxeak atera zuen *Hautsak Errautsa Bezain* izkiriatu nuen. Irudi zait, barkatu aitormena, batzuetan izugarri luzea dela idazle batengana iristea, iristen garela onartzea hots eta haren konpainian noranahi bideratzea.

Rainer Maria Rilke, hogeitertan behin betiko abandonatuko zuen Pragan sortu zen, 1875an. Rilkek haurtzaro antsiasua, iluna, hitsa eta zaporerik gabekoa pasatu zuen, egokiena agian irakurketari sakon uztartzeko: poeta autodidakta bihurtu zuena Pragako hamarkada triste haietan? Aitak nahi zuen soldadu bilaka zedin baina ez zen hori R. M. Rilkeren destinoa. Ikasketen garaian, olerkiak publikatzen zituen, neo-erromantizismo-estilokoak, gehienetan birjina, mamu eta parke bakartiz setiatuak. Pragako pobreak eta eriak begiko zituen eta *Wegwarten* deituriko aldizkariaren hiru zenbaki publikatu zituen hiriko ospitaleetan banatzeko. Pragako txekiarren independentziarako tirriak *Pragako Historiak* bildumako bi ipuinetan laburbildu zituen: alemaniarrentzat, txekiarrek haurrak baino ez zirela azaltzen da bertan. Baina denak utziko zituen 1886an Europan zehar eta bere azken hatseraino kasik etengabeko eratorri poetikoa-ri ekiteko.

Munichera zuzendu zituen urratsak. Lou-Andreas Salome (1861-1937) idazlea 1897an kausitu zuen. Hamalau urte zaharragoa zen Lou-Andreas Salomek zuen Rilkeren René-Marie izena, Rainer-Maria zorioneko bihurtu. Europan barna ibiliko ziren elkarrekin eta

bien arteko adiskidetasunaren lekuko trukatu zituzten hemezortzi mila gutunak leitzen ahal dira dagoeneko; Rilke haietan lasai eta nehoiz ez bezala irekia agertzen zaigu, halaber Europako kultura-mugimendua laster gerlak suntsituko zuen Mitteleuroparen funtsezko ezagutzaren egiteko ahalmena eskaintzen digute. Adriatikotik Ipar Itsasora bidaiatzen zuten kultura-eragileek, Erromatik Vilniuseraino Wienatik pasatuz, bitartean Nietzsche filosofoaren idatzien zein Freuden psikoalanisi gisako lehen esperientzien berri hartuz, bakarretan eta hala egingo zuen Rilkek Lou-Andreas Salomerekin Errusiara itzuli bat eginez. Ibilaldietarik etxeratzean, non zeukan etxea ordea poetak? Rilkek olerkiak izkiriatzen zituen, hala nola *Orduen Liburua*, non olerkaria Asisko Frantziskoren moldean jesartzen zaigun, pobrezia erraldoiaren zurrunbiloan bermatzen den bihotzeko argiaren jabe, jakile eta eramaile:

*Etixerik ez duenak ez du eraikiko,
Orain bakarrik dagoena luzaz hala egonen da,
Irakurtzen eta beilari, etengabe idazten
Eta bideetan ibiltari,
Hostoak erortzen direnean, kezkatua.*

Rilkek hargatik Munich abandonatu zuen 1902an Worpswedera joateko, eta han zuen, artistaz inguraturik, preseski liburutto baten izkiriatzea manatuko zion Rodin frantses zizelkariaren Pariserako gonbitea jaso. Ez hain aspaldi Rivages argitaletxeak garai hartako Rilkeren karnet beilegia publikatu zuen. Parisera etorri zen Klara emaztea eta Ruth alabarekin, ez ziren egoitza berdinean bizi, Rodinekin haserretu eta hor eman zen 1910ean bukatuko zuen *Malte Laurids Briggen Kaierrak* izeneko nobelatxoaren orrazten. Hastapeanean, Paris, ilun, hits eta triste kausitu zuen Praga bere sorterriaren antzera menturaz. Behialako karnet beilegian Rilkek jasan bizi-mina bitartekorik gabe eskaintzen zuen, egunez egun. Baina Paris gerora, beste edozein leku baino askoz gehiago maitatuko zuela ere badaki-

gu. *Poesia Berriak* bildumako kasik berrehun olerkiak Parisen zegoe-
la idatzi zituen, Chartreseko katedralari eskainitakoa kasu:

*Zer dakizu, harri, gure izateaz?
Eta zure aurpegia are zoratuago ote da
Zure ordularia gauari aurkezten diozunean?*

Erraz idazten zuen Rilkek. Trebezia ikaragarria zeukan, susmaga-
rria halaber. Herioaren mehatxua, Europako hirien Hamalauko ger-
la-bezperako etsipena eta amodioarekiko ukamena izkiriatzen zi-
tuen, batzuetan xoxola-arrosa itxurako lanetan. Erran behar da, Bau-
delairen irakurketak ikusmoldea aldarazi ziola, segur aski ere Pari-
sen zeraman biziera pobre eta lagunik gabeko bezain isolatuak.
Kaierren ondotik kreaizio-mortu antzeko batera heldu zen eta bi-
daia-bolada berri bati ekin zion Espainia, Egipto eta Italiatik. Hama-
laukoa Munich eta Wienan, armada ministerioko langile xume, ira-
gan zuen. Lermontov, Verhaeren edo Louise Labéren sonetoak ale-
manieratu zituen, baina ez zuen bere baitako hitzik papereratzten,
hainbat non Vienan zegoela, psikoanalisia baten segitzea pentsatu
zuen. Urte lehor haietako zereginik handiena lehen Eresien idazke-
ta izan zen. Turn Und Taxis printzesaren Duinoko gazteluan zela,
hamar poema luze horietako bi paratu zituen, 1912an. 1922an sui-
tzar mezenas batek utziko zion Muzot-eko dorre bakartian bukatu
zituen *Duinoko Eresiak* eta idatziko aldi berean Orfeari Sonetoak sai-
leko berrogeita hamar olerkiak.

*Zergatik, gure izate apurra erramu gisa
Iragan dezakegularik, beste berdeak baino ilunago,
Hosto hegiak uhinez blai (haizetxoaren irria dirudiela)-:
Zergatik jende gisara bizi behar da- eta, destinoa ekidinez,
Destinoa desiratu?...
O ez, zoriona galtze hurbil baten abantaila
Goiztiarra delako.
Ez eta ere kuriositatez edo erramuaren baitan
Legokeen bihotzaren lantzeko.*

*Baina hemen izaten anitz delako, eta iragankor direla,
Bitxiki deitzen gaituzten hemengo
Gauzentzat premiazoak garelako. Gu ezer baino
Iragankor garena. Behin bakoitzak, behin soilik.
Behin, ez gehiago. Gu ere behin. Nechoz ez berriz.
Baina behin baizik ez baldin bada ere hori izan:
Lurtar izanak ukagarri ez dirudi.*

Eresietan Rilkek aingeruei abesten zien. Halaz, hamar eresiak al-
daketa sakonerako deiak ziren, miseriatik, bakartasunetik bizitza apa-
lak izaeraren garaipenez apaintzeko. Poesia horiek irakurleari urratsa
erakusten zioten, poesia aingeruek berek gatiba ez dezaketen gauza
zela azpimarratuz eta deiadarkatuz. Poesia gizateriaren destino bilu-
ziarekin ezkontzen denean, batez ere: egiazko poesia itxura-aldatzai-
lea, irri umilaren xenda irauliko zuen olerkigintza bozkario-urratzai-
lea aldarrikatzen zuen Rilkek, isiltasun hormatuan. Zentzu horretan
gaitu alemaniar idazleak oraindik ere hunkitzen.

Orfeori Sonetoak erreka-zulo berdinetik zetozen: biziaren gorazarre.
Auhena hor, ohoreak baino toki gutxiago zutela ohartzen ziren ordu
haietako irakurleak: poeta lasaiago bide zen Muzot-eko dorre hartan:

*Aldaketa eska! Aldaketaren loriaz, o! gauza batek
Bakarrik uzten zaituen su-mihiaz gogotsu ibil zaitez.
Hatzen oldeaz, lurraz jabetzen den sormen izpirituak
Ez du ezer maite, berme-puntu biribila bezain.*

*Betikoan kartzelaratzea, malgortzea da jadanik;
Grisaren estali hits pean segurrago sentitzen al gara?
Hago: gogortasun handiagoak gogortasuna ekiditen du.
O zorigaitz! -hara altxatzen dela mailu ausentea!*

*Maiz hastapenak bukatzen eta bukaerak hasten duen
Kreazioaren ibai lasaian zehar, zoratua, eroaten eta
Iturri gisa isurtzen dela onartzen du jakitateak.*

*Harriduraz pasatu bereizketaren haur edo arra-haur
Baino ez den lur zoriontsuagorik ez dago. Eta bihotza
Erramutu zaion Daphneak, haize egin zaitezen nahi du.*

Tom M. alemaniar adiskide batek, ezagutzen ez dudana bere hizkuntzan behin olerki hau irakurri zidanean, barne erabat inarrosia suertatu nintzen: nik halaber, mintzaira ezberdina ezpaineratuarren, metamorfosia berdina lehiatzen nuen. Rilkek norabidea erakusten zidan, olerkari isolatu eta profetikoen bidez. (M)orfea neurea ere bazen.

Bi obra horietan Rilke, eman zezakeen guztiaz hustu bezala zen. 1926an hil zenerainoko urteak Paul Valéryren *Itsastar Hilerrria* itzultzen eta frantsesezko olerkiak izkiriartzen pasatu zituen, suitzar nazionalitate eskaeraren bermatzeko:

*Sur le soupir de l'amie
Toute la nuit se soulève,
Une caresse brève
Parcourt le ciel ébloui.*

*C'est comme si dans l'univers
Une force élémentaire
Redevenait la mère
De tout amour qui se perd.*

1926an, zendu aurreko hilabeteetan, Pariseko erbestetik eta Pasternak tarteko, Rilkerekiko gutun-bidezko uholdea buhatu zuen Marina Tsvetaievak (1892-1941) ezagupenez, sekula elkartu gabeko amodio oldargarritz, olerkari-nortasun pareko sentimenduz itoko zuen Rilke. Alemaniar idazleak *Eresi berri* bat eskainiko zion 1926ko ekainean: Osotasunean galtze horiek oro, Marina, lehertzen diren izar horiek! Marina Tsvetaievak bere aldetik, 1927ko otsailean *Urteberriko Gutunak* deituri-ko olerki luze batean, adiskidearen gabezia latza deitoratuko zuen. Lurrean desterratu bi inguma bezala ziren Rilke eta Tsvetaieva. Segur aski, idazle errusiarraren testu franko euskarara itzuli zituen Tere Irastortzak hobeki aipa lezake amodio poetiko horren funtsa.

Rilkek odoleko minbizia zeukan eta bere biziko hondar urteetako bidaiak artatzeko zegizkien. 1926ko abenduaren 29an, Muzot-eko

gazteluko baratzean arrosa moztzen ari zela, arantza batek zauritu zuen. Handik laster hil zen:

*Destinua deitzen dena hori da,
Parean egotea,
Besterik ez, eta beti parean.*

Rilke alemaniar poeta handia izan zela izkiriatzeari, hutsalkeria liteke agian. Erabiltzen zuen hizkuntzaren ikasteko gutizia bederen sorrarazten du nigan eta ez da errana ez natzaiola lan horri uztartuko —baina beude gerokoak geroko—. Bururatzeko nahi nuke Rilkeren azken obra bat aipatu, *Poeta gazte bati gutunak* (1929) izeneko hain zuzen. 1902 eta 1908 artean Franz-Xavier Kappus (1883-1966) austriar soldadu graduatuaren poeta bilakatzeko aholku eskeari xumeki, baina bera jada saloietan franko ospetsua zen olerkari-urguilu zintzo batez arrai, ihardetsiko zion. Gutun horietan Rilke pobreaki jarduten (bere liburutik ere ez zeukan eskumenean Kappusi oparitzeko!) eta bidaiatzen ikusten dugu. Rilkek Kappus gazteari ematen zizkion kontseiluak nahikoa hunkigarriak dira, egiazko hain betikoak direlako: “inork ez zaitu ez aholkatzen, are gutxiago laguntzen ahal, inork. Bide bat baizik ez daukazu: zugar amil zaitetz eta idaztera behartzen zaituen arrazoia bila ezazu.” Eta urrunago: “Lehenik eta behin, gaueko ordurik lasaienean eska iezaiozu zeure buruari: idatz dezadan derrigorrezkoa al da?” Erantzuna baiezkoa baldin bazen, bizimoldea urgentzia horren arabera harilkatzea gomendatzen zion, bizkitartean ofizio bat har zezan erregutuz: “libre eta edozein eskualdeetarik autonomo egiten zaituen lan bat eduki dezazun on liteke”. 1904-an, Suediatik igorriko zion arrapostu luzearen bukaera ederra da: “Eta baldin banu oraino gauza bat errateko, hauxe erantsiko nuke: ez ezazu uste izan sustatzen zaituzten eta on egiten dizuten hitz soilen erdian, zure gozatzea xede daukan hau zailtasunik gabe bizi dela. Bere egunerokotasuna tristeziaz eta penaz betea da, eta zurea baino anitzez apalago dabilkio. Bestela balitz, ez zituzkeen nehoiz hitzok aurkituko.”

Rilkeren aholkuengatik Kappus ez zen poeta bihurtu.

Rainer Maria Rilkeren famak aro ezberdinak pasatu zituen, mi-resmenetik gorrotoraino. Batzuk sobera gaztelusaloizalea kausitzen zuten, besteek erlijiosoegia. Hargatik Pessoa, Appolinaire eta Cavafisekin batera, Rilke XX. mendeko europar poesia alorreko erraldoia zela, eta dela, ez da ukatzen ahal. Bere argi eta (h)itzalekin.

Hermann Broch idazlea ezaguna da, batez ere, "Sonanbuluak" izeneko trilogiatik, eta *Virgilioren Heriotza* nobelagatik, poema luzea, poema-ibaia, poema-itsasoa, poema amaiezina dena, nire iritzian, poema amagabea bainoago, ibaia eta itsasoa bezala. *Virgilioren Heriotza*, esaterako, 1937an hasi zuen Brochek, Hitlerren asmoak agerikoak zirenean, eta 1944an amaitu. Egia esan Hitlerren asmoak agerikoak izan ziren hasiera-hasieratik, boterera iritsi aurretik, Munichen kalez kale, garagardotegiz garagardotegi, putetxez putetxe buhame gisa ibiltzen hasi zenez geroztik, soldadu ohi asko bezala, Lehen Gerrako porrotak ase ez zituzten asko bezala, hitz saminak, hitz ozpinak, gorroto hitzak murduskatuz. Baina ez zioten kasu handirik egin, hasiera batean, sekula indarrik, alegia botererik ez zuela izango uste izan baitzuten; geroxeago, Alemaniako oraina, geroa eta iragana, memoria eta bere irudipena, haren esku zegoela ikusitakoan, uste izan zuten, orduan ere, sokatik heldurik, noranahi eramango zutela, txakur bat balitz bezala; eta okertu ziren eta damutu, baina beranduegi zen; askotan gertatzen da, ez gaitezen larritu. 1933az geroztik garbi zegoen, intelektual batzuek behintzat garbi zuten zer zekarren Hitlerren garaiak. Zantzuak agerikoak baitziren eta ez irudimenezkoak soilik: odola eta lurra eskatu zituen Hitlerrek, bere herriaren odola besteen lurra lortzeko, besteen odola ere bai, berehala. Walter Benjaminek argi ikusi zuen, eta aldarrikatu ere bai, Kasandra baten gisa, ikusten zuena, baina Troiako emakume hari bezala, inork gutxik entzun zion; aldarrikatu zuen ozenki, ahoa hautsi beharrez, baina inork adimenik jarri ez esaten zuena ulertzeko. Horixe da profeten patua: basamortuan oihu egitera kondenaturik daude. Izan ere, haien ahotsak zalantzan jartzen baitu mundu honetako bizimodua, eta jendearen zentzumenek, bai begiak bai belarriak, bai eskuak, bai ahoak,

mundu hau nahi, mundu honetaz beste egiteko asmorik ez: mundu honetan betikotuko balira bezala, besterik ezean.

1938an Austriako hegoaldeko herrixka batean bizi zelarik atxilotu egin zuten Herman Broch, eta kartzelan, bihotza larri, gogoa izu, emandako denbora guztian hil egingo zutela uste izan zuen. Brochentzat heriotza, gaitzik nagusia zen, gaitzetan gaitzena, *summum malum*: eta heriotza-zigorra, zigorrik handiena, zigorrik ulertezinena, zigorrik gogorrena. Gizakiak gizakiari egin diezaiokeen kalterik handiena hiltzea dela uste baitzuen, eta sinesmen horri tinko eutsiko zion hil arte. Horregatik hiltzearen izua, horregatik heriotzaren izua, horregatik bera hauts bihurtzearen izu-laborria.

“Dena jakitera iristen denak denbora ezabatu du eta, horregatik, heriotza ere bai”, azkeneko hitzak zituen, heriotza uste baino gertuago izan zuenean: utopiaren hitzak, idealista baten hitzak, ez baitago denbora ezabatzeko modurik, herioren eskutik ez bada, eta horrek eskua bainoago bizkarra ematen dio hil nahi duenari, eta eskua ematen berrari bizkarra emandakoari.

Heriotzarena ez zen debaldeko sentipena, herio bera ere agerikoa egin baitzen, herio kalean ikusten baitzen, bortizki jantzirik, ilunez jantzirik, itzal bihurturik. *Virgilioren Heriotzaren* eskuizkribuan aritu zen kartzelan emandako denbora guztian. Hamar urte geroxeago gutun baten bidez adierazi zuen zer izan zen berarentzat kartzelako aldia, eta zer bilakatu zen *Virgilioren Heriotza*: “Liburua ez zen idatzia izan liburu gisa, eguneroko gisa baizik, hau da, liburu gisa hasi nuen, gero eguneroko gisa eta azkenik liburu gisa amaitu zen. Eguneroko moduan idatzi nuenean, gehiago ez nuela idatziko sinetsita nengoen, kontzentrazio-zelai batean amaituko nuela. Beraz, heriorekin borrokan idatzi nuen, herio aurrez aurre ikusten nuela”. Ezin da datu hori ahantzi; Broch ulertzeko eta batez ere *Virgilioren Heriotza* ulertzeko beharrezkoa baita. Hermann Brochek zortea izan zuen. Austriatik ihes egin eta Ameriketara joateko aukera izan zuen. Izan ere, Austrian nazien garaian, hirurogeita hamar mila pertsona atxilotu zituzten, juduak gehie-

nak, eta horietatik hamar mila soilik zeuden bizirik gerra amaitu ondoren. Bizirik esatea asko esatea da garai hartarako. Gainerakoek kartzetan edo hiltegietan amaitu zuten. Hermannen ama Theresienstadten hil zen. *Virgilioren Heriotza* 1944an amaitu zuen Brochek, esan bezala, kontzentrazio-zelaietan gertatutakoa agerikoa egin zenean, sobietarrek Treblinkan aurkitu zutenaren berri eman ondoren, batez ere. *Treblinkako Infernua* idatzi zuen Vassili Grossmanek, eta motz gelditu zen, Treblinkan eta Auschwitzten egindakoa Danteren irudimenaz haratago baitzegoen, infernuaz haratago, heriotzaz haratago, oroimenaz haratago. Ez baitago infernurik, infernu literariorik, irudimenezkorik, haren aldean jar daitekeenik. Infernu guztiak paradisu eta oihu guztiak kantu egiten baitzituen halako egoerak.

Brochek literaturari izugarri eskatzen zion, osotasuna eskatzen baitzion, zientzia balitz bezala; osotasuna, dena bere baitan hartzeko ahalmena. Baina Treblinkan eta Auschwitzten gertatutakoa jakin zuenean, Brochek literaturan jarrita zuen fedea arrakalatu egin zen eta hautsi mila zatitan, nola belaontzia harkaitz gotorren aurka jotzean, eta kontraesanez bete zen haren bizitza, literaturari eskatzen ziona ezinezkotzat jorik, poesiaren eta ezagutzaren arteko tentsioa, literaturaren oinarri, areagoturik. Horregatik du *Virgilioren Heriotzak* duen bukaera: Virgiliok erre egiten du bere eskuizkribua, *Eneida* hain zuzen, ezagutza poesiaren gainetik jartzen baitu, eta ezagutza, bai, haren eta Virgilioren arteko adiskidetasunaren azpitik. Kontraesan hori beti eramango zuen barnean Brochek, eta Virgiliok ere bai, uste dut, bere eskuizkribua erretzera iritsi ez bazen ere. Brochek, liburua amaitutakoan, bera erretzeko tentazioa izan zuen, Virgiliok berak *Eneida* erretzekoa izan zuen bezala. “Ez ote dira hitzak soilik” esan omen zion bere editoreari. Hitz soilak ez baitakar ezeren esperantzarik, hitz soila, Brochen iritzian, eremuan lantzen den gari-alea bezain baita, ezerez, hondarraren bazka.

Gogora gaitezen Kafkaz, hura ere bere lanak, erretzeko ez bazen ere, deuseztatzeko zorian; egoera horretan aurkitu baitzen Broch bera ere, behin baino gehiagotan:

“Honetara edo hartara iritsia da: poesia mitoa harrapatzeko gauza da, edo bestela porrot egiten du. Kafkak, kosmogonia berria aurrez ikusirik, lortu behar zuen teogonia eskura ikusirik, literaturak sortzen zion maitasunarekin, literaturak sortzen zion etsipenarekin, arte-lanarekiko gutxiespenarekin, erabaki zuen (Tolstoik halako atakan erabaki zuen bezala) literaturaren erreinua uztea, eta hortaz agindu zuen bere obra guztia suntsitua izan zedin; munduaren ongia nahi zuelako erabaki zuen hori.”

Ez baitzuen, azken urteetan, etikarik gabeko estetikarik ikusten, estetikarik gabeko literaturarik ikusten ez zuen bezala. Hitza nahi zuen hitzaz haratago joan zedin, soinuaz haratago, esanahiaz haratago. Hitza nahi zuen ederra eta era berean ona. Txukun idaztea, hitz soilen arrimu ona bilatzea, ez zitzaion nahikoa iruditzen; areago, literaturak zuen helburua lortzeko oztopotzat jotzen zuen. Ongi idaztea beste zerbaiz baitzen, eta bada orain ere, idazketaz haratago joatea.

Hori nabarmena da *Errugabeak* liburuan, Amerikako Estatu Batuetan zegoela amaitua. Editorearen aginduz, Austriako garaiko ipuinak oinarritzat hartu, eta zuzendu egin zituen, usain zaharra kentze aldera, estilo zaharra berritu nahian. Liburuak Hitlerren aurreko pertsonaiak deskribatzen ditu. “Apolitikoak” dira, horrek esan nahi duen zentzuan, lurralde lainotsu eta zehazten zail den batean bizi baitira. Horietako inor ez da, zuzenean bederen, Hitlerrek egin zuenaren errudun, errugabeak dira, izenburuak adierazten duen bezala. Hala ere badakigu, gu ere eskarmentua hartutakoak baikara, eta ez Francorekin bakarrik, beste sarraskigile isilago eta lainotsuago batzuekin ere bai, diktadura guztien habe eta sostengu halako pertsonaien egoera dela. Politikan izan ere, axolagabekeria, beste aldera begiratzea, axolagabekeria etikoa da, hoben etikoa, perbertsio etikoa. Politikan errugabeak direnak, etikaren esparruan errudun dira, besteen sufrimenduaren aurrean axola gutxi erakusteagatik, besteen minari sorgor egiteagatik. Errugabetasuna errudun egiten da, baina errugabeak ez du sekula onartuko bere erruduntasuna. Zertarako orduan literatura? Galdera horrixeko erantzuk

ten saiatu zen Broch bizitza osoan: “Gizakia bera da gure garaiko arazoa; gizabanakoen arazoak desagertuz doaz eta batzuetan debekaturik daude, moralaren ikuspegitik. Gizakiaren arazo pertsonala barregarria da jainkoentzat, eta haiek arrazoi dute. Banakotasuna ez da ezer, baina gizatasuna bai, jainkoei eta patuari aurre egin diezaieke”. Zertarako literatura? Zertarako estetika, etika gabe? Zertarako etika ekintzarik gabe? Ez dira galdera inozoak, ez dira galdera errugabeak, ez baitago galdera errugaberik inon, galderak berak baitarama berarekin erruduntasunaren hazia. Baina errudun, zeren? Galdera bakoitzak ezkutatzen duen horren errudun.

Eta artea ere errudun da, artearen alde soilik jokatzeko duenean. Mundua desitxuratu egin da eta baloreak deuseztatu egin dira, munduak Jainkoa alde bat utzi duenean. Hori uste zuen Brochek. Galdu egin baitzen balore goren eta nagusiaren aginpidea, eta horren ordezkari baloreen anabasa sortu zen. Anabasa horretatik etorri zen, esaterako, eta Brochen pentsamenduari jarraitzen ari natzaio, Ariadnaren hariari bezala, arteak arteagatik zuritzea bere burua. Eta filosofia horrek edertasunaren idolatria ekartzen du berarekin, eta edertasuna gurtzearen joka genezake Neronek bezala. Neron artista erabateko eta konplutua izan baitzen. Erroma sutan, kristauak zuzi bihurtuak lorategietan eta bera kantari, inguratzen zuen saminari eta sufrimenduari sor eta gor eginez. Izan ere, ikuskizun ederra zen hura, estetika hutsetik begiratuta. Hitlerrek ere egin zituen edo agindu zuen egiteko halako asko. Horixe zen Brochentzat *kitscha*, etika-bidetik kanpo ibiltzen zen artea. Ezin baitzuen ahanzi Lehen gerraren ondorioz garrantzitsuena. “Gerra, gerra da” hasi ziren esaka, eta ondorioz gerra hilakintza izugarri bihurtu zen.

Izan ere, estetika etikaren gainetik jartzen duen artistak obra ederrak egin ditzake, zentzumenen zoragarri, ez dago zalantzarik, baina errudun bihurtzen da, errugabeki errudun edo errudunki errudun. Kontzentrazio-zelaietan orkestra batek jotzen zuen, unerik seinalatuenetan, goizean gizon-emakumeak lanera ateratzen zirenean eta gauzez ere bai, lanetik etortzen zirenean, eta jotzen zuten norbait zigortzen zute-

nean, hiltzerainoxe zigortu ere, eta jotzen zuten norbait aurretik zigortu gabe hiltzen zutenean. Eta beti jotzen zuten mintegi hartan, minaren toki hartan... Eta jotzen zuten eta edertasuna ekartzen toki ilun itsusi ezein hartara... Eta etika estetikaren gainetik jartzen duenak lortuko du beharbada arte-lan ederrik, pozik geldituko da bere bihotzarekin, pozik bere gogoarekin, baina ez da nahikoa. Eta errudun izango da, errugabeki.

Hermann Brochi zor diogu nik ezagutzen dudan utopiarik bitxiene-takoa, izenburuz bederen: *Gizatasunaren diktaduraz erabateko demokrazian*. Badakit diktadura hitza gogaikarria dela, gorrotagarria ere bai, diktadura geure haragitan jasan izan dugunontzat, eta bestelako diktaduren berri ere izan dugunontzat. "Demokraziak erakusten du dena gizatasunaren eta gizakiaren bidez gertatu behar dela, ez haren kontra ez harengandik kanpo. Gizatasunaren diktadura, giza duintasuna babes-teko lege batean oinarrituz, gure biziaren esperantza gordetzeko botere bakarra da". Hitz ederrak dira. Dauden bezala irakurri eta hauspoak airez betetzen dira, pozez, eta bihotza punpaka hasten da, zainetatik tiraka gorputzetik kanpora nahiz. Platonen *Errepublika* dakarte gogora, halako toki hura, non poetek ez zuten tokirik, errepublikaren onerako kaltegarri zirelakoan. Direlakoan ere, poetak baztertuak izaten dira, baldin eta boterearen aurrean makurtu eta botereko ateak zaintzen dituen zerbitzari xume eta leialari eskuan muin egiten ez badiote, edo eta beren poemen bidez, beren testuen bidez, ez badituzte laudatzen kaudilloak, ministroak, alkateak, presidenteak, lehendakariak... Horiek bai, horiek onuragarriak dira edozein errepublikarentzat. Hitz txukunak dira, bai, aho-gozagarriak: *gizatasuna eta demokrazia*. XX. mendeko diktadura guztiek gizatasuna goraiatu zuten, gizatasunaren izenean eta gizatasunaren alde burutu zituzten beren sarraskiak. Eta diktadura batzuek, gainera, demokrazia laudatu zuten eta ikur bihurtu, gizatasunaren izenean, gizatasunaren mesedetan, gizaki berria egiten ari zirelakoan. Baina halakorik ezin jakin Brochek, izan ere, bere utopia 1939an idatzita baitago, alemanak Polonian sartu ziren urtean. Brochek ez zuen horren errurik, urte bat

lehenago iritsi baitzen Estatu Batuetara bere sorterritik ihesi. Baina pentsa zezakeen berak hainbestetan maiseatutako *kitscha* zela definitzen ari zena.

Poesia azkenean *kitsch* bihurtzen da, nahigabe ere, ez du beste biderik, hitzena baizik, eta hitzak edertasuna nahi, beste ezeren gainetik. Horixe da poetaren benetako lehia, lehia azkengabea, lehia infinitua, lehia epikoa, lehia benetakoa: hitzetik gordetzen, hitzaren indarrari gogor egitea, hitzaren lilurari gor egitea, begiak itxirik, belarriak itxirik, zentzumenak lokarturik behar bada.

Eta poesiarekin batera ezagutzarena ere bada lehia hori, eta politika-rena eta bizitzarena ere bai, biziaren zentzua eta zentzuaren bizia galdu ez dituen bizitzarena bederen.

Ez da idazle ezaguna. Iragan mende-hasierako alemaniar literaturaz aritzen direnek gutxitan aipatzen dute. Egia da Thomas Mann-ek oso hitz ederrekin agurtu zuela Hermann Ungar-en idazkuntza “*samurra eta, aldi berean, krudela*”. Halaber, harreman pertsonal eta literario sakonak izan zituen Alfred Döblin, Ernst Weiss edo Joseph Roth idazleekin —azken honek Kafkaren pareko kontsideratzen zuen—. Baina Max Brodek, Kafkaren itzal eta babesleak, ez zion utzi Kafkaren zirkulura hurbiltzen: “*jende askok eskatu zidan Hermann Ungar babesteko, baina ez zuen inork ezagutzen*”. Izar handi baten distirak indarra galtzen du pareko distira duen beste bat ondoan jarrita.

Lan hau eskaini zidatenean, Arthur Schitzler, Joseph Roth edo Arthur Döblin, hiruetako edozein hauta nezakeen. Zein baino zein dira, eta hurrak ditut atsegin. Baina Hermann Ungar hautatu nuen: artikulu xume bat ere izan daiteke, bere apalean, justizia egiteko modu bat.

Moravian jaioa (1893), eta Pragan hila hogeita hamasei urterekin (1929), txekiera zuen etxeko hizkuntza, baina alemana hautatu zuen idazteko, iragan mende-hasierako idazle judu askok bezala. Hor daukagu, bada, Ungar ere, hiru zibilizazioen (alemana, eslaboa eta judua), bi erlijioen (judua eta kristaua) eta bi hizkuntzen (txekiera eta alemana) arteko bidegurutzean. Inperioak baino gehiago irauten du beti hizkuntza inperialak. Badirudi alemanaren longaina bakarrik geratzen zaiela inperioaren hausturak —kulturen arteko sare *baketsuaren* urraketak— ekarritako umezurtz-sentsazioa babesteko.

Obra laburra du Hermann Ungarrek. Bost narrazio labur ezagutzen dizkiot nik (idatzi zuen antzerki pare bat ere, espresionismoaren bide-tik nonbait), eta narrazio labur horietan ageri den errealismoa oinazetsua da, tragikoa da, zorigaitzezko tristura batek gainezkatzen du

(medikutan ibili zen hipokondria kroniko bategatik). Onen-onenean, haren nobeletako pertsonaiek Grosz-en koadroetako irudi groteskoak ekartzen dituzte gogora. Txarreanean, Egon Schieleren edo Edvad Munch-en figura oinazetuak.

Mundu kaotikoaren aurrean hartutako jokabide neurotikoaren narrazioak Melvilleren *Bartleby* du aurrekaria eta Kafka maisua, askotan esan den kontua da. Baina iragan mende hasierako literatura hark badu Melville ez den beste aurrekari bat, gaur gutxi aipatzen dena, baina berebiziko garrantzia duena orduko literatura aztertzeko eta, geurera ekarriz, Hermann Ungar ulertzeko. Dostoievskiz ari naiz. Hermann Ungarren mundua, Dostoievskirena bezalaxe, unibertso gaixoa da, labainkorrare; existentziaren zangetan gelditu diren pertsonaia oinazetsuez beteak; erlijioaren zama azarazodun bihurtu dituenak eta sexu-harremanen zailtasunak —edo ezinak— auto-estimurik gabe utzitakoak. Ungarren pertsonaiak ezin egunerokoagoak dira: maisua, ostalaria, pentsionista, banku bateko langilea, saltzailea... Baina ezin egunerokoagoak izan arren, jende normalak normal-edo bizitzen dituen hainbat kontu —erlijioa, sexua, autoritatea, erantzukizuna, kulpak...— neurritz kanpo bizitzeak neurritz kanpoko arazodun bihurtzen ditu.

Baina ohar bat egin nahi nuke aurrera baino lehen: orain arteko esplikazioak abstraktuak izan badira ere, Ungarren testuko fraseologian ez dago abstrakzioetarako joerarik, jokabide neurotikoen narrazioak konkrezio sekulakoa lortzen du Ungarren lanetan. Ez dago joera alegorikorik, Kafkaren edo Musilen hainbat testutan bezala; ez dago Hermann Broch-en intelektualismorik; ez dago Rilkeren lirikotasunik. Dena da narrazio ezin errealistagoa Ungarreanean. Objektibista da, pintore espressionistak bezala. Ezinezkoa da mundu kaotiko honetatik ihes egitea, eta ezintasun horrek fisikoki sufritzen den oinaze erreala dakarrenez, irakurleari ia fisikoak diren sentsazio errealak eraginez lortzen du Ungarrek beti liluratu nauen maisutasun narratzailea. Jainkoak nekez eman liezaioke irtenbiderik kaosari, berak sortua baita kaosa. Moralitateak ez du zentzurik gizakia otso zaionean gizakiari. Ez dago inolako

kanonik, ez etikorik ez politikorik, boterearen hari groteskoenak —eguneroko harremanetan funtzionatzen duten horietan— mundua lotua baitaude.

Mundu kaotikotik ihes egiteko modurik ez dagoela esan zigun Ungarrek bere narrazio guztietan. Lehendabiziko mundu-gerra ezaguturik, ezin zuen imajinatu bigarrena hain hurbil zegoenik. Hala ere, lehenak utzitako abaildura hain zen erabatekoa, non inork bigarrena iragarri izan balu erotzat hartuko zuket.

Kaosa nagusi denean, zer egin behar du irakasle batek, bezeroen dirua —eta ziurtasuna— gordetzea beste lanik ez duen Polster —*Elbarriak* nobelako pertsonaia nagusia— bezalako pertsonaia batek? Zer *Nerabeak eta hiltzaileak* titulupean jasotako bi ipuinetako pertsonaiek? Zer, *Klasea* nobelan kaosari kontra egitea lanbide duen Josef Blau irakasleak? Erori da inperio austriar-hungariarra, kaosaren izuak bizi ditu bertako batasun lasaigarriaren onurak bizi izan zituzten hiritarrek. Kaosak izua dakar. Kaosa bera da izua. Lehen, inperioarekin, mundua ondo eginga zegoen. Orain, inperiorik gabe, gizabanakoak ez dauka bere ordeaz erabakiak har ditzakeen inor.

Elbarriak izeneko nobelan Polzer bankariaren lagun batek, Sonntagerizainak, zera dio fartsa grotesko baten itxura guztiak dituen nobelaren azken aldean:

“Hilotzak dauden toki batean edertasuna ez da miresgarri”.

Erabateko eszeptizismo baten bidetik eraikitako giza talde hurbil bezain kilikagarria da Ungarrek arnasa eman zien pertsonaien galeria. Eszeptizismoa nagusitu da *ospe* sekulakoa zuen iraganarekiko; hezurretarainoko izua zaio batere osperik gabeko etorkizunari: horra Ungarren nahasgaiak, horra, labur esateko, Ungarren istorioen muin narratzailea. Erori zaie halako segurtasun bat ematen zien mundu zaharra, eta ez dakite zer ekarriko dien berriak. Berritort: inork ez zuen imajinatu ere egiten bigarren mundu-gerra bat posible zitekeenik. *Elbarriak* nobelako Polzer bankariak mundu ekonomiko eta sozial ondo egin baten galdumina bizi du. *Klasea* nobelako Josef Blau irakasleak, aldiz, arau-sistema

orekatu eta ulerterraz baten gidaritzapean bizi zen gizarte iragan hura berritu nahi luke: beldurra dio desorekaren eta kaosaren legea beste deus eskain ez dezakeen etorkizunari. Bere esku daukan hemezortzi mutilez osatutako klasea eraso etengabea zaio, esaten eta egiten diotenagatik baino, esaten eta egiten ez diotenagatik, eta Josef Blauk esaten eta egiten dizkiotela imajinatzen dituen guztiengatik.

Iragan handi bat erori izanak dakarren segurtasun-falta; etorkizunarekiko izua; orainaren manifestazio guztiek eragiten duten susmoa: hiru elementuok josten dute Ungarren narrazioetako teloi-atzea.

Hermann Ungar, bere kolore beltzeko narrazioekin, laiktasunaren autonomia erreibindikatzeko ari da giza alor guztietarako: politikan zein sentimendu barneratuenen joan-etorrian, balore sozialei dagokienez zein estruktura morala eraikitzeko Sisifo-lan izugarrian, gizakiak ez dauka bere erabaki autonomoen handitasuna eta ahulezia besterik. Predestinatuak gaude, ez dago zer eginik. Ez litzateke lorpen kaskarra orainean dezakegun gutxian —eguneroko bizitzan— kulpia eta erantzukizuna bezalako kontzeptuetatik libratuko gaituen bizimodu askeago bat lortzea. *Klasea* nobelako Josef Blau maisua gelako hemezortzi ikasleak noiz matxinatuko zaizkion bizi da. Ikasleak, berriz, maisua noiz ahul agertuko zain daude. Izu hori bizi duen batek nekez eskain diezaieke ikasleei segurtasun-falta eta mundu sostengurik gabe baten imajina besterik. Inguratzen gaituen oro arerio badugu, arerioaren nondik norakoak asmatzen erretzen dugu indar guztia. Josef Blau maisuak ere uste du diziplina —ordena— gordetzea duela betebeharr nagusi. Hala ez balitz, bera litzateke lehendabiziko kaltetua, hemezortzi ikasleek hondoratuko luketen lehendabiziko sistema-gizona. Hona, bada, irakasbidea: sistemak erre duen pertsona bilakatzen da sistemaren habe eta oinarri nagusi. Horrek guztiak Laub ikasle gaztearen suizidioa probokatzen duela? Karpel ikaslea amildegi moralera bultzatzen duela? Berdin dio:

“Haiek ez zuten ulertzen, Josef Blauk ulertzen zuen modura, ez zegoela salbamenik, ezta iheserako aukerarik ere. Ez zegoela irtenbiderik, ez zegoela ezer mundua bere bide makurretatik aterako zuenik. Baina ez zegoela, ezta ere, begiak itxita bizitzetik”.

Guretzat dena bukatzen denean ere, ez da dena gurekin bukatzen. Guk gaizki egindakoa —gure errua— hemen gelditzen da, gure erantzukizun horixe da munduan uzten dugun ondarea. Agian, hor bilatu beharko litzateke, inon bilatzekotan, sistema moral laiko baten sostengu nagusia.

Kulpa, predestinazioa, erantzukizuna, gizakion azken destinoa... Gizakiaren hilezkortasunean sinetsiko bagenu, gizakiaren errua litzateke hilezkorra, pentsamendu judutarraren arabera.

Erru horren zamak bizi du Hermann Ungar, Dostoieskik ere bizi izan zuen erru-bizipenari askoz ere jantzi laikoagoa emanez.

Egutegian azaltzen den emakumearen eszenak guztiz arrunta dirudi. Emakume ilehoriak badaiki Erromako lagunek barre egiten dutela bere apartamentua ikusterakoan, hiri historikoan, eta urteetan zehar, kutsu austriarra duen etxebizitza mantentzea lortu duelako. Egutegiko emakume ilehoria hunkitu egiten da lagunaren barrekin. Argazkian, egunkaria irakurtzen ari da bere etxebizitzako sukaldean, lapiko eta edalontzi artean. Dena bere lekuan horraino, bi nabardura kenduta: emakumea italieraz irakurtzen ari bada ere, ez du italiar itxurarik, eta esku artean duen egunkariak mezu ezkutu bat darama: buruz behera dago. Ingeborg Bachmann, egutegiko emakumea, alderantziz ari da irakurtzen egunkaria eta, horrekin, akaso, emakume arrunta ez zela esaten ari zaigu etxeko sukaldean dudana *literatur kalender*-eko (literatur egutegia) argazkitik.

Izan ere, Ingeborg Bachmann (Klagenfurt 1926-Erroma 1973) poeta, narratzaile eta saiogile austriarraren bizitzaren eta obraren inguruan mitoa sortu da dagoeneko, beren bizitza amaiairazi zuten idazleekin gertatu izan den bezalaxe: Sylvia Plath eta Alejandra Pizarnik, esaterako, eta haienaren aurretik dagoen Virginia Woolfen heriotza dramatikoa.

Antonin Artaud bezala, mito bilakatu dira gauaren eta gizon-emakumeon argi-ilunetan barrena ibilitako poetak eta idazleak direlako. Sua egiten zuten hitzekin, eta barrutik desegin arte egin zioten negar bizitzari. Alejandra Pizarnik¹ poeta zirragarriak gustuko zuen eguzkia erailteza, gau beltzaren eta hitzaren erreinua ezartzeko. Sylvia Plath amerikarrak aske izan nahi zuen, ekialdera bidaiatu, gauak bakardadean zeharkatu. Virginia Woolfek amaieraraino borrokatu zuen, "onaritzen badugu bakardadean izan behar dugula aske eta bakardadean ausartu behar dugula idazten, orduan lortuko dugu idatzi ahal izan ez

zuten emakume guztiak gure barruan berpiztea”², utzi zuen idatzita. Ingeborg Bachmann-en ardurak handiak hizkuntzaren ikerketa, maitasunaren mesfidantza eta suntsipenera zihoan gizartea izan ziren: “Nire garrasiak, galdu egiten ditut/ beste batek bere dirua/ galtzen duen bezala”, idatzi zuen *Ich weiss keine bessere Welt*³ (Ez dut mundu hoberik ezagutzen) liburuan. Izan ere, mundua-bizitza-idazketaren arteko harremana islatzen baitu Bachmannen obra guztiak.

XIX. eta XX. mendeen artean bizi izan ziren sortzaileok zuzenean hitz egiten digute, literaturak ordura arte erakusten zuen gizonezkoen identitatea, pieza bakarrekoa, hautsi zutelako. Irudikari, imajinario, femeninoa literaturara iristen da, aurretik inoiz azaldu ez ziren istorio eta egoerekin, betiko gelditzeko. Ordurako hautsia zegoen identitatearen iceberg-aren punta dira idazleok, eta horretan joan zitzairen bizitza. Dena dela, beren buruaz beste egin zutela egia den arren, ahalegin bat eskatu behar zaio irakurleari, hitzak mitotik askatzeko, idazleonek hitzek hasieratik bukaeraraino heriotza tragikoaren lauso itsugarria inguruan izan ez dezaten. Azken finean, dagoeneko adjektibo bilakatu diren suizida, emakume, literatura femenino eta gisakoei esker, sailkapen-hitzeetatik areago joatea lortu baitu haien obra guztiak.

Egutegiko orrialdeetan atzera

Ingeborg Bachmannek Klagenfurten (Austria) eman zuen haurtzaroa, bertako eskola bateko zuzendari zen aitarekin eta amarekin. Viena egin zituen filologia eta filosofia germaniarrean ikasketak. Bertan idatzi zuen pertsonalki ezagutu zuen Martin Heideggerri buruzko doktore tesia. Handik denbora gutxira, filosofo alemaniarrek nazionalismoarekiko gertutasuna erakutsi zuenean, amaitu zen bien arteko adiskidetasuna. Izan ere, ordurako, haurtzaroan ireki zitzaion zauria azalean itsatsita zeraman Bachmannek. Hamabi urte zituela amaitu zitzaion haurtzaro zoriontsua, Hitlerren soldaduak Klagenfurt-en sartu ziren egunean: “Hain mingarri izan zen egun hartan bertan hasi zirela nire oroimenak, min hori goizegi hasi zelako”, aitortu zuen idazleak. “Ez

dut min hori inoiz hain modu sakonean sentitu. Heriotzarekiko lehenengo angustien hasiera izan zen”⁴.

Jakin-minagatik idazten hasi bazen ere, literatura behar bilakatu zitzaion berehala Bachmanni. Idatzi gabe bizi ezin zelako idazten zuen. Askok sufritu zuen hala ere hastapenetan, emakume idazle askori gertatu zitzaion bezala, inork ez zuelako bere lana serio hartzen. Sariak iritsi ziren, elkarrizketak egiten zizkioten, baina ez zuen errekonozimendu irrikatua lortzen. Garaiko poeta gazteek bezala, sinbolismoa utzi eta modernismoaren ildoak hartzen du: ez dute arima ostrukaren antzera erakutsi nahi, aitzitik, nahiago dute eguzkitara atera eta hezur-pila bezala erakutsi. Esaldi laburreko poemak, egunerokotasunaren misterioa harilkatzen joateko.

Ez zen zorioneko emakumea izan maitasunean, Paul Celan eta Max Frisch idazleekin izandako harremanek ez zuten amaiera onik izan. 1953an argitaratutako *Die gestundete Zeit* (Geroko utzitako denbora), zeinean etsita dagoen ni poetikoa kexu agertzen den suntsituta dagoen munduaren aurrean, 1947ko idazle-taldearen saria jaso zuen. Hala ere, kritikaren onespenez zabala handik hiru urtera lortu zuen *Anrufung des grössen Bären* (Hartz nagusiari eskatzea) liburuarekin. Geroztik, emakume eta idazle zela aldarrikatzen zuen austriarrari ezin dio inork ukatu, poesia garaikideko izen handien lekua lortu izana.

Italian, Erroman, idatzi zuen *Hartz nagusiari eskatzea* poema-liburu osoa. Lehenengo sariak eta elkarrizketek aztoratu egin zuten eta, horren ondorioz, iparralde hotz eta arrotzetik mediterraneora egindako bidaiak Bachmannen imaginarioa aldatu egin zuen. “Erromako gaueko imajina” poeman maitasunarekiko apustua egiten du idazleak: “Inork ez du jauzi egiten./ Hain da ziurra maitasunak bakarrik lortzen duela gorena/ eta batak eta besteak”.

Ezagutza eta nostalgia

Hartz nagusia aitzakia hartzen duen poema-liburuan, heterogeneoa da Ingeborg Bachmannen irudikaria. Mitoak, itzuli ezin diren hitz joko-

ak, Bibliaren elementuak, ahozko tradizio herrikoia, mesfidantza jaioterriko baloreekiko, metaforak sortzeko beti erabili duen iturriarekin batera: naturarekin alegia. Poema gehienen tonu ilun eta arrazionaltasunaren aurrean, Italiari eskainitako argitsuak eta alaiak daude. Guztietan, baina, esan daitekeenaren eta hitzen mugarekiko —Wittgensteinen hizkuntzaren teoria—, ardura.

Letzte Gedichte (Azken poemak) 1956tik 1967ra idatzitako poemak biltzen dituen liburuan, berriz, argi geldituko dira bere lanaren bi ardatz nagusiak: ezagutza eta nostalgia. “Poesia hau zorrotza izango da ezagutzan/ eta samina nostalgian, gizon-emakumeon ametsa/ iritsi ahal izateko...”, adierazi zuen Ingeborg Bachmannek Frankfurtoko Unibertsitatean emandako hitzaldian (1993: 29-30). Ezagutza, mundua ulertzeko indar salbatzailea; eta nostalgia, emozioen ardatza. Horrela bada, garai berri bati emango dio hasiera Bachmannek poesian. Ez zen haren poesiarekiko egarria agortu, baina, zorrotz jokatu zuen bere buruarekin: “Poemak idazteari utzi egin diot, ikusi dudanean haiek idazten bane kiela, haiekiko beharrik ez izan arren”, aitortu zuen urte haietan.

Tarte horretan, beraz, ipuin-liburua (*Hogeitamargarren urtea*, *Hiru bidexka lakurantz*), irratirako antzerkia (*Manhattango jainko ona*), eta hainbat saiakera idatzi zituen (besteak beste, *Literatura utopia* bezala). 1964. urte tik aurrera hasi zen “Heriotza-formak” izeneko trilogia idazten: *Franza kasua*, *Fanny Goldmanni requiem-a* eta *Malina*. Oso prosa subjektiboa lortu zuen, barruko eta kanpoko mugak hausten dituen, arimaren gune ezkutu eta ilunetara iritsiz. Gerra osteko Vieran eta Austrian kokaturiko trilogian, nazismoaren krimenak jarraitu egiten zuela adierazi nahi izan zuen, kanpotik eta begien bistatik norberaren barrualdera igaro zela.

Animalia handia

Juan Gelman poetak “*Éticas*” artikuluan adierazi zuen bezala, “Ingeborg Bachmannek inoiz hitz egin ezin izan zutenei hitza ematea lortu du (...). Bere narratiba, gizonak mendean hartutako gizarte batean gailentzen diren heriotza-formagatik moztutako emakumearen subjektu-

botasunean barneratzen da astiro". Bachmannen obra guztiak, finean, besteen mina azaleratzen du, ahanzturan gera ez dadin. Ez alperrik, 1955. urtean irratian eman zuen Simone Weil pentsalari frantsesari buruzko saiakeran, "animalia handia" hitzak erabili zituen Bachmannek, ideologiaren inposatze totalitarioa eta iragan faxista ahanzteaz hitz egite-rakoan.

Urteekin, ordea, eta arestian aipatu den bezala, maitasunean eta munduan zuen konfiantza galtzen joan zen poeta. Haren testu garrantz eta mingarrienak *Ich weiss keine bessere Welt* (Ez dut mundu hoberik ezagutzen) 2000. urtean Münchenen kaleratu zen hil osteko poema-liburuan biltzen dira. Ordura arte Bachmannen argitaratu gabeko poemen artean, honakoa: "Bart amesten nuen/ norbaitek eskua irakurtzen zidala/ eten bat zegoen, eta bi, hiru/ heriotza ikusi nituen/ heriotza guztiak/.

"Izara izoztuak" poema "Nicht Dich habe ich verloren sondern die Welt" ("Ez zaitut zu galdu, mundua baizik") Bachmannen aipuekin hasi nuen orain urte batzuk. Kirmen Uribek ere aipu berarekin ematen dio hasiera *Zaharregia, txikiegia agian* liburuko hitzaurreari. Galtzen ari ginen eta garen munduaren zuloak ehuntzen saiatu zen Ingeborg Bachmann, baina amore eman zuen azkenean. *Malina* nobelan azaltzen den aurkezpen testuak iragarle dirudi: "Zutik nago, tente, nire aurpegia distiratsu dago labe beroaren goriarengatik. Askotan erre ditut bertan, gauez, paper-zatiak, ez idatzitako zerbait erretzeko, baizik, azkeneko, azken-azkeneko zigarroa pizteagatik".

Egutegiko emakumeak bazekien, Gaspar Stampa gogoko zuen XVI. mendeko poeta italiarra bezalaxe, bizitzaren suarekin eta grinarekin bizi nahi zuela, zorigaitza eta hondamendia sentitu gabe. "Askotan galdetu didate zergatik jarraitzen dudan sinesten mundu utopiko batean, non denok izango garen bihotz onekoak (...). Nik ez dut materialismoan, munstro bilakatu den kontsumo-gizartean sinesten (...). Egunen batean iritsiko den egun horretan sinesten dut. Eta iritsiko da. Ziur aski ez da iritsiko, beti suntsitu digutelako egun hori, betidanik, milaka urtetik. Ez da iritsiko, baina horretan sinesten dut. Sinetsiko ez banu, ezingo

nukeelako gehiago idatzi”⁶, aitortu zuen Bachmannek egungoa dirudien elkarrizketa batean. Eta iritsiko ez den paradisuan sinesten harapatu zuen heriotzak. Egutegiko emakumeak ba ote zekien, argazkia egin ziotenean, egunero erretzen zituen 60 *gitane* haietako batekin loak hartuta geldituko zela.

BIBLIOGRAFIA

Bachmann, Ingeborg

- 1986. *Malina*, Alfaguara, Madrid.
- 1991. *El tiempo postergado (Die gestundete Zeit)*, Cátedra, Madrid.
- 1993. *Letteratura come utopia*, Adelphi, Milán.
- 1999. *Il trentesimo anno (Das dreissigste Jahr)*, Feltrinelli, Milán.
- 1999. *Ultimos poemas (Letzte Gedichte)*, Hiperión, Madrid.
- 2001. *Invocación a la Osa Mayor (Anrufung des grössen Bären)*, Hiperión, Madrid.
- 2001. *El caso Franza- Réquiem por Fanny Goldman (Der Fall Franza-Requiem für Fanny Goldmann)*, Akal Literaria, Madrid.
- 2003. *No sé de ningún mundo mejor (Ich weiss keine bessere Welt)*, Hiperión, Madrid.

OHARRAK

- 1.- Pizamik, Alejandra (2003), *Diarios*, Lumen, Barcelona.
- 2.- Woolf, Virginia (1997) *Una habitación propia*, Seix Barral, Barcelona.
- 3.- Ikus hemendik aurrera bibliografia.
- 4.- Cecilia Draymüller, "Desencanto y esperanza" (1999), *Ultimos poemas*, Hiperión, Madrid.
- 5.- Gelman, Juan (2001) *Éticas*, Diario Página 12, Argentina.
- 6.- Ibidem.

Pertsonaia alemaniar baten nortasuna eta bere lan literarioa aurkezteko orri batzuk dira hauek. Nik, hasiera txiki bat bakarrik eman nahi nuke, gero, baten batek emakume hau gehiago ezagutuz eta aztertuz, euskal munduan eta euskal literaturan zabal dezan; aberasgarria izango litzakeelakoan bainago.

I. Edith Steinen nortasuna

1. Nor da emakume handi hau?

Emakume handia dela esan dugu arestian baina euskal *Hiztegi Entziklopedikoan* (Usurbil, 1993) ez da bere aipamenik ere egiten. Nahiz eta horrelako emakume oso gutxi egon XX. mendean, nahiz eta hizkuntza ezberdinetako hiztegieta sartuta egon bere izena, ia-ia ezezaguna zaigu!

Bere garaiko filosofo handienekin ibili zen: Husserl-en kide izan zen, fenomenologiaren sortzailearen ikasle eta gero bere laguntzaile, Heidegger-en kide, etab.; filosofiako lan handiak egindakoa..., baita antropologi eta pedagogi lanak ere; Europako ikastetxe batzuetan hizlari; emakumeen mugimenduetan eragile; politiko-talde berri eta demokratiko baten partaide eta eragile; pentsamendu modernoaren eta kristau-espiritualtasunaren artean zubia ezartzen ageri zaiguna; bere bizia Hitler-en Auschwitz-eko holokausto-lekuan eman zuena. Azkenean Aita Santuak Europako Zaindari deklaratu du beste emakume birekin batera (1999).

Baina, euskaraz zer dago idatzita emakume honetaz? Ez askorik, eta idatzitakoa batez ere *Karmel* aldizkarian argitaratua izan da.

Edith Doatsu edo Beato izendatu zuten urtean (1987-V-1) *Karmel* aldizkarian hiru artikulua agertu ziren: J. Urkiza, *Argi-zentzun-egia* bila. Europako emakume bat Euskadira ere: *Edith Stein*, *Karmel*, 1987-2, 3-5; L. Akesolo, *Husserl-en filosofiatik santutasunera: Edith Stein*, *Karmel*, 1987-

2, 6-24; A. Olea, *Edith Stein*, Karmel, 1987-2, 62-75.

Eta *Santu* deklaratu zuten urtean (1998-X-11) artikuluko gehiago argitaratu ziren *Karmel* aldizkarian: J. Urkiza, *Edith Stein: XX. mendeko emakume imitagarria: Filosofia bideetan egiaren bila ibili, eta maitasunean aurkitu zuena*, Karmel, 1998-3, 3-5; J. U., P. U., J. M^a A., *Edith Steinen kronologia*, Karmel, 1998-3, 6-13; Lurdes Villar, *Edith Stein XX. mendeko filosofian*, Karmel, 1998-3, 14-30; Julen Urkiza, *Edith Stein: idazlea. Bere idazlanen bibliografia orokorra*, Karmel, 1998-3, 31-40; Juan M^a Arrizabalaga, *Edith Steinen holokaustoa*, Karmel, 1998-3, 41-63; Luis Baraiazarra, *Edith Stein: zientzi bidetik egiaren maitasunera. Bere bizitza*, Karmel, 1998-3, 92-129; J. U. P.U., *Edith Steinen testamentua*, Karmel, 1998-3, 130-134; Patxi Uribarren, *Espirituzko biziera E. Steinen ikuspegiz*, Karmel, 1998-3, 135-142; *Edith Stein, Bizitzako bateltxoa (Leman)*, Karmel, 1998-3, 170-171 (Olerkia, eusk.: L. Baraiazarra ^ J. Urkiza); *Edith Stein, Gau santua, 1936ko abenduaren 24aren oroimenez*, Karmel, 1998-3, 172-175 (Olerkia, eusk.: L. Baraiazarra J. Urkiza); *Edith Stein, Gurutzearen oinetan zurekin zutik*. Mariari, Karmel, 1998-3, 176-177 (Olerkia, eusk.: L. Baraiazarra J. Urkiza); Arantza Gonzalez, *Edith Steinen pentsamendu filosofikoa*, Karmel, 1998-4, 38-48; J. Urkiza, P. Uribarren, *Edith Stein: Auschwitz-etik altaretara. Kanonizazioaren kronika*, Karmel, 1998-4, 75-102.

2. Bizitzako datu batzuk.

1891ean, Breslau hirian, orduan Alemania, gaur egun Polonia den hirian jaio zen familia judutar batean.

1913an, Husserl irakasle-lanetan ari zen Göttingen-go unibertsitatean jarraitu zuen ikasten Edithek.

Fenomenologiak hautsi egin zizkion bere aurreiritzi razionalistak. Max Scheler-ekin egin zuen topo: sinismenaren mundua jartzen zaio aurrez aurre.

1915ean, bere tesia gertatzen zegoela, Gurutze Gorriko erizain bolondres egin zen Austriako Mährisch-Weißkirchen-go ospitalean.

1916an, *Enpatari* buruzko doktore-tesia Friburg-en aurkeztu zuen, notarik handiena lortuz.

1919an, politika-jardueran aritu zen Weimar-en errepublika ezarri zela eta. Göttingen eta Kiel-en unibertsitateko katedra lortzeko saioa egin zuen, baina emakumea zelako ez zuen lortu.

1921ean, Hedwid Conrad-Martius bere adiskidearen etxean, Bad-Bergzabern-en zegoela, Avilako Teresaren *Autobiografia* irakurri zuen eta katoliko egiteko erabakia hartu.

1922-1924 artean, filosofiako lanak argitaratzen zituen Husserl-en “Jahrbuch für Philosophie und phänomenologische Forschung” zeritzon urtekarian.

1923an, apiriletik aurrera, literatura eta alemana irakatsi zituen domingotarren Santa Magdalena ikastetxean, Speyer-en.

1932an, antropologia eta pedagogiako irakasle-lanetarako dei egin zioten Münster-erko Pedagogi Zientifikoaren Institutu Alemaniarretik.

1934an, Hitler-ek agintaritza eskuratzeak amaiera ekarri zion Edithen irakaskuntzako lanari.

1934ko apirilaren 15ean, Karmeldarren abitua jantzi zuen Teresa Benedikta Gurutzekoa izena hartuz.

1936an, *Endliches und ewiges Sein* (Izaki mugatua eta izaki mugagabea) lan handia burutu zuen.

1938ko apirilaren 10ean, plebiszitu-eguna izan zen. Edith Stein, Hitler-i ezezko botoa ematearen alde agertu zan komentuan.

Abenduaren 31n Holandako Echt-eko Karmeldarretara aldatu zen.

1940an, Hitler-en armadak mendeen hartu zuen Holanda.

1942ko abuztuaren 7an, lehen orduetan, Auschwitz-eko kontzentrazio-esparrura eraman zuten Edith. Abuztuaren 9an hil zuten gaskameran.

Orain, Alemanian, bere idazlan guztiak berriro argitaratzen dabilta, 25 tomotan argitaratuko dira laster, 11 kalean daude. Hemen ezin ditugu bere idazlan guztiak aipatu, asko baitira. Bere liburuak eta milaka eta milaka orrialdeko eskuizkribuak ezagutzen ditut eta esan nezake benetan handia dela bere idazlan-kopurua.

Edithek idatzitakoa lau ataletan banandu liteke: 1. Idazlan autobiografikoak eta gutunak (679). 2. Idazlan filosofikoak (bere lan gehienak filosofikoak dira). 3. Idazlan espiritualak eta literarioak, Karmeldarren komentuan idatzitakoak. 4. Itzulpen-lan handiak (latinetik, grekotik, ingelesetik, frantsesetik, gaztelaniatik).

3. Bere nortasunaren balore indartsuak.

Bere bizitza eta liburuak aztertuta, emakume honengan ikusten ditudan baloreak azpimarratu nahi nituzke, bere izaeraren ikuspuntu azpimarragarrienak batez ere.

a. Emakume jatorra. Lehenengo eta behin, emakume izatearen kontzientzia izan zuen; eta hortik bere bokazioa: emakume izan eta izate hori sakon eta ondorio guztiekin bizi. Emakume argi eta osoa dugu bera, aparteko inteligentziaz jantzia, emakume zentzuduna. Eta eskolan ere horretan ahalegintzen zen: emakume osoaren heziera eta prestakuntza nahi zituen eman; eta bere ikasleak munduko bizitzarako, baita mundu profesionalerako ere, prestatzen ahalegintzen zen. Berak oso argi ikusten zuen: *“Ez dago profesiorik emakume batek bete ez lezakeenik. Ez dago emakumerik soilik emakume denik; bakoitzak du bere izate eta lan-gaitasun berezia, gizonena bezain ona, eta izate horretaz baliaturik emakumeak profesio guztietarako du gaitasuna: arte, zientzia, teknika eta beste eratarako”* (1930 ean Salzburgo-ko hitzaldian).

b. Filosofoa eta jarduera zientifikoa. Bada alor bat Edithengan nabarmentzen dena: egiaren bila, errealitatea ezagutzeko egindako ahalegina. Edith berez eta barru-barrutik filosofoa da, ez bakarrik profesionaltasunagatik, ez eta gauzak jakiteagatik, egiaren jakinmina izan zuelako baino. Baina zer egia? Hasieran arrazionalismoaren bidea jo zuen, gero fenomenologiaren bidea; hogeita hamargarren urtera arte. Baina azkenean, egia, egia sakona, izakiaren oinarria den Kristoren gurutzean, maitasunean aurkituko du.

c. Fedea. Filosofiazko bide-bilatze horren ondoren, M. Scheler bezalako pertsona batzuekin topo egin ondoren, adiskide min batzuen familie-

tan gertatutako gertakari batzuen ondoren, esperientzia pertsonal batzuek bizituta, eta azkenean, Santa Teresaren aparteko autobiografia hableharrez topo eginda, argia piztu zitzaion: fedea, Jesu Kristorengan maitasunez betea eta bizitu ere halaxe bizitu zuen sakonki Eliza Katolikoaren barruan. 30 urte zituen kristau-bizitza hori sakonki bizitzen hasi zenean. Fede bizi horrekin, dena beste ikuspegi batez ikusten zuen, feminismoaren aurrean zuen jarrera bera ere sakonago bihurtu zen, emakumezkoak lehen baino duintasun eta zentzu handiagoz ikusten hasi zen.

d. Emakume konpromisoduna. Edithen nortasunaren ezaugarrietako bat, pertsona *konpromisoduna* izatea izan zen, sentitzen zuen deiarri zintzo erantzunez. Egiten duen guztian emakume oso azaltzen da eta erantzunkizun handiz hartzen ditu konpromisoak beren ondorio guztiekin. Hori argi eta garbi ikusten da bere bizitzako aro desberdinetan eta gizarteak izan zituen une zailetan.

Bere gaztaroan, feminismoarekin konprometitu zen eta emakumezkoen eskubideen aldeko borrokan gogor lan egin zuen... Lehen mundu-gerran, Gurutze Gorriaren erizain-laguntzaile moduan izena eman zuen zerrendan, guda-lekuetako ospitaleetan lan egiteko. Halaber, Alderdi Demokratikoko partaide egin zen emakumezkoak gizartean parte-hartzera bultzatzeko, etab.

e. Bere bizitza eman zuen. Edithek, bere burua besteen alde eskaintzeko ahalmen handia zuen. Ikasteari gogor ekin zion, irakasteari gogor emana bizi izan zen; fedearen argia aurkitu zuenean, fedeari erabat emana bizi izan zen: bere etorkizuna Jainkoaren eskuetan utzi zuen konfiantza osoz, alaba baten moduan utzi zuen bere bizitza Aita Jainkoaren eskuetan. Koloniako Karmeldarretan, nazien erasoak argiago egin zirenean, Edithek, txartel bat idatzi zion bere buruzagiari (1939-III-26) bere bizia bakearen eta zuzentasunaren alde emateko: "*Mesedez, baimena eskatzen dizut, Jesusen Bihotzari nire burua benetako bakearen alde oparitzat eskaintzeko: Antikristoaren boterea amil dadin, eta ahal bada, beste mundu-gerrarik gabe, izakien zuzentasuna berri dadin. Gaur bertan egin nahiko nuke, honez gero hamabiak baitira. Badakit ezer ez naizela, baina Jesusek hori*

nahi du eta gaurko egunean beste askori deituko die horretarakoxe". Antikristo Hitler zen. Edithek bere izaera osoa, bere bizia bihotz-zabaltasunez eman zuen. Hiltzera eramanean zutenean hala esan zuen berak: "Mundua kontra-jartze askorekin bizi da. Azkenean kontraste horietatik ezer ez da geldituko. Maitasun handia bakarrik geldituko da!"

II. Edith Stein eta literatura. Ohar batzuk.

Ikus dezagun datozen lerroetan, oso laburki bada ere, literaturak bere bizitzan izan zuen garrantzia, bere produkzio literarioa eta bere jarrera kritikoa.

1. Literatura bere bizitzan.

Bere gaztaroan bi zaletasun izan zituen eta arimatik irtenak biak ere: filosofia eta literatura. Beraz, ez da harritzekoa, oso ume zen garaitik, artean irakurtzen ez zekien garaitik, lau eta bost urterekin buruz ikasi zituen olerkiak; berak esaten digu hori: hainbeste talentu ez zuen bere ahizpa nagusienak, ikasi ahal izateko, errepikatu eta errepikatu egiten zituen olerkiak ozenki eta horrek Edith txikiari berehala ikasteko aukera eskaini zion; horrela, Friedrich von Schiller eta Ludwig Uhland-en ba-ladak ezagutu zituen eta bost urte zituela jada, 64 lerro dituen Uhland-en *Bertran de Born* buruz esaten zuen.

Bitxia da, halaber, bera baino ondotoxoz zaharragoa zen bere neba Paulekin egiten zituen jokoez kontatzen duena: "*Bera eta ni dibertitzeko, bere literaturaren historia handiko irudiak erakusten zizkidan eta irudi-oinak estali egiten zizkidan zer esan nahi zuten galdetuz, nahiz eta nik artean irakurtzen ez jakin*".

Gaztetan, literatur solasaldiak antolatzen zirenean, bera izan ohi zen protagonistetako bat. Klasikoak asko irakurri zituen. Literatura sakonki aztertu zuen, eta ez alemaniarra bakarrik, kontinente zaharrekoa bai-zik, nola klasikoa hala modernoa.

Berak aitortu zuen geroago, irakurri zuen literatura ona, bizitza oso-rako altxor izan zuela. Baina literatura klasikoaren irakurketarekin bate-

ra, izugarri gustatzen zitzaion antzokira joatea. Berak aitortzen du hori: *“Urte haietan, drama klasikoren baten emankizuna iragartzen zenean, nik neuk gonbidatuta sentitzen nuen neure burua. Berehalako antzerki-emankizuna niretzat, astiro-astiro hurbiltzen ari zen izar distiratsuaren antzekoa zen; emankizunerako falta ziren egunak eta orduak ere zenbatu egiten nituen. Zorion berrak sentitzen nuen antzokian eseri eta metalezko oihal astuna geldidageldi altxatu arte zain nengoen bitartean”*. Gauza bera gertatzen zitzaion opera klasikoei ere.

Koloniako Karmeldarretan jada monja zela, antzerkiak idatzi zituen komentu barruan antzesteko; beste batzuetan ordea, erlijio-botoak zirela eta jairen bat egiteko-edo, bere lagun Petra Brüning-i eskatzen zizkion literatura dramatikoko liburuak, zehazki 1915ean agertu zen Reinhard Johannes Sorge-ren *Metanoiete*, komentuan antzesteko nahi zuen eta.

2. Bere literatura-lanak.

Bere bizitzan zehar nagusiki filosofia lanak idatzi zituen arren, literatura-idazlantzat har daitezkeenak ere utzi zizkigun.

Esanguratsua da Martin Heidegger-ekin gertatu zitzaiona. Edmund Husserl-i omenaldia egiteko liburu bat idatzi behar zen eta kideen artean Heidegger-ek lanaren koordinazioa egin zezala deliberatu zuten. Edithek bere ekarpena egin zuen: *“Zein filosofia?”*, baina estilo erakargarriago eta bereziagoan egin zuen, Husserl eta Akinoko Tomasen arteko elkarrizketa moduan; Heideggerri ez zitzaion gustatu modu hori eta orduan Edithek, artikulua bera, filosofi diskurtsoan ohikoa zen moduan idatzi zuen. Dirudienez, Heideggerri ez zitzaizkion atsegin literatur estilok.

- Bere literatur lanen artean, autobiografi kontakizuna aipa dezakegu. Lan hori, juduen aurkako nazien propagandari aurka egiteko idatzitua zen eta jendea judutar familia baten benetako historia eskaini zion, bere familiarena, alegia.

- Koloniako Karmeldarretan monja zela, literatur lan txikiak idatzi zituen komentuko izpiritu-beharrianak estaltzeko, eliz jaiak, urtebetetzeak, etab. ospatzeko batez ere. Sei antzerki-lan labur idatzi zituen ber-

bertsotan. Bere lehenengo antzerki-lana ordea, jai-girokoa eta adar-jotzailea, bere gaztaroan idatzia da eta bere ahizpa Ernaren ezteiak zirela-eta idatzi zuen: *"Zikoina bat bi umerekin"*.

- 28 olerki ere idatzi zituen; horietako batzuek barne-bulkadaz idatzi zituen; erlijio-gaiak eta bere bizipenak dituzte.

Bere olerkiak kontzeptuzkoak dira nagusiki eta bere bertsoen indarra, beren soinu ozenean, erritmoan, etab. aurkitzen da (horiek Shiller gogorazten digute).

Ikus dezagun, adibidez, bere olerki bat, *"Bizitzako bateltxo"*: hil baino bi urte lehenago idatzia, nazismopean, bere bizitzaren etorkizuna ilun ikusten zen aldian; olerki horretan gauza interesgarriak adierazten ditu. Alde batetik tunel ilunaren esperientzia, zalantzak, etab.: *"olatuak ekaitz-bitsetan/ eta gaua beltz ilunpetan"*. Eta bestetik sekulako ziurtasuna, Jaunaren ahotza: *"Jarri eskua gogor leman"*, alemanezko testu hori oso egoki dator segurantz emateko, hitzek eurek, euren azentu, erritmo eta guzti, ematen duten indarra eta ziurtasuna: *"Halt fest die Hand am Steuer"*. Iluntasunean isilik, bai pozik ere: lemarri gogor eutsiz, *"zoaz gauez, ekaitz artean"*.

- Gainera, olerki ugari itzuli zituen, elizako ereserkiak, etab...

- Ikusten denez, bere literatur lana, laburra da eta bigarren mailako zerbait bere bizitzan. Alabaina, eskutitzak idazten bere berariazko estiloaz izandako jarduera kontuan hartzen badugu, ekarpen handi samarra da gorde dena; izan ere, jada argitaratuta daude bere 679 gutun eta gutun horietan bere bizitza pil-pilean ikusten dugu, bere alaitasun eta mingostasunekin, emakumez osatutako bere inguruneak sorrarazten dizkion kezkekin edota unibertsitate-munduan; eskutitz horietan, filosofiko eta literaturako, politikako zein gizarteko edota bilatze pertsonaleko eta erlijiozko gaiak, etab., azaleratzen dira.

3. Literatura-irakasle.

Berak bere gaztaroan literatura indar handiz bizi izan zuen arren, eta baita filosofia ikasketen aroan ere, filosofari moduan, emakume izateagatik ez zuen izan unibertsitateko katedrara iristerik, eta 1923an, Espi-

rako Domingotarren institutuan literaturako eta alemanierako irakasle izatea onartu zuen. Jarduera horretan aritu zen 1931ko martxoa arte.

Eman zituen eskoletako eskema ugari gorde izan dira, XVI. eta XIX. mendeen arteko literatura-eskemak hain zuzen ere.

Eskema horietan, erabilitako gaiak ez ezik, egileak, beren obrak, obra horietako pertsonaiak, etab., aztertzeko bere pedagogia metodoa ere ikusten dira, greziar klasikoen eta ikasgelako nesken sentiberatasunen artean erkaketak eginez. Azterketetarako erabilitako gaiak eta galderak ere azaltzen dira.

Bere eskoletan goraipamenik handienak eskaintzen dizkien idazleak hauek dira: Lessing eta bere ideia kritikoak, Goethe bere arlo desberdinetan, Grillparzer antzerkiaren ordezkari garrantzitsu moduan, Herder eta bere "ideiak", Otto Ludwig, Schiller (Maria Estuardo, Wallenstein, Messinaren andregai, etab.), Homero eta *Iliadako* mundua, Shakespeare, etab., etab.

Adibidez, klase batean, antzinako Greziako eta Germaniako emakume idealak aztertu zituen; aipamen berezia izan zuten ideal hori azaltzen zuten literatur idazlanek.

Edithek, sintesi-gaitasun eta egungotasunari antzinako ideia haiek aplikatzeko trebetasun handiak azaltzen ditu eta badaki ikasleari literatura lanaren muina sartzen, aldi berean bere mugak erakutsiz.

4. Literatur kritika.

Edithen alderdirik deigarrienetakoa, bere zentzu kritikoa zen, baina ez filosofian bakarrik, baita literaturan ere. Bere lagun eta filosofari poloniar Ingarden-ek jarritako literatura-gaiez zituen iritzia bakarrik aipatuko ditugu; beste adibide bat, berriz, Goetheren *Faust*-ez egindako bere azterketena da.

Ingarden-ekin izandako eskutitz-trukean, alemaniar eta poloniar literaturen arteko atal erkatzaileak agertzen dira. 1917ko otsailean, mundu-gerra bete-betean, Edithek erantzuten dio bera ez dela gai bi literaturen arteko erkaketa egiteko. Eta Ingarden-i duen iritziaz oharra egiten

dio, Bernhard Kellermann (1879-1951) eta Thomas Mann (1875-1955) ez direla neurri egokia alemaniar literatura epaitzeko: “*Alemaniar literaturaz iritzia eman ahal izateko, zuk hobeto ezagutu beharko zenuke Goethe, eta batez ere, berarekin harremanak izan. Aldiz, agian zentzu batean, arrazoi izan dezakezu. Gure handitasuna ez dut uste eleberrietan dagoenik, nahiz eta arte-ikuspegiaren arloan izen handiko lekua izan dezakegun. Gure handitasuna agian, gure herriaren izaera etikoan dago eta horren adierazpide egokia, tragedia bikainetan bakarrik aurki daiteke. Eta ez dut uste hemen erkaketa egiteari beldurra izan behar diogunik. Noski, Alemania berriak oraindik ez ditu topatu bere olerkariak eta arrazoi hori dela bide, antzinakoei eskua bota beharrean aurkitzen da*”.

Hamahiru urte geroago, Ingarden-ek idazlan bat bidali zion Edithi bere iritzia eman ziezaion eta bidezkoak ziren zuzenketak egin ziezazkion; orduan egin zuen berak “literatur lana” zer denaren aipamen interesgarria: “*Antzemana nuen nik zu literatura oneko idazlanez ari zinela. Bene-benetan, horixe da adierazpide-modu zeharo egokia, eta hori dela bide, oso ona litzateke, hori esanez izenburuan ohar bat idaztea. Ez dago adierazpide labur eta esanahi bakarrekorik. Literario hitza zentzu horretan erabiltzen da nagusi. Literato edo literaturgilea, literatura ona egiten duen pertsona da, mesprezagarri samarra den zentzu partikular batean hartuta, benetako artistaren eta zientzialariaren gainetik beraz (...). Niri gehien gustatuko litzaidakeen izenburua hau da: *Literatur lanaren eraikuntza*”.*

1932ko martxoan ospatu zen Goetheren heriotzaren lehen mendeurrena; hori zela eta, Edith, Espiran emakumezko irakasle katolikoei hitzaldi bat emateko gonbidatua izan zen. Berak aukeratutako gaia, hau xe izan zen: “*Natura eta naturaz gaindikoa Goetheren Fauston*”.

Bere garaiko kulturen eta pentsamenduan Goethek izandako eragiren garrantzia aipatuz hasi zen eta literatura jeinu handi haren aurrean katolikoaren arteko jarrera desberdinak aipatu zituen.

Edith ahalegindu egiten da fedearen argitan Goetheren idazlan nagusi den *Faust*-en pentsamenduaren egitura azaltzen. Obra horren alor desberdinak aztertzen ditu, beren eduki dramatikoa batez ere: han isurtzen diren izpirituen mundua, bere pertsonaien garapena eta obra horretatik

ateratzen den mezua, hainbesteko harridura sortzen zuena bestalde.

Deabruarekin egindako hitzarmena edo tratua dago Fausten leinua-
ren erdi-erdian. Ezinezkoa da hori deuseztatzea, ezen materia oro aban-
donatzea esan nahi izango bailuke. Baina irakurle modernoa ziur da,
olerkariak ere berak bezain gutxi sinetsi duela gaizkiaren pertsona-
izantzan. Mefistok berak ere iseka egiten dio, eta ez gutxi, sineste herri-
koiaren mamu zaharrari.

Goetherengan erlijio-gaiez agertzen diren jarrera desberdinen artean,
Edithek dio eginkizun arriskutsuegia dela Goetheren erlijio-ikuspegiaz
behin betiko epai zehatz eta erabakigarria ematea, izan ere, bere adie-
razpideak oso ugariak eta paradoxaz beteak baitira. Eta hala, ulermene-
aren azken giltzarria ez da olerkaria, olerkia bera baizik.

Mefistok bere askatasunaren alde helbururik gorenaren alde egin-
dako borroka, ahalegina, etab., azaldu ondoren Edithek dio, zentzu
katolikoarekin eta aurreiritzirik gabe, soil-soilik olerkietara hurbiltzen
den edonork, hor funtsezko zerbait falta dela sentituko duela, olerka-
riaren irtenbideari fedea falta zaiola, alegia.

*"Ez dagokigu guri Goethe gizona epaitzea, ez bere fedea, berarengan eta Jain-
koaren artean gizakiaren betikotasuna erabakitzen duten uneetan zer egon zen
ebaztea. Horiek, Jainkoaren ezkutukoak dira eta ezein gizaki-begi ere ezin daite-
ke sar horren sakon. Alemaniar olerkaririk handienaren olerkirik handienaren
aurrean gaude eta zera galdetzen diogu geure buruari: jar al dezakegu alema-
niar gazteriaren eskuetan eta alemaniar herriaren eskuetan idazlan handi hori
eta esan ahal dezakegu: hartu eta ulertu, utzi zuengan sartzen hor bizi den eta
hor aipatua den espirituari; hori al da eskaini diezazuekegun onena, bakarra,
beharrezkoa dena? Gurutziltzatuaren irudia ikusi eta zera diogu: Ez!"*

*Eta hezkuntzaren arlora itzulita, hala esaten die berak beste emakumezko ira-
kasle katolikoei: "Alemaniar izpirituak sortu duen gauzarik handienak, izan
behar du leku bat alemaniarren hezkuntzan eta prestakuntzan. Lehenengo egin-
kizunetakoa zera da, berarengana eramane eta izpirituaz diharduten idazlanen
aurrean errespetua piztea. Baina orduan, probatu dena eta hautatu onena! Hau
da, ez amore eman heldutasun gabeko kritikaren aurrean".*

Eta Faustoren olerkiaz bere aipamena amaitzean, non gizakiaren tragedia agertzen den eta beti ere geroz eta goragoko gurari-moduetara igoz doan, Goetheren arabera, *"gorantz garamatzan betiko emetasun misteriotsua"* aipatzen du eta hala dio Edithek: *"hala bada honek esan nahiko luke, emakumezkoen baitan indar salbatzaileak badaudela. Edertasun jaso eta gozodun pentsamendua"*.

Uste dut heldua dela, *Hegats* aldizkariak eskaintzen didan aukera paregabe hau baliatuz, Peter Handke inoiz ez dudala ulertu aitortzeko ordua. Hain zuzen ere, ulertzen ez nuelako hasi nintzen haren izena behin eta berriro aipatzen, idazle gisa plazaratu nintzen garai ez oraindik horren urrunean, kazetariak gustuko nituen idazleei buruz galdeztzen zidaten bakoitzean.

Eraztasun handia eskaintzen zidan ulertzen ez nuen idazlea hautatzeak. Ulertzen nuen idazle baten dohainak azaltzen eta laudatzen hasi behar izan banu, beldurrak jango nindukeen: ulertu nuen apur hori gaizki azaltzeko beldurrak; neure irakurketan erreparatu gabeko dohain nabarmen eta garrantzitsuak aipatu gabe uzteko beldurrak; besteek lehendik askoz zehaztasun handiagoz esandakoa hitz trakets ez lardaskatzeko beldurrak...

Handkeren irakurketetatik, aldiz, pasarte soil aski labur batzuek eragindako lilura besterik ez nuen neureganatua, eta lilura horri helduta erabat aske sentitzen nintzen Handkeri buruz nahi nuena esateko, nik esandako hori beste inork aurretik sekula esan gabea izango zelako ziurtasun osoz, gainera. Horren adibide edo froga argi eta nabarmena da *Literatur Gazeta* aldizkariaren 3. zenbakian argitaratu nuen "Peter Handke-ren 'Munduaren pisua' edo eta liburuak liburu baino gehiago direnean" artikulua ez oso gomendagarria.

1985eko azaroko data du *Literatur Gazeta*ren 3. zenbakiak. Baina kontua da lerro hauek idazten ari naizen unean, 2004ko udaberrian, Peter Handke ulertu gabe jarraitzen dudala, eta Peter Handke aipatzen hala ere; are okerrago: Peter Handkeri buruz idazten.

Jatorririk gabe, historiarik gabe, aberririk gabe

Arestian esan dut "pasarte soil aski labur batzuek eragindako lilura"

baino ez nuela neureganatu Peter Handkeren irakurketetatik. Nobeletako nahiz antzerki lanetakoak dira horietako batzuk, baina *Das Gewicht der Welt* (1979; Munduaren zama) egunkarikoak gehienak. Horien artean honako haxe iruditzen zait —libre samar euskaratuta, aurretantzean egingo ditudan aipu guztiak bezala; ez jatorrizko alemanieratik, gaztelaniazko itzulpenetik baizik— Peter Handkeri buruz zerbait esaten hasteko egokiena:

Ezin esango nuke nor naizen, arrasto txikiena ere ez daukat neure buruaz: jatorririk gabeko, historiarik gabeko, aberririk gabeko norbait naiz, eta horri atxikitzen natzaio.

Gure artean behin eta berriz entzuten eta irakurtzen dugunaren aurka egiten du Handkek, bere egunkarian 1976ko maiatzaren 2an idatzi zuen apuntetxo xume baina indartsu horretan. Esate baterako, ni neu ere, urrutirago joan gabe —barkatuko didazue *gertutasuna*, gaitz sendaezina dut—, Lizardiren *Olerkiak* bilduma hartuta joan nintzen Sautrela telebista saiorako grabatu zidaten elkarriketara, eta Lizardirekin batera Euskal Literatura, Euskal Kantagintza, Euskal Kazetaritza eta ia-ia *Euskal Gauza* osorik eraman nuela adierazi nuen, kameraren aurrean, esanez bezala banekiela ez naizela inondik ere jatorririk gabeko, historiarik gabeko, aberririk gabeko norbait.

Handkek ere badu, bistan da, jatorririk eta historiarik; aberria ere izango du, ia-ia edonork bezala, pixka bat estutuz gero. Baina larruz nor den ahaztetik hasten da idazten, barruz nor den —edo ezta hori ere: nolakoa den, nola erantzuten duen, nola funtzionatzen duen—jakiteko—edo ezta hori ere: arakatzeko, aztertzeke, ikertzeke—. Horregatik egiten du atzera, horregatik urruntzen da. Kanpotik begiratzen dio, oso kanpotik, oso atzetik, oso urrunetik, bere buruari, barruko zokondoak hobeto ikusten laguntzen dion perspektibatik.

1976ko martxoaren 18an, Jean Renoirrek 30.eko hamarkadan zuzendutako filma ikusi zuen, antza denez, Peter Handkek. Ez zuen egunkarian filmaren kritikarik egin, ez zuen ez zuzendariaren ez aktoreen lana komentatu, ezta ikusleek filmari egindako harrera ere.

Beste kontu batek bultzatu zuen arkatza egunkariko paper gainean ezartzera:

Hodei txuri txikiak iragan ziren Notre Dameren atzealdetik Jean Renoirren film zahar batean, eta nik pentsatu nuen: hortaz, hodei horiek hortik iragan ziren orain dela berrogeitik gora urte.

Ezer galtzeko beldurrik ez

Perspektiba bitxi hori, ikuspegiaren berezitasun hori, ez da, ordea, Handkerengan, forma harrigarri huts, funtsik gabeko distira, benetako barne-premia baten edo benetako barne-lilura indartsu baten ondorio baizik. Handkeri igarri egiten zaio, idazkeran, lerrorik lerro, ez duela ezer erakutsi nahi, ez dagoela egia jakin baten alde edo gezur jakin baten aurka —edo alderantziz—. Ezer galtzeko beldurrik gabe idazten duenaren ausardia aitortu behar dio, beste erremediorik gabe, etsairik gogorrenak ere Handkeri. Paradigmatikoak dira *Über die Dörfer* (1981; Herrietatik) liburutik erauzi ostean euskaratutako hitzok (euskarazko nobela batean egilearen inongo aipamenik gabe jasoak, bidenabar esanda):

Jolas ezazu jolasa. Jar ezazu are arrisku larriagoan zure lanbidea. Ez zaitez protagonista izan. Bila ezazu liskarra. Baina ez ezazu inongo xederik izan. Bigarren asmoak saihestu itzazu. Ez ezazu ezer ere isilean gorde. Izan zaitez bigun eta gogor aldi berean. Izan zaitez azeria, sar zaitez gauzetan eta arbuia ezazu garaipena. Ez ezazu behatu, ez aztertu; baina, espiritu-argitasunez, izan zaitez beti zeinuen arretarako prest. Utzi zeure buruari hunkitzen. Erakutsi itzazu zure begiak, egin keinuak besteei sakoneneraino, ardura zaitez espazioaz eta begira ezazu bakoitza bere irudian. Ez ezazu sekula erabakirik hartu gogoia sutan izan ezean. Lasai egin ezazu porrot. Batez ere, hartu denbora eta egin itzulinguak. Utzi eraman zaitzaten zuk hartu nahi ez zenituen bideei. Egin itzazu, nolabait esateko, oporrak. Entzun itzazu zuhaitz guztiak eta ur guztiak. Joan zaitez maite ez dituzun tokietara eta ez zaitez eguzkirik gabe geratu. Ahantz itzazu ahaideak, emaiezu indarra ezezagunei, makur zaitez bigarren mailako gauzen aurrean, ihes egin ezazu eta

gorde zaitez gizakien hutsean, barre egiozu patuaren dramari, arbuia ezazu ezbeharra, suntsi ezazu zeure barrearekin gatazka. Mugi zaitez zeure kolorerantz, bidezkoan egon arte eta hostoen zurrumurrua gozo egin arte. Pasa zaitez txaretatik, zelaietatik, soroetatik, basoetatik, mendietatik, herrietatik.

Poesia darion zorroztasun zientifikoa

Hortik abiatuta, hitzen ustezko edo balizko edertasunetik haratago, irudiek edo istorioek iradokitzeke izan dezaketen ahalmenetik haratago, poesia darion zorroztasun zientifiko zirraragarria aurkitzen du irakurleak Handkeren prosan, errotiko zintzotasun miragarria.

(*Das Gewicht der Welt*-ekoa da honako aipamen hau, 1976ko urriaren 5ekoa, zehazki):

“Nire orain arteko bizitza altxorra dela pentsatu, eta ibiltzean, nuigitzean, zirrararik txikiena ere erregistratzeko prest izatean, altxor horren zatien jabe egiten jarrai dezakedala”.

Urte bereko azaroan idatzia eta liburu berean jaso da, berriz, beste hau:

“Ez zait utopikoa iruditzen bizitza oso bateko pentsamenduen erregistro egokia, batasunik gabekoa, itxuraz, baina indar artistiko zirraragarrikoa. Badu ezintasun fisiko bat, ezin izango da inor inoiz saiatu hori benetan egiten. Hala eta guztiz ere, badago horretan pentsatzerik eta, geure ahalmen eta aukeren mugen barruan, horretara hurbilduko liratekeen emaitzak bilatzerik”.

Oparotastun asegarria

Handkeren ikerketa zientifiko zorrotz poesia-jario horren emaitzetako batzuk —igarriko zenidaten honezkero— oso gustukoak ditut. Arkatza eskuan hartuta irakurri nuen Handkeren liburu mordoska handi samar bat —gazelaniazko itzulpenean beti, ez baitakit alemanieraz—, 80.eko hamarkadaren erdialdeko urteetan, eta ugariak eta oso atseginak izan ziren aurkikuntzak, oso eraginkorrak, eta batzuk betiko geratu zaizkit gogoan iltzatuak.

Das Gewicht der Welt iruditzen zait niri Handkeren liburuetan betee-na, asegarriena. Gainerakoan, *Die Angst des Tormanns beim Elfmeter* (1970, Penaltia-aren aurreko atezainaren beldurra) eta *Die Stunde der wahren Empfindung* (1975, Benetako zirrararen unea) nobela aski ezagunez landa, *Begrüssung des Aufsichtsrats* (1967, Administrazio Kontseilura ongi-etorria) ipuin liburu harrigarria dut bereziki kuttun eta oroitzapen goxoko.

Hala ere, uste dut esan beharra dudala ezer eman ez didaten pasarte eta orrialde asko ere aurkitu nituela Handkeren liburuen irakurketa haietan, eta gauza bera gertatu zaidala ondorengo berrirakurketetan ere. Idazle oparoa da Handke, noiznahi egiten duzu topo hark idatzi eta zuk ezagutzen ez zenuen liburu batekin. Baina, egia osoa esateko, aspaldi agortu zitzaidan hortik zehar aurkitzen ditudan Handkeren liburu berri guztiak irakurtzeko irrika garai batean bizi eta grinatsua.

Nobelagile asko saiatu da, XX. mende osoan zehar eta XXI.aren hasieran, nobela gertakarien eta tramaren morrontzatik askatzen, nobela planteamendua-gakoa-amaiera eskema hertsigarritik ateratzen —“narratiba anti-tragikoa” sortzen, Vicente Huici Urmeneta irakaslearen hitzetan—, eta Handkek bere modu propioa probatu, jorratu eta garatu du, meritu handiz. Baina horrek ez ditu beti bere nobelak irakurketa erraz, atsegin eta gozatsuen iturri bihurtu. Tartekako distiren gozamen-a eta asperraldi aukeran luzeegiak txirikordatu zaizkit niri behintzat, neure irakurketetan.

Ulertzearen garrantzia

Azaleko kontu sinpleegi batzuetatik landa, ez dute zerikusi handirik nik enkargu honi erantzuteko idatzi ditudanek Handkeri buruz hango eta hemengo aditu eta kritikariek idatzitakoekin. Aitortua eta frogatua gelditu da, beraz, betiko, ez dudala Peter Handke inoiz ulertu, ez naitzela haren literaturaren aberastasunaren iturburuetara hurreratu ere egin; eta honezkero inoiz iristeko esperantza handirik ere ez zait gelditzen, jakina.

Ez zait axola, ordea. Irakurri eta urte batzuetara jakinarazi zidaten Franz Kafkaren *Prozesua*, *Metamorfosia*, *Gaztelua* eta abar, piperrik ulertu gabe irakurriak nituela. Eta zer? Irakurketa haiek utzi zidaten arrastoa ezin izango dit inork barrutik erauzi. Neuk ere ezin izango nuke, hala nahiko banu, horretara gogor ahaleginduagatik ere.

Olerkari alemaniarren libururik, euskaraz oso gutxi argitaratu da; baina aldizkarietan bai agertu izan dira olerkari batzuen itzulpenak, orain aurkeztzen dugun bibliografian ikus dezakegunez. Hala izanda ere, ez dira olerki asko itzuli, baina alemaniar lirikaren adierazgarri garrantzitsuak bederen badaude.

Hemen, batez ere, aldizkarietan argitaratua izan den alemaniar olerki-ekoizpena aurkeztzen dugu, baina 1990. urtera arte argitaratutakoa batez ere. Kasu bakan batzuetakoa baino (*Karmel* aldizkarikoa adibidez) ez dugu jaso gaurdaino argitaratua.

Gehien itzuliak izan diren olerkariak, ondorengoak izan dira: Heine (25 olerki), Brecht (19), Rilke (10), Goethe (9), Uhland (8); bide batez, olerkari horien nortasunaren aipamen txiki bat ere egingo dugu. Gutxiago itzuliak izan diren gainerako olerkarietaz, lau olerki edo gutxiago itzuli zaizkienak alegia, itzulitakoen bibliografia fitxa bakarrik emango dugu.

Ikus daitekeenez, euskarara gehien itzuliak izan diren alemaniar olerkariak, XIX. mendean bizi izan zirenak dira.

1. Bertolt Brecht (1898-1956)

Augsburg-ekoa zen, dramaturgoa. Bere ezaugarrietako bat edota bere lanen tonu konstantea, gizarte burgesari egindako kritika izan zen. Bere drametan, ongiaren eta gaizkiaren gaia tratatu zuen, hain zuzen ere gizarte-egoerarekiko inoiz ere era askean edo independentean tratatzen ez dena. 1933an Alemaniara ihes egin zuen. Gerra ondoren, itzuli eta "Berliner Ensemble" gidatu zuen Berlinen.

Baina aipatzekoa da bere obra poetikoa ere; azken aldi honetan (Berlin-Weimar-Frankfurt, 1989-2000) Brecht-en obra osoa jasotzen duen

edizio handi bat prestatu da; edizio hau 31 liburukik osatzen dute eta bost poesiari buruzkoak dira (11-15 liburukiak).

Hemen, euskarara itzultitako 19 olerki aurkezten dizkizuegu, gehienak Otsalarrek (Juan San Martinek) itzuliak. Olerki hauetako gehienak Olerti aldizkarian argitaratuak dira.

- *Abots bat*, Olerti 10 (1968,1-2.zk.) 80. (Eusk.: Otsalar).
- *Egunkariak inkurten te berotzen dan artean*, Olerti 11 (1969,1-2.zk.) 56. (Eusk.: Otsalar).
- *Gaberako aterbea*, Habe (1989,164.zk.) 42. (Eusk.: Mikel Laboa?).
- *Galileo,ren dotrina eta eritzia*, Olerti 10 (1968,3-4.zk.) 105. (Eusk.: Otsalar).
- *Gereza lapurra*, Olerti 11 (1969,1-2.zk.) 56. (Eusk.: Otsalar).
- *Geroko gizona*, Olerti (1987-90) 155-157. (Eusk.: Igotz).
- *Gudarien kantak*, Olerti 10 (1968,1-2.zk.) 79. (Eusk.: Otsalar).
- *Gudua maitatzen zuen maixua*, Olerti 10 (1968,1-2.zk.) 80. (Eusk.: Otsalar).
- *Herbestaturik lehen urteen gorde-lekua*, Olerti 10 (1968,3-4.zk.) 102. (Eusk.: Otsalar).
- *Iru alegi*, Olerti 8 (1966,3-4.zk.) 26-27. (Eusk.: Otsalar).
- *Itzuler*, Olerti 10 (1968,3-4.zk.) 103. (Eusk.: Otsalar).
- *Jeneral jauna, zure tankea sendoa da* [Has.], Hotsizki 1 (1985,1.zk.) 26. (Eusk.: Aitor Arana).
- *Langille baten galderak liburu baten aurrean*, Sustrai (1983,41.zk.) 13. (Eusk.: Mikel Laboa?).
- *Lihuren kontra*, Habe (1984,36.zk.) 29. (Eusk.: Mikel Laboa?).
- *Ondore markatuak*, Olerti 10 (1968,3-4.zk.) 102. (Eusk.: Otsalar).
- *San Sekulaerezen kanta*, Olerti 11 (1969,1-2.zk.) 55-56. (Eusk.: Otsalar).
- *Txina,ko Te sustrai bat leoi tankeraz*, Olerti 10 (1968,1-2.zk.) 81. (Eusk.: Otsalar).
- *Zer artu zuen gudariaren emazteak?*, Olerti (1984) 190. (Eusk.: Igotz).
- *Zer ukan zuen soldaduren andreak?*, Olerti 10 (1968,3-4.zk.) 103-104. (Eusk.: Otsalar).

2. Johann Wolfgang von Goethe (1749-1832)

Frankfurt-en jaioa. Olerkari handia, eleberrigilea eta drama-idazlea.

Bizipenez betetako lirika aurkezten digu, bere sentimenduen adierazpen barnekoienak, egia eta berotasuna. Hona hemen bere lirikaren gaiak: alaitasuna eta mina, gorrotoa eta maitasuna, arimako bakea eta grina, errugabetasuna eta errua, balorea eta etsipena, ametsa eta errealitatea, gaztetasuna eta heldutasuna, bizitza eta heriotza.

Halako batasun barnekoi bat lortu zuen erabilitako formen eta edukien artean. Poesia formen aberastasunak, beren edukiek bezain agor-

tezina dirudi: Kantuak, Ereserkiak, Elegia, Baladak, Atsotitzak, Legendak, Fabulak, Parabolak, etab. Aberatsak dira halaber bere bertsoen formak. Eta olerkiak, bere gaztaroan eta zahartzaroan idatzi zituen. Bere olerkigintza oso zabala eta handia da.

Euskarara itzulitako ondorengo bederatzi olerkiak, itzultzaile desberdinek itzuliak direla ikusiko dugu. Ikusten denez, gutxi da noski Goetheren olerkietatik itzulitakoa. Alabaina, gogora dezagun S. Onaindiak egin dako *Faust-en* (*Der Faust*) itzulpena, Bilbao, 1986, 305. or.; kasu honetan, noski, jatorrizko alemanierazko testutik baino, gaztelaniazko testutik gehiago egindakoa, nahiz eta itzultzean bi testu ere begien aurrean eduki izan.

- *Bidaztien arrats-abestia*, Euskal Esnalea 16 (1926,270.zk.) 113. (Eusk.: O., M.).
- *Egaz*, Euzkadi 19 (1931,5908.zk.) 6. (Eusk.: O.).
- *Haltzen errege*, Gernika (1951,15.zk.) 142. (Eusk.: F. K. Krutwig).
- *Ilhargiari*, Euzko Gogoa 6 (1955,5-12.zk.) 85. (Eusk.: Gabirel Aresti).
- *Linkeus dorreazia*, Euzko Gogoa 2 (1951,9-10.zk.) 7. (Eusk.: Ibalan).
- *Loreillekua*, Alderdi 2 (1948,10.zk.) 30. (Eusk.: Basati).
- *Nor zaldiz, ain belu, aize ta gau-zeat?* [Has.], Euzko Deya 1 (1916,15. zk.) 6. (Eusk.: Koldobika Eleizalde).
- *Tule'ko Erregea*, Yakintza 2 (1934,11.zk.) 343. (Eusk.: P. Iraizoz).
- *Zure eginbidea* [I Ias.], Herria (1975,1314.zk.) 1. (Eusk.: ?).

3. Heinrich Heine (1797-1856)

Düsseldorf-en jaioa, zuzenbidea ikasi zuen Bonn, Göttingen eta Berlingo unibertsitateetan, baina interes gehiago izan zuen literaturaz. Parisen hil zen. Olerkaria eta idazlea.

Olerkari legez, eztabaida-gai izan zen. Bizi zela, bere olerkiak oso estimatuak izan ziren, baina gero, mespretxatu egin zituzten askok. Frantziarrentzat eta ingelesentzat, Goethe-ren ondoren olerkari alemaniar lirikorik handiena da.

Bere obra lirikoa, bi lanetan dago jasota batez ere: *Buch der Lieder* [Kantuen liburua] (1827) eta *Romancero* [Erromantzeak] (1851) liburuetan.

Heine-ren lirikak, maitasun-kantuak eta naturari eskainiak ditu gaitzat, baina baita bere garaiko politika-gaiak, bizitzan gorputzaz gozatzeari, aitormen pertsonalak eta baladak, etab. ere.

Euskarara olerki gehien itzulita dituen alemaniar olerkaria da, 25 agertzen dira gure aldizkarietan zehar. Hein handi batean, Joseba Arregiri zor zaio hori, izan ere, 1927an, Bilbon, *Heine-ren olerkiak*, 191 or., liburua argitaratu baitzuen.

“Satarka” (Klaudio Sagarzazu) agertzen da itzultzaile lez.

- (*Arratoie*), Egin (1985,2561.zk.) 36. (Zat.) (Eusk.: Kaekus ?).
- *Bai dakit, bai!*, Hermes 3 (1919,38.zk.) 245. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Begi berarexek*, Hermes 5 (1921,75.zk.) 130. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Berak bakarrik!*, Hermes 4 (1920,62.zk.) 478. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Bere nalko beroakaz!*, Hermes 4 (1920,61.zk.) 407-408. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Bitarte*. Ezin det, Baskonia 27 (1920,968.zk.) 500. (Eusk.: Sata).
- *Dantzari egingo dogu*, Hermes 3 (1919,41.zk.) 329. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Ene-biotzoi!*, Hermes 4 (1920,58.zk.) 204. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Eu bakarrik*, Euzko Deya (1922) 20. (Eusk.: Satarka).
- *Ez ardurarik izan*, Hermes 5 (1921,71.zk.) 363. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Ez bildurrik izan*, Hermes 5 (1921,73.zk.) 29. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Gero etorri dirade*, Euzko Deya-A 9 [1947,286.zk.] 2. (Eusk.: Satarka).
- *Gozatzen dau!*, Hermes 3 (1919,53.zk.) 692. (Joseba Arregi).
- *Itunik*, Hermes 4 (1920,66.zk.) 758. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Lorailla*, Hermes 3 (1919,45.zk.) 422. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Lore ainiako zera*, Yakintza 4 (1936,20.zk.) 93 (Eusk.: Alexander Tapia-Perurena).
- *Maitatzen zaitut*, Euzko Deya-A 9 (1947,292.zk.) 7. (Eusk.: Satarka).
- *Maita zaitut eta!*, Hermes 3 (1919,31-32.zk.) 67. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Nere atsekabe aundi*, Euzko Deya-P 16 (1951,339.zk.) 12. (Eusk.: Udalaizpe). / Euzko Gogoa 2 (1951,1-2.zk.) 5. (Eusk.: Udalaizpe).
- *Ta atseginduko naz*, Hermes 5 (1921,72.zk.) 422. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Zer nai dezu geiago?*, Euskal Esnalea 10 (1920,204.zk.) 210. (Eusk.: Satarka).
- *Zitalduta dagoz*, Hermes 5 (1921,68.zk.) 120. (Eusk.: Joseba Arregi).
- *Zorionik ez...*, Euskal Esnalea 16 (1926,265.zk.) 22. (Eusk.: O., M.).
- *Zoritzar-txarrez*, Euskal Esnalea 11 (1921,212.zk.) 156. (Eusk.: Satarka).
- *Zu bakarrik*, Euskal Esnalea 12 (1922,[217].zk.) 12. (Eusk.: Satarka).

4. Friedrich Hölderlin (1770-1843)

Sortzez Lauffen/Neckar-ekoa. Olerkaria. Teologia ikasi zuen. Gero,

maisu pribatu bihurtu zen Gontard bankariaren etxean Frankfurt-en eta haren emaztea, Susette, izan zan bere olerkari-sena biztu zuena. Etxe hura utzi behar izan zuenean, geroz eta bakartiago sentitu zen. Maisu partikular moduan, Bordelera ere joan zen, baina handik ero-sintomekin itzuli zen. 1806az geroztik, gaixoturik izan zuen gogo-aldarte.

Benetako olerkaria da. Olerkia berarentzat, ez zen inondik inora ere bere bizitzaren apaindura soil. Antzinako Grezia Alemanian berpiztera deitua sentitzen zen. Helendartasuna eta kristautasuna, germaniartasunarekin batera, batu egin behar zuten bere ustez sintesi handi bat eratuz.

Erritmo-sentiberatasun handia du eta aparteko hizkuntza-nagusitasuna. Hölderlin-ek erabilitako hizkuntzarik ohikoa, garden eta misterio-zentzuz beteriko bihurtzen da; hitzik soilena ere sarritan, erlijio-betekizun bihurtzen da. Gehiegikeria hunkigarritik ihes egiten du, berak neurritasuna maite du edota "*sobria ebrietas*" (mozkortze neurritsua), liturgia katolikoan eta mistikoan errealtateari oso lotua den kontzeptua hain zuzen ere.

Bere lirika lehen-lehenik, zeharo kontzeptuzkoa da. Bere oda eta ereserkietan, adiskidetasuna, hilezkortasuna, heroitasuna, maitasuna, aberria, askatasuna eta giza duintasuna abesten ditu, purua, ona, egiazkoa dena, alegia.

Aipa dezagun, adibidez, bere literatur lana *Hyperion oder der Eremit in Griechenland* (*Hyperion* edo eremutarra Grezian); edo drama hau *Der Tod des Empedokles* (Empedoklesen heriotza), etab.; eta beste olerki eta itzulpen asko...

Gure zerrendan euskarara itzulitako bi olerki eta liburu bat baino agertzen ez diren arren, garrantzi apur bat ematen diogu, izan ere, bere olerki-lanetatik zati handi bat euskarara itzulita baitago, baina oraindik ez da argitaratua izan. Itzulpen-lan horiek, urte askotan zehar eta tarteetan etenaldi askorekin burutuak, Luis Arostegik eginak dira. Azkenaldian, 2003ko maiatzean, Arostegi Karmeldar Teresiarren Jeneral auke-ratua izan da eta Erromara joan behar izan du bizitzera. Horrekin, ez dirudi datozen sei urteetan Hölderlin-en olerkiek euskaraz argirik iku-

siko dutenik, nahiz eta hori gure hizkuntzarentzat oso garrantzitsua izan.

- "*Schicksalslied*" - Zoriko Eresia, Gernika (1951,16.zk.) 10. (Eusk.: F. K. Krutwig).
- *Zuk ere asko desio zenuen, baina bortxaz* [Has.], Maiatz (1985,9.zk.) 21. (Eusk.: Itxaro Borda).
- *Poemak*, Erein, 2001 (Eusk.: Eduardo Gil Bera)

5. Rainer Maria Rilke (1875-1926)

Alemaniar olerkaria, Pragan jaioa. Rodin-en idazkari izan zen eta harren ikasle Clara Westhoff zizelkariarekin ezkondu zen.

Olerkari liriko handia da ondorengo lanetan ikus daitekeenez: *Das Stundenbuch* (Orduen liburua), *Sonette an Orpheus* (Orfeori egindako sonetoak), *Duinesser Elegien* (Duino-n egindako elegiak), etab.

Rilke-k, bere sentiberatasun finaren bidez, bere garaian arrunt eta hutsaletik, jende-oldetik, ihes egiteko zuen egarria edo antsia irudikatzen du. Bere garaia ordezkatzeko duen gizona da eta heriotzaren bakardadea eta estutasuna jasaten ditu...

Euskarara itzuli diren Rilke-ren olerki gehienak, Luis Mari Muxikaren lumari esker itzuli dira.

- *Aldizka*, Arnas (1961,6.zk.) 47. (Eusk.: L. M. Muxika).
- *Bideak*, Olerti 2 (1960) 104. (Eusk.: Otsalar).
- *Gau...*, Arnas (1961,5.zk.) 34. (Eusk.: L. M. Muxika).
- *lñork esan al lidake...?*, Olerti 2 (1960) 104. (Eusk.: Otsalar).
- *Len arrosak*, Arnas (1961,5.zk.) 34-35. (Eusk.: L. M. Muxika).
- *Munduko erregeak zaharrak dira* [Has.], Pott (1980,ekaina) 26. (Eusk.: ?)
- *Olerkaria*, Olerti 2 (1960) 104. (Eusk.: Otsalar). / Olerti 3 (1961) 289. (Eusk.: ?).
- *Udagoiena*, Egan (1966) 39. (Eusk.: Markue).
- *Udazken*, Arnas (1961,6.zk.) 47. (Eusk.: L. M. Muxika).
- *Zelaietan*, Arnas (1961,6.zk.) 47-48. (Eusk.: L. M. Muxika).

6. Johann Ludwig Uhland, (1787-1862)

Tübingen-en sortua. Olerkaria. Zuzenbidea ikasi zuen baina baita hizkuntza eta literatura alemaniar nahiz erromanikoak ere.

Politikan jardun zuen, herria Napoleonen mendekotasunetik askatzeko borroka egin zuen. Historiako eta literaturako idazlanak ere idatziz zituen.

Olerkari liriko gisa, bere garaikideen txaloak jaso zituen. Bere olerkiak, estilo eta tonu soilekoak, gauza herrikoien hurbil-hurbilekoak eta ulergarriak dira. Aberria eta natura dira bere abesti edo olerkien bi gai handi eta nagusiak eta ezagunenetarikoa zera da: *Der gute Kamerad* (Adiskide ona).

Euskaratutako zortzi olerkien zerrendan, "*Udalaizpe*" itzultzailea aurkitzen da, Jokin Zaitegi hain zuzen ere.

- *Arrozterxeko alaba*. (*Der Wirtin Tochterlein*), Euzko Gogoa 2 (1951,5- 6.zk.) 5. (Eusk.: Udalaizpe).
- *Artzaiaren igande-abestia*, Euzkadi 20 (1932,5947.zk.) 5. (Eusk.: O.).
- *Gastearen eriotza*, Euzko Deya 2 (1917,28.zk.) 6. (Eusk.: Euskeratzalle).
- *Goiz eresia*, Euzko Deya-P 16 (1951,339.zk.) 12. (Eusk.: Udalaizpe). / Euzko Gogoa 2 (1951,1-2.zk.) 5. (Eusk.: Udalaizpe).
- *Haralda*, Euzko Deya 2 (1917,31.zk.) 2. (Eusk.: Euskeratzalle).
- *Itxas-gazteluan*, Argia 10 (1930,476.zk.) 1. (Eusk.: O.).
- *Lekaidea ta artzaia*, Euzkadi 19 (1931,5900.zk.) 6. (Eusk.: ?).
- *Zaldun beltza*, Euzkadi 9 (1921,2871.zk., VII-21) 1. (Eusk.: E.).

7. Besteak.

Hemen orain, euskarara oso gutxi itzuliak izan diren beste olerkari batzuen zerrenda jarri behar dut; horien artean Schiller ere jarriko dugu, izan ere, sei bibliografia fitxa agertzen diren arren, denak ere olerki berberari dagozkionak baitira, *Pozari* (An die Freude) dagozkionak alegia.

- *Brentano*, Irulea, Yakintza, 2 (1934,12.zk.), 411. (Eusk.: P. Iraizoz).
- *Chamisso*, Adelbert von, *Etxahun Euskaldunaren Arrangura*, Pott (1980, ekaina) 23., *Etxahun euskaldunaren deitorea*, Yakintza, 3 (1935,17.zk.), 347-349. (Eusk.: Polikarpo Iraizoz).
- *Etxahun euskaldunaren deitorea*, Pamiela (1984,6.zk.) 24-25. (Eusk.: Kaekus).
- *Denk*, Otto, *Aurra ta bere aingerua*, Z. Argia, 7 (1925,74.zk.), 412. (Eusk.:?).
- *Fleisingen*, Otto von, *XII garren gizaldiko arlote baten konfeziñoa*, Olerti, 2, (1960) 236-237. (Eusk.: T. Etxebarriak lateratik euskeratua)

- Fried, Erich, *Ezerez barririk ez danik* [Has.], Zer (1989,130.zk.), 6. (Eusk.: I. Martiartu).
- Hesse, Hermann, *Aldakortasun*, Zer (1986,93.zk.), 4. (Eusk.: Sabin Muriategi).
- *Muñatzearen begirada* [Has.], Hotsizki, 1 (1985,2.zk.), 46. (Eusk.: Aitor Arana).
- *Olerkia*, Egan, (1968) 24. (Eusk.: Markue).
- *Zirkuko artistek badute* [Has.], Hotsizki, 1, (1985,2.zk.) 46. (Eusk.: Aitor Arana).
- Hoffmann von Fallersleben, Heinrich, *Kukua*, ZArgia 7 (1925,77.zk.) 456.
- Hofmannsthal, Hugo von, *Lekhoreko biziarena*, Euzko Gogoa, 5, (1954,1-2.zk.) 10. (Eusk.: Jon Mirande). / Saioak-REV 2 (1978, 2.zk.) 244. (Eusk.: Jon Mirande).
- Liliencron, Letlev von, *Epail-Eguna*, Euzko Deya-P 16 (1951,339.zk.) 12. (Eusk.: Udalaizpe). / Euzko Gogoa, 2, (1951,1-2. zk.) 4. (Eusk.: Udalaizpe).
- *Ez nazu maite*, Euskal Etnalea 12, (1922,[217].zk.) 12. (Eusk.: Satarka).
- Michel Biar, *"Dasein"*, Euzko Gogoa, 10, (1959,1-2.zk.) 5-6.
- *Eguzki berritan*, Euzko Gogoa, 10, (1959,1-2.zk.) 12-13.
- Mohr, Josef, *Gau isila (Stille Nacht)*, Karmel, 2002-4, 126-127 (Eusk.: Luis Arostegi).
- Mörike, Eduard Friedrich, *Neska zapustua*, Euzko Gogoa, 2 (1951,1-2.zk.), 4. (Eusk.: Udalaizpe).
- *Neska zapustua*, Euzko Deya-P 16 (1951,339.zk.) 12. (Eusk.: Udalaizpe).
- Müller, G. Belmonte, *Gizon bat eta zakur bat*, Euskal Erria, 5, (1882) 16. (Eusk.: Claudio Otaegi).
- Müller, Wilhelm, *Ezkia*, Maiatz (1985,9.zk.), 23. (Eusk.: Mayi Pelot).
- Nietzsche, Friedrich, *Mendi gallurretatik.(Aus hohen Bergen)*, Gernika (1952,18.zk.) 34-35. (Eusk.: Jon Mirande). /
- Schiller, Friedrich von, *An die Freude. (Poza, Jainkotxinpart eder [Has.])*, Euskal Erria 70 (1914) 548-549. (Eusk.:?).
- *Atzerriko neskatilla*, Egan (1959), 20. (Eusk.: J.Mirande). / Saioak-REV 2 (1978, 2.zk.) 246. (Eusk.: Jon Mirande).
- *Erri-min*, Egan (1959), 21. (Eusk.: J.Mirande). / Saioak-REV 2 (1978,2. zk.) 246. (Eusk.: Jon Mirande).
- *Oh Freude, nicht diese Töne (Adiskideok! Ez gaitzen doinu zarata hoietan eror [Has.])*, ?rrats (1979,1.zk.) 37. (Eusk.: ?).
- *Poza'ri oda*, Olerti, 1 (1959) 86-88. (Eusk.: Ibalan).
- *Pozari (An die Freude)*, Euzkadi-R 11 (1914,26.zk.) 166. (Eusk.: R. M^o Azkue).
- Stein, Edith, *Bizitzako bateltxo* (Leman), Karmel, 1998-3, 170-171 (Eusk.: Luis Baraiazarra - Julen Urkiza).
- Stein, Edith, *Gau santua, 1936ko abenduaren 24aren oroimenez*, Karmel, 1998-3, 172-175 (Eusk.: Luis Baraiazarra - Julen Urkiza).
- Stein, Edith, *Gurutzearen oinetan zurekin zutik*. Mariari, Karmel, 1998-3, 176-177 (Eusk.: Luis Baraiazarra - Julen Urkiza).
- Reich, W., *Ezin duzu inajinatu* [Has.], Hotsizki 1 (1985,2.zk.) 47. (Eusk.: Aitor Arana).
- *Hitlertarrak zintzilikatu zenituen* [Has.], Hotsizki 1 (1985,2.zk.) 47. (Eusk.: Aitor Arana).

Elkarrizketa



Hadassa Moscovici:
Raoul Schrott. Literatur jardunean
parerik gabeko idazlea

HADASSA MOSCOVICI

*Raoul Schrott: literatur jardunean parerik gabeko idazlea
Itzultzailea: Anton Garikano (alemanetik euskarara)*



"Zenbat eta gauza gehiago egin, orduan eta gehiago ohartzen zara zer ezin duzun egin, zer nekez, zer erdizka, zertan zaren ikasten hasi berria. Ikasketa-prozesu hau —zeureganatze hau— sorrera-prozesu bat da, norberaren garapen intelektual eta emozionalaren prozesu bat, eta horrexek erakartzen nau ni."

Raoul Schrott

Azken urteotan, alemanezko literatur eszenak bere esparrua zabaldu du. Hamaika sari irabazteaz gain, alemanezko idazle modernoek artean beste inori ez bezala jarri dizkiote etiketak Raoul Schrotti, zabal eta gogotsu. Idazle eta itzultzaile zena, laster bihurtu da "poeta", "poeta doctus", "literaturaren kirolari porrokatu", "gizaseme bikain", eta azkenerrako "txarlatan edo jeinu". Izan ere, zenbaitentzat amorragarria da: urte gutxitan Raoul Schrottek gehiago argitaratu du beste zenbaitek bere bizitza guztian baino. Eta okerragoa dena: arrakasta dauka.

Austriako Dada mugimenduaz eta Tristan Tzara idazle dadaistaz dokumentazio-lana egin ostean agertu zen 1991n *Rime. Wie die elf Lieder des Guihelm IX., Herzog von Aquitanien & Graf von Poitiers, 1071-1127, von dem Raoul Schrott ins Deutsch geschrieben wurden ... ein dutzend verse darauf machte im jahre 1991*¹, 1993an *Sub Rosa, 22 Postkarten und ein Telegramm - Mit Bildern von Arnold Mario Dall'O*², 1995ean *Hotels, 33 Gedichte*³, guztiak Austriako Haymon argitaletxean. Arrakasta lokalak izan ziren 1989an *Dada 21/22, Musikalische Fischsuppe mit Reiseeindrücken*⁴, 1990ean *Die Legenden vom Tod*⁵, eta 1993an *Dada 15/25 - Die himmlischen Aben-*

*teuer des Hr:n T. Tzara*⁶ -Urteko Libururik Ederrena izendatua Austrian, eta hurrëna 1995ean *Finis Terrae* eleberria.

Finis Terrae asmatutako egunkaria da —Pytheas von Massalia izeneko marinel batek K.a. laugarren mendean iparraldeko Europan egindako bidaia—, eta mapa, marrazki eta “aurkitutako ohar-liburu”en *collage* hau aintzakotzat hartu beharrekoa da alemanezko literatur eszenan.

“Hizkuntz ospakizun” iritzi zaion liburu honetan ageri da Schrotten amalgama berezia: batetik jakintza entziklopedikoa, eta bestetik mundu-ikuskera ase-ezin, drastiko eta zibilizatu gabea. Modernitateari entzungor, asoziazio eta xehetasunen bide zabaletik abiatuta geldiarazten du mundu oso bat —hizkuntza, ikuspuntua eta sentimendua digitalizatuz, eta denak bateragarriak izan daitezen errudimental bihurtuz—, eta tinko itzultzen dio xehetasun bakoitzari bere izena, zor zaion lekua.

Raoul Schrottek —axolagabe, zakar eta jostalari— komeni zaizkion baliabide literarioak erabiltzen ditu. *Finis Terrae*ko perpaus baten edukia argi dagoenean zati bakar batekin, esaldia eten eta parentesi artean ipintzen du: “moztuta dago esaldiaren beheko alde”. Joko hau egin dezake zeren ez baita ari idazten, baizik eta aurkitutako lau koaderno erreproduzitzen.

Lehenbiziko koadernoa nabigazio-egunkari bat da: Massaliako Pytheas iparrerantz doa, mundua ustez amaitzen den lekurantz. Bigarren koadernoa biografia bat da, eta hirugarrena bidaia baten deskripzioa: Rudolf aintzira aurkitu zuenaren biloba doa Pytheasen aztarnen atzetik. Laugarren koadernoa ohar-bilduma bat da, Rudolf aintzira horretan modu misteriotzuan desagertutako bi ikertzaileri buruzkoa. Idazleak umoretsu —bigarren edo hirugarren begirada arte ez diozu igartzten— eta tinko iraultzen ditu maila guztiak, botatzen ditu gogoeta filosofikoen ondora txosten entziklopedikoak, paisaien obserbazioak, eranskin tekniko zehatzak eta psikogramak. Jokoa, ordea, benetakoa da. Aztertzen du bizitza munduan, lurrean —zeruaren bestalde honetan—, aztertzen ditu bizimodua, munduaren eredua, eta edertasunaren eta oinazearen formak. Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkaden

intimitate berriarekin, Raoul Schrottek bere fokua aldatu egiten du norberaren zibilizazio munduaren agerpen desberdinetara. Gaiak izango ditu haizea, airea, zerua, itsasoa, baina baita barkua, probeta, urruntasuna eta sorteria ere. Eta aho, sabel eta ipurdiaz gain, baita etxe-mina, maitasuna, oinazea, mugak eta heriotza ere. Etengabe aurkitzen ditu gertaleku berriak. Argumentu berrien giroan dihardu munduaren osotasunaz, bitxikeriez eta edertasunaz, ikuspuntu diferenteetatik.

Liburu honen ondotik dator bilduma bat, *Die Erfindung der Poesie*⁷, azken 4.000 urteko poemak berriz itzulita eta komentatuta, ustekabeko arrakasta literarioa 1997an. Egileak berak errezitatutako testuek etengabe topatzen dituzte entzule berriak, nahiz eta bere ahoan oso antzekoak diren antzinako grekoa, galesa, sumeriera eta hebraiera.

1998an *Tropen-Über das Erhabene*⁸ poema-liburuak poesia eta natur zientziak uztartzen ditu, hain modu pertsonalean ezen batzuek harrokeria eta itxurakeria egotzen dioten bitartean, beste batzuek goraipatu egiten dizkiote adorea, argitasuna, hizkuntza, fantasia, zuhurtzia eta osotasuna.

2001eko *Gilgamesh* epopeia sumertarraren itzulpen berriak haserrarazi egin ditu filologo klasiko batzuk, baina gainerakoan laudorioak jaso ditu.

2003an bere *Tristan da Cunha* eleberria agertu bitartean ezagutu dugu *Die Wüste Lop Nor*⁹ eleberri laburra, *Khamsin* narrazioa —konbateko tropa batzuen ahaleginak salbaziora heltzeko basamortu bazter batean, *Die Namen der Wüste*¹⁰ saiakera, *Das Geschlecht der Engel*¹¹ —okupazio-terapia bat maitearen zain dagoenarentzat—, beste hainbat itzulpen, irratsaio eta film bat.

Hamburgeko Literatur Etxeko areto nagusia beteta dago. Raoul Schrott sartu, eseri, aurkeztu du kritikari batek, eta idazleak laudorioa baztertzeko keinu bat egin du buruarekin. *Tristan da Cunha* eleberrir argitaratu berria irakurtzen hasi aurretik, pozez kontatzen du —groteskoaren eta komikoaren muga— nola asmatu zuen. Badirudi agure zahar batek ikusitakoa kontatzen ari dela. Publikoa adi-adi dago en-

tzuten eta aurkezlea gero eta deserosoago dago. Raoul Schrottek irakurtzeari ekin dio. Batzuetan bere aurreko liburuaren orri tentetuak igurzten ditu —zapataginaren eskuak balitu bezala—, eztiro-eztiro.

Hurrengo elkarrizketa batean Raoul Schrottek esandakoa da:

“Kritikariaren eta idazlearen arteko harremana, askotan, lehian oinarritzen da. Hain maltzurra izan daitekeen esparru horretan inbidia ego-teak beti harritu izan nau. Literatura erreklamatzea ez da boterea erreklamatzea. Literaturan ez zara maitale bat baino: maite duzunaz bakarrik idazten ahal duzu. Zerbait eder sortu nahian, batzuetan gehiago lortzen duzu, besteetan gutxiago, edo batere ez. Ez dakit zergatik eraman behar ditudan etiketa horiek soinean. Niri ez zait interesatzen eszenaren aurre-aurrean agertzea. Literatura gauza diskretua da, sotila, anbigua, etiketak janzen hasi gabe.

Friedrich Dürrenmatt eta Max Frischen arteko gutun batean Dürrenmattek dio Frischek etengabe botatzen duela bere burua munduaren aurrera, baina Dürrenmattek bere aurrera botatzen du mundua, eta azken hau atseginagoa gertatzen zait niri. Idazteko orduan hitz bat aukeratzuz, subjektibotasuna eta intimitatea adierazten dituzu. Zeure pentsaeraren hatz-marka uzten duzu, nabarmen asko. Zeure burua eszenaren aurre-aurrean agertzea harrokeria hutsa da, eta harrokeria hori desagokia da poesian, non helburua den komunikatzea eta bozgorailu izatea. Nire interesa da testutik desagertzea eta gauzak mintzaraztea.

Jendaurrean ari zarela, batzuetan sentitzen duzu beste norbait ari dela hitzaldia ematen zure bitartez, eta zu ez zaudela hor. Hitzaldiek lehertuta uzten zaituzte, gauzak batetik bestera igarotzeko bide bat besterik ez bazina bezala. Horixe esaten zioten grekoek “entusiasmoa”, jainkoarena izatea, musen bozgorailu izatea. Enpatia da espresiorik onena: estimulatetik datorren literatura. Enpatia gauzekin, jendearekin, naturarekin, zeruarekin, jainkoekin, edozerekin. Ez sinpatia, baizik enpatia. Bat egitea. Bat egin nahi hori da existentziaren intentsitaterik handiena.

Baina eszeptikoa ere banaiz, eta badakit hori errituala besterik ez dela. Egoera iragankorra da, eta azkenean ilusio hutsa da pentsatzea gau-

zekin bat egin dezakezunik. Baina gauzetara hurbiltzeko ahalegina ahalegin bat da. Azkenean konstruktua bat da, baina ederra. Zalantzazko konstruktua bat da edertasuna, zalantzazko konstruktua bat da zentzua, eta zalantzazko konstruktua bat da atsegina ere. Erlijioaren ordezkari bat besterik ez da kasik, baina erlijioa ere ez da proiektzio bat besterik, desioaren keinu bat besterik. Hesiodok bere Teogonian dioenez, kausetik, leizetik irteten den lehen jainkoa Eros da, leize horren ertzak elkartu nahian. Taroteko kartetan ergela hegaz doa, zakurrak orpoetan dituela, eta atzetik tximeleta bat. Leizea zeharkatzen saiatzen da ergela.

Desio hitzak esan nahi du eskua luzatzea, ihes egiten digun zerbait ukitu nahi izatea. Erlijioaren, paradisuaren eta geroke bizitzaren beharrak sinbolizatzen duen keinu existentzial hori, gorputzaren mailan goseak sinbolizatzen du: sexualitate eta maitasun beharra. Hizkuntza bera ere keinu proiektibo bat besterik ez da —doinu eta letren bidez zerbait adierazi nahia gauzei buruz—, baina hizkuntzak eta gauzek ez daukate inolako zerikusirik elkarrekin. Biek ala biek nahi dute zubi-lana egin leize horretan, zeinak bereizten gaituen gauzetatik, besteengandik, eta baita gu geugandik ere batzuetan.

Nire ustez literatura ongien sinbolizatzen duena da gaueko zerua: han —objektiboa izanik— nolanahi sakabanatutako argiak baino ez ditut ikusten, batak bestearekin zerikusirik gabeak. Baina han izarren konstelazioak aurkitzen ditut, kausetik egiturak irazten ditut, konstelazioei izena eman eta istorioak asmatzen dizkiet. Indiferentzia kosmikotik diferentzia humanoa sortzen dut. Horixe uste dut dela artearen funtzioa, oro har: zentzua sortzea, fikzioaren eta sugestioaren bitartez. Guztia sugestioaren baitan geratzen da, jakina, baina esperientzia hori gizatiar osotasun baten antzekoa da, bat-batean den-dena elkarrekin lotzen da, eta horixe da literaturaren plazera: gauzak elkartzea.

Idaztea da zentzuaren baitan hierarkiak eraikitzea. Literatura ona denean, hierarkia horiek ahalaz tinkoak izaten dira. Diktatorialak eta menperatzaileak. Horregatik dira hain politikari txarrak idazle erradikalak: beren produkzio guztia hierarkikoa da eta totalitarioa. Hori erre-

alitatean gorpuztu nahi izatea laneko eritasun baten antzekoa da. Ni ez naiz urrun mantentzen arazo politikoetatik, baina ez daukat trebetasun nahikorik. Gutxienez literatura bezain konplexua den jokoa iruditzen zait politika. Inori ez zaio bururatzen jeneral bati galdetzea, ea zer uste duen Elfriede Jelineken azken antzezanaz, baina Elfriede Jelinekek bere iritzia ematen du egoera politikoaz. Politika gauzatu aurretik, gizaki izatea zer den zehaztu behar da. Horixe interesatzen zait niri, eta ez dago esaterik hori politika ez denik.

Politikak zerikusi handiagoa dauka gauzak egitearekin eta gauzak epaitzearekin, baina literatura, nire ustez, ulertzea da. Existentziaren formarik bitxienean lekuan jarri, eta haiek ulertzen saiatzea. Humanismo mota horrek ematen dio gorputza literaturari. Antropologiarekin baino zerikusi handiagoa dauka etika, moral eta politikarekin. Literatura, nire ustez, anarkismo idatzia da. Horregatik interesatzen zait bai errealismoa bai idealismoa, bai erromantizismoa bai existentzialismoa. Aldatuz doazen ikuspegiak dira, adierazteko molde berriak. Liburu bat idazteak esan nahi du estilo berri bat bilatzea, pentsaera berri bat, metodo berri bat asmatzea, behin eta berriro gau izartsuko puntuak diagonal berriekin lotzea eta lotura berriak osatzea. Horrela, erromantizismoa bezain begiko dut errealismo lakonikoa. Literaturari gorputz emateko moduak dira horiek, eta literaturari gorputz ematea ezinezkoa da baina horretan ahalegintzen gara. Soneto bat idazten dudanean agertzen dudana mundua oso desberdina da poema libre luze batean. Estilo-mota horiek, etxe batean sartu nahi duen lapurraren gakoak bezalakoak dira. Gako batzuek ate hau eta besteek hango hura irekitzen dute. Zein gelatan sartu eta zer lapurtu nahi dudana, gako bat edo bestea erabiliko dut. Literaturaren lapurreta hori da —zerbait zeureganatzea, horizonte bat sortzea, munduaren ikuskera oso bat zeureganatzea— ni liluratzen nauena literaturan.

Idaztearen helburua da zerbaiten muina, mamia, definitzea. Halere ez dut uste mundua zerbaiten muin edo mamira muga daitekeenik. Angelu bakoitzean argi diferente batekin ikusten dugu. Apaiz batek

ikusi, emakume batek ikusi, zigilu-bildumagile batek ikusi, Gilgameshek ikusi, Katulok edo Safok ikusi, beti natura bera da baina beti berria ere bai.

Literatura xakea bezalakoa da: mugimendu jakin batzuk daude, baina jokoa ez da sekula berdina. Idaztea da formarik kontzentratuena gauzetaz hausnartzeko, gauzak aztertzeke, gauzetan barneratzeko, eta garaipen enpiriko bat da, benetako bizitzan ez bezalako garrantzia daukana fikzioan. Idaztea da horizonte bat lortzea, horizonte bat ezagutaraztea, gauzak eta kontzeptuak zeureganatzea, baina niri askoz zirrargarriagoa iruditzen zait bizitza bera, hartaz idaztea baino. Liburuen bidezko hilezkortasunean pentsatzea gaur egun —hamar urteren buruan sakelako liburuei tapak erortzen zaizkienean—, erokeria da. Jakina, eternitate osorako definitu nahian idazten duzu dena delakoa, baina alde zurretik dakizu jai daukazula, eta hori dena ez dela letrak, hitzak eta papera besterik.

Niri dadaistengandik datorkit —gehienbat— literaturaren kontzeptua eta ulerpena. Ukitu neodadaista eta surrealista zuten nire lehenbiziko zazpi liburuek. Nire tenperamentuak hurbilago zeukan hori ezen Goethe, Hölderlin eta literatura alemana, sekula ez baititut oso neure sentitu. Gainera, topatu nuen lehenbiziko poeta dadaista eta surrealista Philippe Soupault izan zen, gizon bezala asko hunkitu nauena.

Horretaz gain, asko daukat austriar literaturatik, batez ere Vienako Taldetik. Hark lotu zituen orduko modernitatea eta surrealismoa —3. Reichak apurtu zuena—, eta jarraitu egin zuen Bigarren Mundu Gerraren ostean esperimendu dadaista eta surrealistekin.

Dadaista eta surrealistez gain, H. C. Artmann da nik gehien estimatu dudana poeta, eta bera ere ez da poeta aleman tipikoa.

Nire lehenbiziko liburuetan hizkuntza bera da funtsa, Friederike Mayröckerren edo surrealisten zentzuan: hizkuntza metaforikoa, alderdi irrazionala, idazketa automatikoa, irudietarako eta hitz-jokoetarako joera... Epigono lan hori arrakasta seguru bihurtu zen. Baina bide hori agortu egin zitzaidan hirugarren edo laugarren edo bosgarren lanean.

Nik beti estimatu dut poesia eta poetika ingelesa: hari ikasi diot poesia-ren zeregina dela gauzak definitzea, eta poesia ez dela hitz-joko hutsa. Denetariko estiloak eta pentsamenduko figurak erabiltzea da —tropoak, eta horien bidez oso modu trinkoan eta zehatzean defini daitezke gauzak.

Ni poesia idazten hasi nintzenean, poesiaren egoera marjinal samarra zen Alemanian. Lirika politikoa zegoen, edo onomatopeiaz eta irudiz betetakoa. Biak egiten zitzaizkidan ertzekoegiak, mugatuegiak. Nire inguruak ahaztua zeukan poesiaren tradizioa, edo sekula ez zuen ikertu. Arau estereotipatu batzuk zeuden, adibidez genitibozko metaforak ez direla zilegi eta errima erreakzionarioa dela.

Inork ez dizunetz poesia irakasten eta ez dakizunetz nola ikasi behar den, nire interesa errima nork asmatu zuen aztertzea izan zen, nork ahapaldia eta nork metafora, eta zer funtzio, garrantzi eta legitimazio izan zuen poesiak antzina. Beraz normala zen —ingeles tradizioan guztiz jakina— antzinako poetak itzultzea. Gogor samar ekinez itzuli nituen literatur tradizio bakoitzeko lehenbiziko poetak, nazioartean eza-gunak direnak. Sumertarrekin hasi nintzen —lehenengo kultura idazkeraduna zelako—, gero grekoak eta erromatarrak, eta arabiarrenganaino heldu nintzen (haiena kopia dute trobadoreek, eta proventzar trobadoreena koblakariak).

Horrela ohartu nintzen elementu liriko hauek —errima, ahapaldi, metafora— asmatuak ez baizik hizkuntzaren muinean daudela. Hizkuntzaren maila, egitura edo erritmoaren arabera aukeratzen da tresna bat, trikimailu bat edo bestea. Hortik jaio zen *Die Erfindung der Poesie*.

Lan horrek beste arrazoi bat ere izan zuen. Poesia ikasteko, nire iritziz ez dago hoberik zeure burua poeta handiekin neurtzea baino. Alde batetik, itzultzea da erarik zehatzena poemak irakurtzeko eta interpretatzeko, eta, bestetik, eredu ezin hobea daukazu. Poemak zeure hizkuntzara bihurtzerakoan, berritik ikasten duzu zeure hizkuntza. Neure kabuz jardun nuen horretan. Hitzek hitzezko itzulpen filologikoa egin ordez, maxima honi jarraitu nintzaion: poema baten itzulpenak poema izan behar du. Originalaren hizkuntz keinua berritu eta eguneratu nahi

nuen. Saforen entzulearentzat testuinguruko edo testu-arteko aipamen bistakoa zena gaur egun arrotza zaigu, eta nik leial erakutsi nahi nituen lerroen eta bertsoen esanahia, poemaren esanahia, estiloko eta pentsamenduko figurak: ikuspuntu filologikoaren gainean eraikitako ikuspuntu poetikoa.

Antzinako poeten aurrean jartzea da, nire ustez, dagoen transzendentzia-era bakarra. Geroko bizitzan sinesten ez dudanez, ezta paradisuaren ere, aukera dut aspaldi hildako poeten lekuan jartzeko, denboraz gaindi joanez. Literaturaren betiko gaiak izan dira ardoa, emakumeak, kantua, natura eta heriotza. Duela ehun, bostehun edo mila urteko jendeak gai horiek izan dituenaz, badirudi literatura beti saiatu dela denboraz gaindikotzat definitzen. Baina kale egin du horretan, zeren ezin baitira gauzak betiko agortu, betiko definitu, betiko zehaztu. Atzera begiratzuz, ordea, konstante bat agertzen da, eta hori interes antropologiko bat da, *conditio humanarekin* zerikusia daukana. Konstante horiek, uni-bertsal horiek interesatzen zaizkit niri. Denboraz gaindiko konparazio horretan antzematen da ezer gutxi aldatu garela, trabestiak besterik ez garela. Arropa berriak bai, baina azpiko gizakia betikoa da.

Proiektu berriak bidaltzeko animatu ninduen literatur agente batek. Banekienez inork ez duela lirikarik argitaratu nahi, neure artean pentsatu nuen: "*Die Erfindung der Poesie* bidaliko zioat, orain arte inork egin nahi izan ez duen proiektua, eta horrela gizalegez emango zioat ezetzkoa". Baina berak orduan Hans Magnus Enzensbergerri deitu, eta begi aurrean neukan eskaintza hirugarren egunerako.

Hortik jaio zen *Gilgamesh*. Itzultzen hasten zara ezer bururatzen ez zaizunean, trebetasun artistikoren bat lortu nahi duzunean, edo esku-trebetasunen bati eutsi nahi diozunean. Ni gustura aritzen naiz, baina beste zerbaitek bultzatu ninduen hain lan zabalera: *Gilgamesh* da aurreneko testua, aurreneko epopeia ez ezik eskura daukagun literatur testurik zaharrena, Enheduannaren poemak baino zaharragoa. Itzulpen penagarri batean argitaratua egon ez balitz, orduantxe antzerkiarekin hasteko zorian egon ez banintz, ez niokeen ekingo proiektu hari.

Hainbat itzulpen irakurri ondoren, interesgarria iruditu zitzaidan epopeia zahar hartan forma dramaturgikoak eta dramatikoak egotea. Kontakizun epikotik antzerkira sartzea sekulakoa zen niretzat. Eta handik antzerki bat egiteko enkargatu zidan Vienako Teatro Nazionalak. Bi asiriologok lagunduta eta itzulpen zientifiko berrienek lagunduta egin nuen lehenik itzulpen filologiko zehatza. Baina gero —eta hauxe zen sekulakoa— hasi nintzen berriro aztertzen —hiru bertsio desberdin daude, hiru epopeia desberdin Gilgameshen topos honen inguruan— eta epopeia berri bat idazten. Geratu egin nintzen argumentuan, istorioen egituran, aktoen antolaketan, baina lehenbizi psikologia eman behar zitzaien figurei. Originalean Gilgamesh bi metrokoa da eta ez du sekula pentsatzen ezertan. Egiten duena egiten duela, ez dauka barne-bizitza subjektiborik. Topatzen dituen pertsonaia eta ekintzetatik abiatuta berreraiki diot barneko bizitza, eta 12 metrotik 1,84ra txikitu dut. Erabat zirrara garria zen hori, erabat aberasgarria, eta ikusteko lana. Garaitsu horretan ari nintzen lanean *Tristan da Cunha* eleberriarekin.

Tristan da Cunha izenak berak liluratu ninduen lehenbizi. Tinbuktu edo Shangrila, El Dorado edo Zanzibar dakartzkizu gogora. Uharte horietako hamaika istorio eta robinsonkerietan ugariak dira bukaneroak, masoiak, lurpeko altxorrak, piratak, errege auto-izendatuak, iruzurtiak eta hilketak. Gainera, nik dakidala behintzat, bertan dago munduko gizarte kristau komunista bakarra, bere borondatez hala izatea erabakita. Uharte batek *mini mundus* bat aurkezten du, mundu bat txikian. Idazlearen nahia —mundu baten bihotzera iristea— zoragarri bete daiteke uharte horretan, diametroan hamar kilometro eskasekoan. Hain urruti dagoela iruditzen zaigun mundu horretan ikus daiteke azken bostehun urteen panorama, beti egon baita boterearen muga. Portugesak, frantsesak, ingelesak, holandesak eta austriarrak borrokatu dira uharte horiengatik. Baleontzi eta merkataritza-ontzien hornitegi zen, eta geltoki-lana egin zuen Bigarren Mundu Gerran.

Bi kontaketa-mota daude. Bata da kontatzeagatik kontatzea: nor no-rekin oheratzen den, nork nor hiltzen duen, etab. Kontaketa, niretzat,

epikatik dator: saiatzen zara munduaren bihotzera heltzen, saiatzen zara munduari errima bat jartzen, eta uharte hori aitzakia bikaina zen gai bat eta bestea bideratzeko *conditio humana* horretara, hau da, eleberraren gaia hiri handi bat ez izatea —non lehenbizi bizitza-estiloaren geruzak kendu behar diren gizakiaren arazo, kezka, beldur, premia, desio eta grinetara iritsi ahal izateko—, baizik eta uharte bat. Hor, munduaren ertzeko uharte horretan aurrez aurre agertzen dira gizakia eta natura, norbera eta gizartea, inperialismoa, kolonialismoa, exotismoa, utopia eta errealtatea. Eleberri honen bidez gizakiaren tragikomedia islatu nahi nuen, eta elkarren erabat kontrakoak ez diren lau figura erabiliz aurkeztu lau motatako grina, irrika, lehia eta irritsa, pasioa eta obsesioa. Lau pertsonaia horien bitartez munduaren lau alderdi zirriborratu nahi nituen: apaiz baten sinesmen-galera eta ukamena; emakume natur zientzialari baten sexu-arteko borroka, eta neure buruari galdetu nahi nion ea naturak zer eragin duen nigan eta nire existentzian, zenbateraino senti dezakegun eta zenbateko garrantzia duen niretzat; baina baita munduari so egin ere zigilu-bildumagile baten begiz —bere txoko txiki eta batzuetan oso mugatutik—, eta azkenik telegrafista eta kartografo baten begiz. Kontatzeko daukadan gogoak zerikusia dauka munduaren zirriborro diferente hauekin.

Protagonistek ez daukate zerikusirik nirekin. Ni ez naiz inoiz akolito izan eta beraz oso zaila egin zitzaidan apaiza deskribatzea, nik ez dut inoiz zigiluen bildumarik egin, ni ez naiz inoiz armada austriarrean jardun telegrafista- edo kartografo-lanetan, ni ez naiz emakumea, baina pertsonaia hauen baitan sartu naiz, zeren literatura, nire ustez, maskara-jokoa da. Hugo Ballek ederki esan zuen literatura maskara-jokoa dela ezerezean. Maskara horiek gauzak gorpuzten dizkigute, aurkezten dizkigute, jostailutzat har ditzakegu: giza tragediaren drama eta komedia. Idazleak maskarak sortzen ditu, eta haiek janzten ditu irakurleak, maskaren bitartez mundua ikusteko.

Bizi naizen Irlandan gauak luze samar eusten dionez argitasunari, egunez *Tristan da Cunha*rekin jardun eta gauez —nekatuta bai baina

adrenalinaz betea nengoenez—, *Lop Nor* istorioa hasi nintzen asmatzen, denbora-pasa. Ez nuen ezer ikertu behar izan, prest bainean duna kantarien gaia. Neuk ere ez dakit nola heldu nintzen bat-batean istorio horren tonalitatera eta estilora. Sekula ez nituen idatzi hain esaldi laburrak eta alaiak. Barre eginarazten zidan esaldi bakoitzak: “Ordu arte jolasten erabilitako goma eman zion mutilak neskari puntu. Neskak Arlette zuen izena puntu. Beste hiri batean izan zen hori puntu.” Zuloak idaztea zen hori, Gruyère gazta bezala. Baliteke Hemingwayren eragina izatea, edo Canettirena, agian *Printze Txiki*arena. Protagonista inozoa da eta ez du ezer ulertzen. Beti dago orainaldian, iragan gutxi eta etorkizun gutxi dauka, begi kamutsak dauzka. Ez daki non dagoen goia eta non behea, ez zer egin emakumeekin, ez bera nor den ez nora doan. Ordu arte ez neukan esperientziarik estilo eta pentsaera horrekin, baina oso dibertigarria da zure pertsonaia inuzente samarra dela aurrez jakitea.

Era berean, gustura aipatzen dut historia naturala, natur zientziak, harearen dinamika —T.S. Elliottek dioen “korrelatibo objektibo” gisa—, eta amodioa. Horrela sartzzen zara figuratiboaren perspektiban, gero eta itxura objektibo handiagoa daukanean, baina inola ere hala ez denean. Formulen bidez, tropoen bidez, pentsamenduko eta estiloko figuren bidez, gramatikaren bidez, hizkuntzaren bidez eta hitz-aukeraren bidez, norberaren esperientziak objektibizatu eta esperientzien eredu bihurtzen dira. Baina azkenean literatura makina bat da, eta zuk bera baino berak zu gehiago mugatzen zaitu.”

Atzo Irlandan, gaur goizean Bremenen, orain Kolonian, gero hitzaldia... Elkarrizketari amaiera arin bat ematen saiatuko naiz. Espanturik gabe, hizkuntzaren dantzari baten antzera —ustekabeko pirueta bat eginda, hurrena nola jarraitu pentsatu gabe—, lo-kuluxka bat egitera doana bezala, Raoul Schrott irribarre egin eta zutitu da. Bostekoa eman eta hor doa, bizi-bizi, atzean bere zerbait utzita. Neuk bakarrik —bertan gelditu bainaiz elkarrizketariaren trasteak biltzen— ikus dezaket zera hori: oinaze bat, itsatsita geratutako itzal baten antzekoa. Hain tinko

ihesi doanarena ote da? Nirea ote da, edo bereiztearen oinazea ote da —gizakiak berezkoa duena—, pixka batean aretoan gelditu ondoren berriro jabeari lotzen zaiona?

BIBLIOGRAFIA

- 1.- Errimak. Guihelm IX, Akitaniako duke eta Poitiersko kondearen (1071-1127) hamaika kan-tuak, Raoul Schrottek alemanera itzuliak eta handik bere eskuz 1990-1991n dozena bat ber-tso sortuak
- 2.- Sub Rosa, 22 posta-txartel eta telegrama bat - Arnold Mario Dall'O-ren irudiekin.
- 3.- Hotelak, 33 poema
- 4.- Dada 21/22 - arrain-zopa musikala arrotz-herrietako inpresioekin
- 5.- Heriotzaren kondairak
- 6.- Dada 15/25 - Tristan Tzararen abentura zerutiarrak
- 7.- Poesiaren asmakizuna
- 8.- Tropoak - Gorenari buruz
- 9.- Lop Nor basamortua
- 10.- Basamortuaren izenak
- 11.- Aingeruen sexua

Liburu-iruzkinak



Lourdes Unzueta

Laura Mintegi

Oliver Sacs: *Antropologo bat Marten*
(EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2003).
Zientzia Irakurle Ororentzat (ZIO).
Itzultzailea: Xabier Olarra Lizaso)

Orbitatik kanpora-edo

Aspaldikoa da Martera heltzeko batzuen asmoa eta gogoia. Hasi ere aspaldi hasi zen Martera lehenengo nor helduko lasterketa, bizi-susmoren bat lehenik nork aurkituko. Heldu dira dagoeneko *Spirit* eta *Opportunity* robotak eta *Mars Express* espazio-zunda. Aurkitu, aurkitu dituzte planeta gorrian bizia dagoelako edo izan delako frogak ere.

Gizakia bera Martera heltzea izango da hurrengo erronka, gizaki europarra ala iparramerikarra izan, nor baino nor lehenago. Behin gizakia Martera helduta, izotzari eta izoztutako dioxidoari gutxi iritzita, bere kidekorik edo antzekorik bilatzeari ekingo dio heldu berriak, horixe litzateke hurrengo pausua, Marten martiarrik bizi ote den jakitea, alegia.

Asmoak asmo eta ametsak amets, demagun heldu dela lehen gizakia Martera. Hor doala tresna eta gailu sofistikatuak aldean dituela eta horra hor non aurkitzen duen martiarra ez den antropologo bat, bera baino lehenago heldua, nor eta Oliver Sacks jauna. Eta hara non Martera heltzen ustez lehen gizakiaren harridura-aurpegiaren irudiak berehala heltzen diren Lurrera. Sacks jaunak, irribarretsu, maisuki azalduko lioke heldu berriari ikusitakoak eragindako harridurak nerbio-sisteman zehar garuneraino egindako bidea.

Izan ere, Oliver Sacks neurologoak urteak daramatza albistegien lehen planotik urrun dauden garun-eremuak aztertzen. Aurkitu ditu aurkitu garunean ehunka eremu, zenbat pertzepzio eta jokabide hainbat eremu. Harrigarria da oraindino baina nola diharduten guztiek elkarlanean, horixe delarik, azken baten, neurologiaren azken galdera.

Osasuntsua den garunaren funtzionamendua aztertzea zaila bada, gaixoaren garunean jazotzen dena jakitea zailagoa izango dela pentsa daiteke, baina paziente hauen kontakizunak, biziraupen-kontakizunak Saksen berbetan, irakurri eta gero, osasun- eta gaixotasun-kontzeptuak eurak berriro definitu beharrean daude. Osasun-gaixotasunaren arteko muga edo tarte estua *Ikustea eta ez ikustea* kontakizunean agertzen da argien.

Marten bertan ere beste gizaki bat agertuko da, Temple Grandin emakume autista. Liburuari titulua damaion azken kontakizunaren protagonista da bera eta antropologo bat Marten bezala sentitzen dela gehienetan dio Saksi, hango jendea aztertzen, barruan zer duen asmatu nahian. Autismoaren ezaugarriak ditu-eta Templek: elkarreragin sozialerako, komunikaziorako eta irudimenezko jardueretarako ezintasuna. Baina emozio- eta adimen-arloan akats larriak izan arren, dohain bereziak autisten %10engan aurkitzen dira. Ikusmenezko eta usaimenezko adimena, musikala eta logikoa oso garatuak izan ditzakete.

Liburuaren azpititulua *Zazpi kontakizun paradoxiko* da, behin eta berriro agertzen delako gaixotasunak berarekin dakarrela paradoxa: ahalmen sortzailea duela hain zuzen ere. Gaixotasunak agerian jartzen dituela ezkutuko zenbait ahalmen. Lehenago uste zenaren kontrara, garuna ez da estatikoa, dinamikoa baino, eta etengabe egokitzen da organismoaren premietara hala osasunean nola gaixotasunean. *Kolorearen ikusmena galdu zuen margolariaren historian*, adibidez, margolari "itsuak" ikusmendun "normalak" baino askoz ere gaitasun handiagoa du kolore grisaren ñabardura guztiak bereizteko.

Kontakizunen beste ezaugarri bat edo, hobeto esanda, Sacks neurologoaren lan egiteko modua eta horrez gainera mediku-paziente arteko harremanaren ezaugarria, zera da, harreman hori ez dela medikuaren kontsulta-lekura mugatzen edo gaixoaren etxera noizbehinka egindako ikustaldietara bakarrik luzatzen. Kasuotan, medikua gaixoaren etxera joan eta harekin bizi da hainbat egun, harekin doa paseatzera, zoora, supermerkatuara, lanera edo dena delakora.

Zazpi kontakizunek osatzen dute liburua, besteak beste autismoa, amnesia, Touretteren sindromea, lobulu tenporaleko sindromea eta kolorearekiko itsutasuna deskribatuz. Kontakizun bakoitzean, akastun pazientearen historia klinikoa ardatz harturik, Sacksek harekin igarotako egunetan ikusi eta jazotakoa kontatzen du, gerora harekin izandako telefono-dei eta eskutitzak, horrekin guztiarekin batera sindromeari buruzko klase magistrala (bere zentzu onean), erreferentzia eta bibliografia-zita ugariz hornitua, ematen digularik. Alde horretatik Medikuntza-fakultateetan irakurtzeko liburu-zerrendan sartu beharrekotzat jo daiteke.

Ez da erraza zazpi kontakizunok laburtzen. Ahalegindu egingo naiz, hala ere. Irakurri ahala eta ondoren ere, galdera hauexek nerabiltzan buruan: Zelan agertzen da kontakizunean gaixotasunaren paradoxa? Zelan erakusten du pazienteak gaixotasunak duen ahalmen sortzailea? Gaixotasuna aztertzerakoan zelan aztertzen du medikuak gaixoaren nortasuna?

Hona hemen, kontakizunez kontakizun, eta nolabait galderoi-erantzunez, Temple autistarekin batera Marten aurki ditzakegun gizakiak.

Kolorearen ikusmena galdu zuen margolariaren historia. Istripu baten ondorioz, margolari batentzat hain funtsezkoa den kolorearen ikusmena galdu ondoren, depresioak jota dabil I. Jauna. Hobera bidean, iluntzean eta gauean hobeto ikusten duela konturatu eta gautxori bihurtuko da. Gaueko munduan jende "normalaren" parekoa dela sentitzen du. Zalantzan ibili ondoren, zuri-beltzean margotzen hasiko da, ahalmen aparta duelako zuriaren eta beltzaren arteko gama guztiak bereizteko. Zuri-beltzezko margolanek arrakasta izango dute, jendeak bere zuri-beltzezko fasea aipatuko du. Gutxik jakingo dute baina, fase hori, kolorearen ikusmena galtzeak eragina dela.

Azken hippya. Hauxe da, neure ustez, kontakizun ezkor bakarra. Buruan tumore handi eta hedatua dauka Gregek. Itsu, lasaiegi, amnesia-dun, sentipenik bakoa ematen du, hau da, lobotomia frontala jasandako pazienteak dirudi. Egoera horri, hasieran, Krishna anaidiko kideek

dohaina iritziko diote. Ospitale psikiatriko baten emango ditu ondo-
rengo urteak. Gustuko zuen musika taldearen kontzertuan bakarrik be-
rreskuratuko ditu aurreko nortasun-izpiak, baina hori ere, kontzertuak
dirauren bitartean, gero ez du ezer gogoratuko eta. Sacksek dioenez,
guztiok daukagu geure lobulu frontalaren agindupetik aldi baterako
ihes egiteko beharrizana, arazoa gaixotasunaren ondorioz egoera hori
betirako denean sortzen da. Kontakizun honetan lobotomia frontala
dela-eta egindako zentzugabekeriak salatzen ditu neurologoak.

Kirurgialari baten bizimodua. Touretteren sindromearen ezaugarriak
honako hauek dira: tik dardaratiak, inoren hitz edo egintzak nahi gabe
errepikatzea eta madarikazio nahiz zantarkeriak dardarka botatzea.
Ezaugarriok ikusita, lanbide batzuk ez lirateke aproposak izango sin-
dromea dutenentzat, baina Sacksek ezagutzen ditu Touretteren sindro-
mea duten hainbat kirurgialari eta mediku. Sindromeari buruzko ba-
tzarreen ezagutuko du Carl Bennett kirurgialaria. Berarekin igarotako
egunetan ikusiko du pazienteek eta lankideek dioten begirunea, nola
onartzen dituzten haren tikak eta portaera arraro samarrak. Eguneroko
bizimoduan eta lanbidean harrituta itxi ondoren, azken egunean kirur-
gialariak berak hegazkina hartu, gidatu eta herritik aireportu nagusi-
raino eramango du Sacks jauna.

Ikustea eta ez ikustea. Virgil ia ume-umetatik itsua da, horrez gainera
begi-lauso lodiak ditu. Itsua izan arren bizimodu autonomoa egiteko
gai da; ukimenezko adimena oso garatuta dauka eta fisioterapeuta da
ogibidez, ederto ezagutzen ditu bezeroen gorputzak. Ikusmendun
“normala” izateko prozesura bultzatuko dute emazte izango duenak
eta haren familiak. Krisiak sortuko zaizkio Virgili. Hainbat ebakuntza
eta tarteko gaixotasun batzuen ondoren baina, hondamendia etorriko
zaio. Hondamendia eta, paradoxaz, askatasuna batera etorriko zaizkio:
azkenean zilegi izango zaio ez ikustea, aske izango da bere benetako
nortasunera itzultzeko.

Izan ere, itsu izatetik ikusmendun “normala” izateko prozesuan Vir-
gilen gogoz kontrara ibiltzearen zalantza agertzen du Sacksek, ikusme-

na berreskuratzeak nerbio-sistemaren funtzionamendua aldatzea eskatzeaz batera, psikologian eta nortasunean ere aldaketak eskatzen dizkiolako. Antzeko kasua da euren hizkuntza eta kultura duten gorrena ere. Eta hona galdera: Nor gara gu gaixo izan arren bere psikologia eta nortasuna duen gizakiaren kontrara ekiteko, haren askatasuna ez errespetatzeko, gaixoaren ingurua aldatu beharrean gaixoa bera aldatu guran ibiltzeko?

Bere ametsen paisaia. Lobulu tenporaleko krisialdi psikikoak ditu Franco Magnani italiar jatorriko margolariak. Horren eraginez behin eta berriro, obsesioz, margotuko du Pontito, hamabi urte zituela itxitako jaioterria. Haurtzaroko ikuspegia gogoratzen du beti, orduko erreallitatea. Herriaren oroitzapena sakratu bihurtu du eta berak misio bat dauka; orainean bizi, baina gogoa eta artea iraganean ditu. Helduaroko ahalmenez bere obsesioa eta oroi-mina arte bihurtzen ditu.

Honelako krisialdiak izan eta "krisiarteko nortasunaren sindromea" jasatea egotzi zaie hainbat gizon ospetsuri: Van Gogh, Dostoievski, Proust, Lewis Carroll eta abarri. Bide honetatik urrunegi joateko arriskuaz, artisten adierazpideak akats neurologiko eta psikiatrikotzat jotzeko arriskuaz ohartarazten gaitu Sacksek.

Miragarriak. Stephen Wiltshire gaztea bederatzi urterekin hasiko da berbetan; autisten eta idiot savant direlakoan ezaugarriak ditu: ikusmenezko oroimen itzela (bere margolanetan adierazten duena), imitazioarako trebetasuna eta musikarekin bat egiteko gaitasuna (kantatzerakoan autismoa joan egiten zaiola dirudi eta). Ezaugarriok ikusita, adimen bananduak proposatzen dira: ikusmenaren, ukimenaren, lexikoa-ren eta abarren arloko adimenak, guztiak autonomoak eta nerbio-sisteman oinarri berezidunak.

Baina kasu honek hainbat galdera sortzen ditu: Izan ote daiteke inor artista *nirik* izan barik? Zenbateraino ulertzen du Stephenek marrazkien esanahia, kantuek adierazten duten barne-egoera?

Antropologo bat Marten. Lehenago esan bezala, Temple Grandin emakume autista da bere protagonista. Ingeniaria eta unibertsitate-irakaslea,

100 komunikaziotik gora eman ditu argitara berak dakienaz, hau da, animalien portaeraz, azienda-instalazioen kudeaketaz eta autismoaz.

Adimen mota batzuk autistengan oso garatuak izan daitezkeen arren, adimen pertsonalak (norberaren eta inoren gogo-egoeraz jabetzeko gaitasuna) oso atzeratuak izaten dira. Templeren kasuan, giza harremanek ematen ez dioten gozotasuna berak animaliei eman eta eurengandik hartzen du bueltan.

Hemen ditugu ba zazpi gizon-emakume, denak maitagarriak, denak gizaki "normalak" bezain errukarriak, nortasun sendokoak, euren akatsen azpitik indar sortzailea azaleratzeko ahaleginetan gizaki "normalen" goraldi eta beheraldi berberak dituztenak, Marten antropologo "normal" bat bezain galduak. Horrelaxe erakusten dizkigu Sacksek, gaixoei dien begirunea eta maitasuna dariola daude-eta kontakizunotan.

Amaitzeko, liburu honekin euskaraz zientzia dibulgatzeko egin den lana azpimarratu eta goraiatu behar da. ZIO bildumaren arduradunek eurek esanda, asmoa zientzia-zabalkundea egitea izan da, oraindik ere erabili beharreko hizkuntza-ereduaren bila dabiltzala. Xabier Olarraren itzulpena irakurrita asmoak bide onetik doazela esan behar. Euskaraz hezitako zientzialari eta zientzia-zaleei errazagoa izango zaie liburuan azaltzen diren kontzeptu eta teoria zientifikoak barneratzea. Gazteleraz hezitakooi, Sacksen esanetara, garun-eremu berriak gartzen lagunduko digu, horra hor hizkuntzaren paradoxa.

Inmanuel Kant: intelektual kantiarra munduari beha

Artikulu honetan, eta Inmanuel Kanten heriotzaren 200. urteurrena betetzen dela aitzakiatzat hartuta, filosofoaren irakaspenetariko bat jarri nahi izango da agerian, moralari eta etikari dagokien zatia hain zuzen. Sentipenetik baino, konstantzia batetik abiatuko da artikulua.

Mundua ez dabil ondo

Mundua ez dabil ondo, begi-bistan dago. Josep Conrad-ek esandako hura, sarri askotan datorkigu gogora: "Horrorea, horrorea!", eta gehitzeko ezer gutxi egoten da. Eman ematen baitu, ideiei dei egin ordez, zentzuei egiten zaiela dei etengabe, hondamenaz ohar gaitezen eta bihotza bigun dakigun. Ematen du eskatzen zaigula mundua senti dezagun baina ez dezagun mundua pentsa. Eta hori arriskutsua da. Kantek berak zioenez,

"sentsibilitatez beteta egoten ohi gara, pentsamenduz hutsik egoten garenean".

XXI. mende honetako hasieran hiritarrok dugun begitazioa da demasia gehiegi burutzen dela —gure begien aurrean burutu ere—, eta inolako kontrolik ez dagoela. Ez omen dago lege nagusirik, ez omen dago autoritate moralik, eta sheriff edo jendarme titulua beretzat hartu duen agintaria, hain zuzen, zentzuduna izan ordez, bidegabekeria gehien egiten duenetarikoa da, bai arlo ekologikoan, bai politikoan edota baita baloreen arloan ere. Kaos-sentsazio hori ez da berria, egia da. Kantek, orain 200 urte honakoa esan zuen:

"Mundua txarto dagoela historia bezain zaharra den kexa da; arte poetikoa bezain zaharra da izan ere; poesia zaharrena den Apaiz Erljioa bezain zaharra da alegia. Hala ere, guzti-guztiek kokatzen dute munduaren hasiera Ongian... baina Ontasun hori ametsa baillitzan desagertzen uzten dute".

Beraz, nahiz eta munduan diren etika desberdinek dioten Ongia dela hasieraren abiapuntua, errealitatea da Gaizkia dugula munduan zehar barreiatuen dagoena, eta denek sentitzen dute Gaizkiari muga ipintze-ko beharra dagoela.

Moral baten beharritzana aldarrikatuz

Baina nola mugatu gaizkia? Nola neutralizatu haren indar eragilea? Egiten zaigun proposamena zera da, giza eskubideetan oinarrituriko moral unibertsala ezartzea.

Moral baten beharra aldarrikatzen da, orain 200 urte Kantek berak aldarrikatu zuen bezala mundua goitik behera jausten ari zitzaiela antzeman zuenean: Frantziar Iraultzak, Erregimen Zaharra bertan behe-
ra utzi zuen betiko.

Soluziobideak topatuz —eta Gaizkia errotik eta betirako ezabatuko duen utopia ezinezkoa den artean—, Gaitz Erdia proposatzen zaigu, Demokrazia parlamentarioa alegia, non kapitalismoa giza eskubide unibertsalekin hornitua eskaintzen zaigun eta, *manu militari*, mundu osora esportatzen den, moral berria osatuz. Eta hemen sortzen da, nire ustez, lehen nahasketa. Kantek moralaz hitz egiten zigun arren, ez zen ari egiaz moralaz mintzatzen, etikaz baizik. Hori dugu lehen akats handia, morala eta etika nahastea.

Morala, gizarte (edo komunitate, edo erlijio) batek ezartzen duen arau-multzoa da, garaian garaikoa, koordenatu espazio-denborazko zehatzak dituen, aldagarria beraz, eta gizarte edo kolektibo horrek bete beharrekoa, aginte batek ezarrita eta haren zerbitzura jarria, Nietzschek ongi erakutsi zuen bezala. Morala haustearen ordaina zigorra da, edo bazterketa, edo bekaturia (San Paulok zioen bekaturia legeak sortzen duela), edo kolektibitatekan kanporatua izatea.

Etika, ordea, beste eremu batekoa da. Ez dio erantzuten aurretik ezarritako kode bati, baizik eta gizakiarengandik sortzen den berehalako erantzuna den, aldeztu aurretiko kode ezagunik gabekoa. Rousseauk uste zuen, bertuteak bezala, etika berezkoa dela pertsonengan, eta uniber-

tsala dela. Beste batzuek uste dute gizakien ahalmen bakarra dela justizia batekiko etikaz jokatzea, erantzun puntuala, berriz azalduko den bermerik gabea. Morala inposa daitekeen arren, etika ezin da inposatu.

Moralaren legeak, berez eta Kanten ustean, jokatzeko borondate-autonomia eduki ahal izatea dakar, eta Kantek ohartarazi gintuen arriskuaz, funtsean etika bat duen legea, moral gisa erabili nahi denean:

"adi ibil adi legegileak inposaketaren bidez gauzatu nahi baldin balu xede etikoetan ezarri-rik dagoen konstituzioa!".

Horixe da, hain zuzen, askorentzat ulergaitza suertatzen den kontua, alegia, nola den posible moral bat ezartzea debeku edo arau bakar bat aipatu gabe. Kanten moralaren (etikaren) balio handiena da prozesu politiko bakoitzean kasuan kasuko edukiaz beteko dela moral berria.

Morala bai, baina ez beti bera

Kantek, Frantziar Iraultzaren berri izan zuen lehen uneetan *"horrorea, horrorea!"* oihukatu zuen arren, bigarren hausnarketa batean konturatu zen ustez inmoralak ziren haiek (Robespierre eta) moral berri bat ezartzen ari zirela une hartan ('guztiak berdinak gara legearen aurrean'), eta horretarako moral zaharra ('batzuk besteak baino gehiago dira legearen arabera') irauli behar zutela, suntsitu, akabatu, desagerrarazi guztiz. Iraultzaile haiek ez ziren inmoralak, amoralak ziren: moraletik kanpo jokatu zuten moral berri bat ezartzeko asmoz.

Iraultzaile haiek gogor jokatzeko beharrian ezinbestekoa izan zuten. Ordena goitik behera (behetik gora esan behar genuke zehatzago) irauli nahi denean —boteretsuei indarra kendu eta ezer ez dutenei eman—, aldaketa ezin daiteke gozo eta baketsua izan. Bortizkeria hori ez da inmoral; amoral da, bere baitan moral bat ez duelako. Zeren, Nietzschek azaldu zuenez, moralak duen estatutu bakarra genealogia bat izatearena baita. Eta Nietzsche-rekin segituz esaten ahal dugu 'bortizkeria' eta baloreak alderantzteko borrokatzen dutenen 'entusiasmoak' elkarka-

riak direla. Zenbat eta entusiasmo handiagoa izan ordena berriaren baloreekiko, are eta bortitzagoa izango da ekintza.

Nietzsche-k proposatzen diguna da boterearen jatorria aztertzea, zeren Morala beti izango baita mundu zaharraren hondakina, beraren burua iraunarazteko bereganatzen duen babes legeztatua.

Intelektualen jarrera

Eta honen guztiaren aurrean, zein da intelektualen jarrera? Ume-zurtz daude intelektualak ideia handiak hil zirenez geroztik (Nietzscheren *"Jainkoa hil da"* ez da esaldi hutsa). Egunerokotasuna, antzeman ezinezko gertakizun kateatu gisa ikusten da, eta ikuskizun horrek baloreen krisialdia sorrarazten du, inpotentzia-sentsazioa, intelektualak nihilista pasibo bihurtuz.

Moral zaharrari atxikita dagoenak izua sentitzen du errearen aurrean (erreal, zentzu lacaniarrean esanda) eta, Goethe-ren antzera dio *"desordena baino lehen, hobe injustizia"* edo, gure amari sarritan entzuten genion moduan *"por la paz una avemaría"*. Zeren, Moralaren ikuspuntutik begiratura, subertsioa batez ere desordena baita. Hala ere, eta Goethe-ren esaldira bueltatuz, deigarria da ikustea nola nozitzen zuen aipatutako egoera injustua dela, eta balorazio hori ez dator, izan ere, moral zaharraren sailkapenetik. Injustua dela dio, araudia ez den beste irizpideren bat erabiliz, politikaren ikuspuntutik hain zuzen ere. Politikak berak ('Politika' letra handiaz, eta ez 'politikoa') beraren printzipio etikoa ezartzen du eta ez du kanpotik etorritako ezeren beharrik, bera buruaskia baita beraren legitimazioa sortzeko.

Ikuskizunari beha

Entusiasmo iraultzailearen atzeko aldean, ordea, ezkertiarren desenkantua dugu. Desenkantuak baina, bakarrik jotzen du munduaren ikusle bihurtu dena. Mundu zaharra gobernatzen zuen lege morala hil ondoren, ikusleak ez du lege berririk ikusten; printzipio eta balore etiko berriak prozesu politikoen barnetik bakar-bakarrik ikusten direlako, eta

ez beste edonondik. Intelektual behatzaileak noraezean ikusten du bere burua, erreferente gabe, eta zaila izango zaio, bera ere militantea izan ezean, balore berriak unean bertan nondik joko duen antzematea, prozesuan murgilduta egon ezean.

Zeren, gaur egungo mundu globalizatu hau, zerbait izatekotan, ikuskizuna baita, Kanten garaian izan zitekeena baino ehun aldiz gehiago areagotuta: gerrak, hondamendiak, futbol-partidak, krisiak, balantze ekonomikoak, estatistika erraldoiak... tamaina handiko ikuskizunak. Eta ikuskizunak ikusleak behar ditu. Eta ikusleei iritzia eskatzen zaie, zuk zeuk zer uste duzu horretaz guztiaz? [Julio Medem-en *"Euskal Pilota"* promozionatzeko iragarkietan diote *"y tú, ¿qué opinas?"*]. Kantek interpelazio bera aditu zuen Frantziar Iraultzak eskaini zion ikuskizunaren aurrean, hobeto esateko, Iraultzaren aurretik. 1784an, hau da hura hasi baino bost urte lehenago, honelakoa idatzi zuen:

"Intuitiboari edo berehalakoari heltzen badiogu, historia politikoa kaos hutsa da. Desenkan-tua eragiten du, aditzera ematen duelako ikuskizun penagarri horren jatorria dela etenik ga-beko natura, eta natura horretan desolazioak lekua hartzen dio gauza guztien lokarri izan beharko lukeen arrazoari.

Eta egia da une hartan kaosa baino ez zela ikusten, *"liberté, égalité et fraternité"* maxima haiek absurdoak zirelako gizarte feudalaren eta monarkia absolutuaren garaian. Galdera da: zer da absurdoa dena, berdintasunezko ideiak, ala Erregimen Zaharra? Erantzuna, jakina, ikuspuntuaren arabera da, nor mintzatzen denaren arabera.

1795ean, ordea, Iraultza hasi eta 6 urtera, Kantek iritzia aldatu zuen eta ezusteko bira eman zion beraren pentsamenduari:

"Ikusleen pentsamoldea da soilik traizionatzen dena joko horretan, iraultza handiak eta kon-mozioak gertatzen direnean".

Ikusle izateari utzi gabe, Kantek jarrera bat bereganatu zuen: *"y tú ¿qué opinas?"* galderari erantzun zion. Gizateria osoari zegokion onura

ikusitu zuen iraultza hartan, eta izaera morala ezagutu zion, garaiko protagonistentzat onuragarria izateaz baino haratago, gizateria osoaren progresorako aurrerapausu handia zelako. Unean uneko arrakasta edo porrotaren gainetik —prozesuan diren miseria txiki eta basatikeria handien gainetik—, moral berriaren ekarpenarekin progresoan aurrera egiten zela ikusi zuen.

Eta ikuslea ere inplikatu daiteke prozesuarekin, harekiko entusiasmoa sentitzen duen heinean, beraren izpiritua jokoan murgilduta ikusten duen heinean.

Edonola ere, Kanten (edo ikuslearen) entusiasmoak ez du zerikusirik Saint-Just-ek edo Robespierrek izan zuten entusiasmoarekin. Lehena ikusle zen; bigarrenak, militanteak. Kanten hasierako desenkantua (angustia?) eta ondorengo entusiasmoa, Politikatik kanpo dauden sentimentuak dira; ez bata ez besteak ez dute berezko konsistentziarik. Ikuskizunak ikusleak behar ditu, eta gero eta handiagoa da gu guztiok ikusle huts bihurtzeko egiten zaigun eskaintza. Ikusleoi gure iritzia soilik eskatzen zaigu, eta iritzia ez du ezer aldatzeko ahalmenik.

Konklusioa

Esan dugu lehen eta berriz ere esan behar dugu: prozesu politikoaren barnean egon ezean, kanpotik ez dago ezer ikusterik. Prozesu politiko indartsuak gertatzen ari diren bitartean, ezin dira “pentsatu”, bizi egin behar dira, bizi soilik.

Eta burua kanpoan kokatzen duen intelektualak ezin du ikusi, ez ulertu, ez arrazionalizatu bere inguruan jazotzen ari dena, bera aldaketan horren motor ez baldin bada. Eta, hala ere, motorra izanda ere, beraren egintza ez da izango prozesu intelektual baten ondorio, intuizioaren (errealaren) emaitza baizik. Filosofia beti berandu heltzen da prozesu politikoetara. Garrantzizkoa den guztia, gu konturatu orduko, pasatua izan ohi da.

“*Sapere aude*” zioen Kantek, “*ausart zaitez jakitera*” Jon Suduperen bertsoan. “*Sapere aude*” honi beste interpretazio bat eman geniezaioke:

"ausart zaitez inplikatzera, bustitzera". Lehen bezala orain ere, ikusle izatearen eta militante izatearen artean erabaki beharra baitugu denek.

Kantek, behinik behin, irakaspen handia eman zigun duda-mudazko garaietan aplikatzeko: *"izan zaitezte kritiko"*. Eta ez da aholku txarra.



Hegats-en argitaratu nahi baduzu:

- Nora bidali: testuak posta elektronikoz edo posta arruntez EIEra bidali beharko dira *Hegats*-erako direla esanez.
- Nola bidali: testuak euskarri elektronikoan helarazi beharko dira.
- Data: EIEk urtean bi ale argitaratzen ditu (uztailean eta abenduan). Kasu batean zein bestean, testuak hiru hilabete aurretik bidali beharko dira.
- Karaktere kopurua: idatzi beharreko karaktere kopurua, sailaren arabera, honakoa da:
 - Literaturbideak: Prosa (ipuina...): 18.000 kk gehienez
Poesia: 320 lerro gehienez
 - Kritikabideak: artikulua (saiakera...): 18.000 kk gehienez
 - Liburu-iruzkinak: 5.000-9.000 kk artean
- Idazkuntza-kontseiluak egileari hartutako erabakiaren berri emango dio.
- Idazkuntza-Kontseiluaren eta egilearen arteko harremana, ahal dela, e-postaren bidez burutuko da.

Harpidetu zaitez:

Urteko harpidetza: 12€ (urtean 2 zenbaki). Dendan ale bakoitza: 7 €



HARPIDE-TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria: P.K: Tel:

Banku edo Kutxa:

Kontu-zkia (20 digito):

EIE

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Zurriola hiribidea, 14-1.ezk

20.002 DONOSTIA

Tel: 943.27.69.99; Faxa: 943. 27.72.88

e-posta: eie@eie.euskalnet.net

Hegats

35

Literaturbideak 🐾

HARRY MARTINSON. *Hainbat poema.*

Kritikabideak 🐾

GARBIÑE IZTUETA. *Norbera eta bestea egungo alemaniar narratiban.*

VICENTE HUICI. *Peter Handke: intriga gabeko narraziorako idazkera berria.*

Txosten monografikoa: 🐾 **Alemaniar Literatura.**

BERNARDO ATXAGA. *Hiru liburu alemaniar.*

ITXARO BORDA *Rilkeren eresiak (h)itzal.*

FELIPE JUARISTI. *Hermann Broch.*

ANJEL LERTXUNDI. *Hermann Ungar.*

IXIAR ROZAS. *Ingeborg Bachmann: egutegiko emakumea.*

JULEN URKIZA. *Edith Stein, alemaniar emakume argia.*

JUAN LUIS ZABALA. *Peter Handke ez dut inoiz ulertu.*

JULEN URKIZA. *Olerkari alemaniarrek euskaraz.*

Elkarriketa: 🐾

RAOUL SCHROTT. *Literatur jardunean parerik gabeko idazlea. Hadassa Moscovici.*

Liburu-iruzkinak: 🐾

SACS, O. *Antropologo bat Marten.*
 Lourdes Unzueta.

INMANUEL KANT: *Inteletual kantiarra munduari begira. Laura Mintegi.*



- egina, idazlea da lanbidez. Lan asko argitaratu eta sari asko jaso du, hauen artean aipagarri, Espainiako Sari Nazionalea.
- **ITXARO BORDA** (Baiona, 1959): Historiako DEA egina, postaria da lanbidez. 1974an hasi zen *Herrin* astekarian idazten eta geroztik hainbat genero landu ditu. 2002an Euskadi Literatura saria eskuratu zuen.
 - **VICENTE HUICI** (Iruñea, 1955): Bergarako UNEDeko irakaslea da eta Peter Handkeri buruzko nazioarteko web orrialdearen adar erromaniakoaren arduraduna.
 - **GARBINE IZTUETA** (Tolosa, 1972): Alemaniar eta Ingeles Filologian lizentziatua. Filologian Doktore eta Alemaniar Filologiako irakasle EHUn.
 - **FELIPE JUARISTI** (Azkoitia, 1957): Kazetaria da ikasketaz eta lanbidez, baina literatura izan du ardatz. *Porrot* eta *Literatur Kazeta* aldizkarietako sortzaile izateaz gain, editore lanak ere egin izan ditu.
 - **ANJEL LERTXUNDI** (Orio, 1948): Maisu eta Filosofia eta Letra ikasketak egin zituen. Nobelaz eta ipuin bildumaz gainera, artikulugintza, saiakera eta haur eta gazte literatura landu ditu.
 - **GERARDO MARKULETA** (Oñati, 1963): Poeta eta itzultzailea. Poesia, narrazioa eta haur literatura landu du.
 - **HARRY MARTINSON** (Jämskö, 1904): idazle suediarra. Eleberriak, poesia, saiakera eta kontakizunen bilduma ugari idatzi zuen. Nobel Saria jaso zuen 1974an.
 - **LAURA MINTEGI** (Lizarrar, 1955): Historian lizentziatua eta Psikologian doktoradutza egina. Gaur egun, Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakaslea da EHUen.
 - **HADASSA MOSCOVICI** (Bukarest): Linguistika, Filosofia eta Medikuntza ikasketak egina. Medikua da lanbidez. Egunkari eta irrati ezbedinetan kolaboratu du eta hainbat lan argitaratu ditu.
 - **IXIAR ROZAS** (Lasarte-Oria, 1972): Kazetaritzan lizentziaduna eta Gidoi-laritza Masterra egina. Kazetari eta gidoigile gisa lan egin du zenbait komunikabidetan.
 - **RAOUL SCHROTT** (Austriar idazlea, 1964): Letretako katedraduna. Idazle, eleberrigile, itzultzaile eta saiakeragile polemikoa.
 - **LOURDES UNZUETA** (Durango, 1956): Medikuntza ikasketak burutu ondoren Familia eta Komunitate Medikuntzako espezialitatea egin zuen. Lanbidez familia medikua da. Literatura arloan narrazio laburrak idatzi ditu.
 - **JULEN URKIZA** (Ondarroa, 1944): Teologian Doktorea. 1984tik *Karmel* aldizkariaren zuzendaria da eta *Karmel-Sorta* (1989-) eta *Vasconia Sacra* (1995-) liburuen sortzaile eta zuzendaria.
 - **JUAN LUIS ZABALA** (Azkoitia, 1963): Euskal Filologian lizentziaduna, kazetaria da lanbidez, *Berria*-ko Kultura Saileko erredaktorea. Eleberria, ipuina eta poesia landu ditu.

